

BIZIRAUPENERAKO ZAINTZA

HERNANIKO INUDEAK 1900-1944

AMAIA
RODRIGUEZ
OÑATIBIA

BIZIRAUPENERAKO ZAINTZA

HERNANIKO INUDEAK 1900-1944

AMAIA RODRIGUEZ OÑATIBIA

ARGITARATZAILEA:
Hernaniko Udala /Berdintasun Arloa

EGILEA:
Amaia Rodriguez Oñatibia

ZUZENKETA:
Urko Apaolaza Ávila

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA:
Antza Komunikazio Grafikoa
Zirkuitu ibilbidea, 2 - 20260 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-934193-8-7
Lege gordailua: SS-190-2019

2019ko martxoa

Nik hilaren [martxoaren] 8an honen argazkia jarriko nuke Plazan!

Neska, neska, hori gertatu al zain? Ekatzu, nik haziko det...

Baina nola bidaliko genun Fraisorora? Bere askatasuna galtzera...

– Hi nere anaia haiz!

– Hi, zein haiz ba?

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA 11

2. ERALDAKETA GARAIA: MODERNIZAZIOA 13
2.1. Eraldaketa politiko eta ekonomikoak martxan 13
2.2. Genero sistema birdefinitzen: ilustrazioa 15
2.2.1. Genero sistema ezarri eta erreproduzitzeko mekanismoak 17
a) Oinarrian, lege baztertzaileak 18
b) Errealitatea proiektatuz: genero diskurtsoak 19
• Mende hasierako feminitate diskurtsoaren moldaketa 24
2.3. Benefizentziatik erreformismo sozialera: Estatua bizimodu eta gorputzen gainean erabakitzen 25
2.3.1. Gatazkak saihestuz: erreformismoa, diziplina eta lanaren etika 26
2.3.2. Erreforma legalak: emakumeak babestu, genero sistema indartuz 30
2.3.3. Erreformak emakume aurpegia du: maternologia, eugenesia, haurtzaroa eta edoskitzea 32
2.4. Lanaren kontzeptuaz 36

3. ERALDAKETAK BERTAN: GIPUZKOA ETA HERNANI XX. MENDE HASIERAN 39
3.1. Industrializazioa Hernanin 39
3.2. Ideia modernoak mahai gainean: medikuntza, higienea eta arraza 45
3.2.1. Hernani eraldaketa betean: ideia eta ohituren fusioa 45
3.2.2. *Guipúzcoa Médica*: higienismoaren ahotsak Gipuzkoan 47
3.2.3. *Euskal Erria*: euskal elite kulturalaren pentsaera 51
3.2.4. *Aurrazkuntza irakastia*: arraza hobetzeko gizartea (amak) heziz 56
3.3. Erreforma sozialak Gipuzkoan 59

4. INUDEAK BEREN TESTUINGURUAN: edoskitzea, klasea, haur abandonatuak eta bete beharreko legeak 65
4.1. Edoskitzea eta inudeak: historia gorabeheratsu bat 65
4.2. Inude guztiak ez dira berdinak: klasea 72
4.3. Haurren abandonua 75
4.4. Haurren babesa jopuntuan: mekanismo legalak 78

5. XX. MENDEAREN LEHEN ERDIKO INUDE GIPUZKOARREN ERREALITATEA 83
5.1. Inudeak kontrolpean, haurrak babespean 83
5.1.1. Barruko inudeak: desohoretik ihesi, errua eta obedientzia nahitaezkoak direnean 87
• Amatasun behartuari iheska 89
5.1.2. Kanpoko inudeak: biziraupen estrategiak zaintzatik 92
a) Kanpoko inudeen perfil orokorra 92
b) Kanpoko inudeen betebeharrak 93
c) Kanpoko inudeen gaineko kontrola 94
d) Inudeak: Diputazioaren menpeko langileak. Lan baldintzak: 95
5.2. Hernaniko inudeak: hainbat ibilbide 102
a) Lehenengo ibilbidea: haurra prohijatzea 104
b) Bigarren ibilbidea: haurra sehaska etxera itzultzea 106
c) Hirugarren ibilbidea: haurra sehaska etxera itzultzea, behartuta 109
d) Laugarren ibilbidea: haurraren heriotza 110
e) Bosgarren ibilbidea: guraso biologikoek haurra legitimatzea 110
5.3. Inude hernaniarren profilak 111
a) Hernaniko inudeen familia ereduak 112
b) Inude hernaniarren alfabetatze maila 115
c) Inudeen lana(k): erroldetan ezkutatutako errealitatea eta bizirauteko egin beharreko gainontzeko lanak 116
5.4. Profilez harago: inudeen errealitate sozial konplexua 117

6. HAINBAT HERNANIARREN TESTIGANTZAK 125
6.1. Anttoni: bi aldiz inude 125
Hori gertatu al zain? Ekatzu, nik haziko det... Anttonik elkartasunez haur bat hazi zuenekoa 126
Joakin *alproja*ren ezinegona. Anttonik Fraisorotik haurra familiara ekarri zuenekoa 126
Joakinen ezinegona 127
Baina zer egin Joakinekin? 128
Diputazioaren aurreran izandako jarrera: *nola kenduko genion askatasuna?* 128
Familiaren bilaketa 129

6.2. Angel Mari, Fraisoroko haurra: bizitzarekin konforme 130
6.3. Joakina: baserria txiki gelditu zitzaion inudea 131
Joakina: baserritar bat XIX. mendearen amaieran 132
Joakinak haurra galdu zuenekoa 132
Cristina: kide bat gehiago familian 133
Herria txiki: Amerika,mundu berria 133
7. ONDORIOAK ETA AZKEN HAUSNARKETAK 135
8. GLOSARIOA 141
9. TAULEN INDIZEA 143
10. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA 144
10.1. Iturriak 144
10.2. Bibliografia 145
ESKERRAK 151

1.

HITZAURREA

Eskuartean duzun lan honek XX. mendeko inude hernaniarren historia ezagutzea du helburu. Zehazki, haur abandonatuen edoskitze eta zaintzaz arduratu ziren inudeen historian sakontzea da xedea. Hernaniko Udalak eta Berdintasun Kontseiluak emakumeen historia berreskuratze bidean sustatutako 4. ikerketa bekaren emaitza da, hain zuzen.

Hernaniko Udal Artxiboko dokumentazioa haztakatzen ari nintzela iritsi ziren nigana Hernaniko inudeak. Konturatu gabe, dokumentazioaren azalean nuen harribitxia. Hari ondo begiratzea baino ez zen falta, dena txukun jarri eta mahaigaineratzea. Duela ez hainbestera arte kolektibo eta subjektu historiko konplexua osatzen zuen emakume taldeari zegokion balioa ematea zen egin beharreko lan bakarra. Ez zen erronka makala.

Haritik tiraka, honaino heldu gara. Dokumentazio hutsuneak hutsune eta edozein ikerketa prozesuk berekin dakartzan zailtasunak zailtasun, Hernaniko inudeen erradiografia bat izan da lan honen emaitza.

Inudeen gaiari heltzeko, batetik, testuinguru historiko-sozial eta errealitate materialari erreparatu diogu eta bestetik, garai hartako ama, emakume eta inudeen inguruko diskurtsoetara gerturatu gara lan honetan, subjektu historiko hori dagokion sakontasunean ulertzeko: klasea eta generoa elkarri lotuta doazen bi kategoria dira eta horren erakusgarri dira haur abandonatuak zaindu zituzten inudeak.

Testuinguruak, beraz, garrantzi handia hartu du lan honetan: industrializazioa, estatuen indartze eta interbentzioa, erreformismo soziala eta bere adar zientifiko-medikoa (higienismoa), haur abandonatuen fenomenoa eta amatasun eta edoskitze eredu

modernoa -amatasuna bera historizatzea, alegia- izan dira besteak beste, fenomenoa konprenitu ahal izateko egin dugun ibilbide teorikoaren urratsak.

Artxiboko dokumentazioa izan da lan honen oinarria. Gai honek arantzatsua izaten jarraitzen du, ordea, eta, beraz, ezin dugu esan gabe utzi fenomeno honetan sakontzeko dokumentazio ugari aztertzeke gelditu dela. Babes bereziko datuak izaten jarraitzen dute inudeei eta haur abandonatuei dagozkienak. Horiek babeste aldera, hemendik aurrera ahotan edukiko ditugun izen-abizen guztiak izengoitiak direla esatea beharrezkoa da. Ezizen horien atzean dauden datuak, dokumentu historikoetatik ateratakoak dira.

Artxiboko dokumentazioaz gain, aztertu dugun garaiko argitalpenek lagundu digute XX. mende hasiera barne hartzen zuen garai aldakorra zuzenean ezagutzen. *Guipuzcoa Médica* eta *Euskal Erria* aldizkariak eta Eusko Ikaskuntzaren *Aurrazkuntza Irakastia* izan dira nagusiki aztergai izan ditugunak.

Amaitzeko, hainbat hernaniarrek inudeen eta haur abandonatuen inguruan zituzten testigantza batzuk jaso ahal izan ditugu: horietako bik inude bana eduki dute familian, eta, hirugarrena, Fraisoron jasotako haurra izan zen. Eta berriz diogu: gai korapilatsua da inudeena oraindik ere.

Hernaniko historiari ekarpen bat egingo diolakoan, hona biziraupenerako zaintzan jardun zuten Hernaniko inudeen istorioa.

2.

ERALDAKETA GARAIA: MODERNIZAZIOA

Esku artean dugun gaia jorratzeko, denboran atzera egin behar dugu, dituen ertz guztiak ezagutzeko eta haren esanahia sakonean ulertu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da XVIII. mende bukaerara begira jartzea, mundu moderno eta kapitalistaren sorreraren hastapenetara, alegia, gizarte modernoen sorrerarekin eta burgesiaren gorakadarekin batera mundua ulertzeko eta definitzeko erak aldatu baitziren orduan.

2. 1. ERALDAKETA POLITIKO ETA EKONOMIKOAK MARTXAN

XVIII. mendearen amaieran hasi eta XIX. mendean zehar garatzen joan ziren aldaketak prozesu luze bat izan ziren. Aldaketa politiko, ekonomiko eta kulturalak elkar gurutzatu eta elikatuz joan ziren, ordura arte ezagututako mundua eta baita mundu ikuskera ere aldatu arte. Aldaketa politiko garrantzitsuena izan zen Erregimen Zaharreko monarkia absolutistak erori eta Estatu-nazioak eratzen hastea.

Horren oinarrian liberalismo politikoa zegoen. Horren helburuak batetik, askatasuna (ekonomikoa, politikoa, pentsamenduzkoa eta nazioarena) eta bestetik, berdintasuna ziren. Liberalismo politikoaren funtsa honako hau zen, Locke, Rousseau eta Montesquieuren ideietan oinarritzen zena: eskubideen subjektuak "herritarrak" ziren, eta ez ordura arteko menpekoak; askatasun unibertsalaren alde egiten zuten, politikan, ekonomian eta jabetza-eskubideen defentsan; eta azkenik, subiranotasunaren jatorria ez zuten jainkoarengan ipintzen, herri edota nazioengan baizik. Horiek guztiak lekuan leku konstituzioetan bildu ziren. Estatu-nazioetan burokrazia eta administrazioa zentralizatu eta handitu ziren, eta herritarren parte-hartzea alderdi politikoen bitartez egin beharko zen. Baina herritartasunaren ideia abstraktu horrek, zer hartzen zuen barnean eta zer kanpoan uzten?

Galdera horri erantzuteko XVIII. mendean Ingalaterran sortzen hasi zen industrializazioaren testuinguruan kokatu behar dugu. Europako beste herrialdeetara fase ezberdinetan zabaldu zen industrializazioak ordura arteko ekoizpen moduak eraldatu eta produktibitatea handitu zuen. Lanaren merkantilizazioak gizartean eraldaketa sakonak ekarri zituen: nekazaritzak ordura arte ekonomian zuen pisua galdu zuen, bigarren eta hirugarren sektoreen mesedetan, eta hirien inguruetan kokatu ziren industria guneek haien populazioa handitzeko joera eragin zuten, landa guneko exodoa zela-eta. Hirietan langile ugari jarri zen bizitzen; langile auzo horien ezaugarrietako bat zen masifikazioa eta etxeen egoera kaskarra. Hirien zabalkundeak eta planifikazioa ere garai horretan hasi ziren garatzen, gainera. Garraiobideak hedatu ziren –batez ere trenbidea–, mugikortasuna errazten hasi zen eta komunikabideek garrantzia hartu zuten, iritzi publikoa borroka ideologikorako tresna gakoa bihurtu zen heinean, migrazioa ere bizi-bidea egiteko errekurtso bilakatu zen.

Erregimen politiko zaharrak desegiten hasi ziren XVIII. mende bukaeran Europan, baina gorabehera handiko garaiak izan ziren, tradizioaren eta modernitatearen arteko tentsioek luze jarraitu baitzuten. Ideia zientifikoek pisu handia hartu zuten, elkarte zientifikoak, akademiak, unibertsitateak eta aldizkari espezializatuak sortu ziren, besteak beste. Ideia liberalek arrazionalismoa eta laikotasuna bultzatzen zituzten eta hortaz, Eliza eta Estatuaren arteko banaketa bultzatzen zuten. Europak sekularizazioaren bidea hasi zuen, baina, batez ere eremu katolikoetan, oso motela izan zen prozesua: atzera eta aurrerako urratsak egin zituena, Elizak historikoki edukitako pisu handiagatik. Desamortizazioak, jesuiten ordena botatzea, irakaskuntza laikoa bultzatzea, ezkontza zibila legeztatzea... hainbat izan ziren estatuetatik bultzatu ziren politikak, Elizak biztanleengan zuen kontrola galtzeko prozesu luzea bideratu zutenak. Arlo pastoralera mugatzen hasi zen elizaren eginkizuna. Dena dela, aipatu ditugun atzera bueltak ohikoak izan ziren: hezkuntzan sendo mantendu zen Eliza eta zer esanik ez biztanleen eguneroko erituetan, sozializazioko guneetan, moralitatean eta abar. Esan bezala, sekularizazioa prozesu mantsoa izan zen eta hainbat erritmo izan zituen, praktika erlijioso sendoak mantendu baitziren. Aztertzen ari garen testuinguruan praktika horiei eutsi zitzaien, ikusiko dugunez.

Hezkuntzaren zabalpena eta hura jasotzeko aukera edukitzea izan zen garaiotako beste eraldaketa bat. XIX. mendean zehar, haurren eskolatzea bultzatu zen. Mutikoak izan ziren nabarmen alfabetatu zirenak, eta ez horrenbeste neskatoak. Izan ere, gobernuen politikan XIX. mendean zehar garrantzia hartu zuen lehen hezkuntzak, eta aipatu moduan, estatu eta elizaren arteko talkak eragin zituen horrek, hezkuntzaren monopolioa edukitzea giltzarria baitzen. Espainian Estatuak hezkuntza bere gain hartu bazuen ere, gobernu liberalak deuseztatzearekin batera 1830ean Elizak berriro hartu zuen hezkuntzaren ardura.

Burgesia hiritarraren boteretzea izan zen garaiotan nabarmendu daitekeen eraldaketa nagusia. Eremu politikoan sartzearekin batera, beren eragin esparrua handitzen joan ziren. Gizarte eredu zehatzak bultzatu zituzten. Testuinguru honetan (ideia zientifikoak, eskubideak, industrializazioa eta hirietako populazioaren handitzea...) gizartea eraldatzen ari zen eta sozializatzeko modu berriak agertzen hasi ziren. Modu berri horiek hiritarrak eta burgesak ziren; indibidualistak. Komunitate harremanek ahultzera jo zuten, publiko eta pribatuaren arteko banaketa sakona gauzatzen hasi baitzen. Etxea bizitza pribaturako gunea zen, familia elkartzen zuena, bertan otoitza, jaiotza, heriotza eta abar ospatzen ziren, horren ardura emakumeek zutela. Harremanak izateko gune berriak zabaldu ziren, aristokrazia eta burgesia kafe, kasino, klub, bainuetxe, opera eta halakoetan elkartzen zen, baita Elizan ere, noski. Sozializatzeko modu horiek, elite politiko berrientzako eta oraindik pisu nabarmena zuten familia aristokratikoentzako harreman guneak ziren.

Langile eta nekazariek ez zuten lekurik halako guneetan. Industrializazio prozesuaren eraginez lehenago nagusi ziren kide ugariko familiak gutxitzen hasi ziren, baina, oraindik familia nuklear burgesetik urrun zegoen langile eta nekazarien errealitatea. Industrializazioa zabaltzen hasi zenetik, lan ordu amaigabeak, atsedenerako tarte mugatua eta zaintza lanak –emakumeen kasuan– bata bestearen atzetik lotzen ziren. Izatekotan, langileak tabernetan elkartzen ziren, esperientziak trukatu eta pairatzen zuten bizi kaskarra nolabait elkartasunean leuntzeko asmoz. Gune horiek maskulinoak ziren, hau da, langileen sozializazio modu horietan ez zegoen emakumerik oro har. Egiazki, langileen kulturan alkoholismoa zeharo zabaldu zen. Moral burgesak basatien pare jarri zituen langileak horregatik, eta gogor egin zuten alkoholismoaren aurka, gorputzen diziplinaren alde baitzeuden. Gerora alderdi eta sindikatuek ere (sozialistak) horren aurka egingo zuten. Alderdia eta, batez ere, sindikatua beste sozializazio gune garrantzitsu bat bilakatu ziren gutxika antolatzen hasi ziren langileentzat.

2.2. GENERO SISTEMA BIRDEFINITZEN: ILUSTRAZIOA

Aipatu ditugun eraldaketa prozesu ezberdinei genero sistemaren eraikuntza gehitu behar diegu. Genero sistemak feminitate eta maskulinitate eredu (burgesak) zein familia nuklearraren ereduak bultzatu zituen: menpekotasunean eta emakumeen gutxiespen eta bazterketan oinarritu zen.

Ilustrazioko ideiek eta mundu ikuskerak *gizakia* munduaren erdigunean ezarri zuten, ordura arte jainkoa zegoen lekuan, hain zuzen. Ordura arteko munduaren ulerkera erlijiosoa alboratzen hasi ziren. Ulerkera zahar horren arabera, jainkoak morala eta legeak banatzen zituen eta naturarekiko harremana ere zuzentzen zuen –adibidez, urteren batean uzta txarra baldin bazegoen, jainkoaren zigorra izan zela pentsa zezaketen–.

Subjektuak ulertzeko era berri horrek, gizakiaren arrazoitzeko ahalmena nabarmendu nahi zuen, hau da, mundua azaldu eta matematizatzeko ahalmena azpimarratu nahi zuen. Beraz, gizakien eta naturaren arteko harremana eraldatu zen: gizakia erdigunean zegoen eta bere ingurunean zegoen mundua menperatzen zuen. Hortaz, naturak ilun, misteriotsu eta mistikoa zen zerbait izateari utzi zion: ikerketa objektu bilakatu zuten –baita gizakia bera ere–. Hitz batean, ilustrazioko ideiek gizakia burujabea, autonomoa eta subjektua zela azpimarratzen zuten: erabakimena zuen gizakiak. Horrela, ordura arteko heteronomia, hots, aipatu dugun jainkoarenganako erabakimen delegatua alboratzen hasi ziren.

Ideia ilustratuek gizakiari eskubide natural batzuk –gizaki izate hutsagatik zegozkionak– aitortzen zizkion. Desberdintasunez gaindi, gizaki guztiak batzen zituen norbanakoari zegozkion eskubide horiek ziren naturalak. Ordura arteko pribilegioak eta hierarkiak (estamentuak) errotik moztu nahi zituzten, berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko. Askatasuna eta berdintasuna ziren eskubide horiek ilustrazio-eredu frantsesean. Eredu anglosaxoiak bi eskubide horiei jabetza eskubidea ere gehitu zien. Eskubideen jabe zirenak herritarrak ziren eta kontratu sozialean aitortzen ziren eskubide horiek.

Baina lehenago esan dugunez, ilustrazioak ez zituen subjektu guztiak kontuan hartu eskubideen jabe ziren herritarrak izendatzeko. Eztabaidan zehaztu zuten espazio politikoan nor sartu eta nor ez, alegia, kontratu sozial horrek zein protagonista zituen zehazterako garaian, "bere naturaltasunetik" nor atera zitekeen eta "kulturarako ibilbidea" nork egin zezakeen erabaki zuten. Eztabaida horretan Jean-Jacques Rousseauren *Emilio* obra nahitaez hartu behar da kontutan[1], momentuan zein gerora edukitako berebiziko garrantziagatik. Bertan, herritar gisara izendatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen ziren ezaugarriak (bertute arrazional eta moralak) nork zituen zehaztu zuen pentsalari ilustratuak. Obra zabal horren 5. liburuan, "Sofia ala emakumea" atalean hain justu, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunetan sakondu zuen, feminitatea esparru naturalean eta maskulinitatea arrazoiaren eta kulturaren esparruan kokatu zituen.

Rousseauren arabera, gizon eta emakumeak naturalki parekoak ziren. Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak sexuaren araberakoak ziren, eta horrela laburbiltzen zuen: "komuna den hori espezieari dagokio, eta ezberdina den guztia sexuari". Horrela, emakume eta gizonen izaera sexuaren arabera ezberdinak ziren Rousseauren iritziz; ezberdinak baino, kontrakoak. Errealitatea ikuspegi binariotik aztertu baitzuen Rousseauk; bata bestearen aurkakoak ziren haren arabera.

1 Aipu guztiak Rousseauren lanaren gaztelaniazko *Emilio o la educación* (1762) bertsioren V. Liburutik (*Sofia o la mujer)* ateratakoak dira, interneten irakurgai: https://es.wikisource.org/wiki/Emilio:_Libro_V

Gizona, hortaz, aktiboa eta indartsua zen eta bere bertutea indarkeria. Emakumea, pasiboa eta ahula, eta bere patua gizonarentzako atsegina izan eta bere menpean egotea zen. Emakume eta gizonak bata bestearentzako eginak zeudela azpimarratzen zuen *Emilio* obran Rousseauk, baina, elkarren arteko dependentzia ezberdina zela aipatzen du: "Gizonak emakumeen mende daude beren desirengatik, eta emakumeak gizonen mende daude beren desira eta beharrengatik". Emakumeen halabeharra haurdunaldia da Rousseauren arabera; familia goxotasunez, pazientziaz, maitasunez, ahaleginez zaintzea... eta plazerez, ez lan gisara. Emakumeek beren patua betetzea ezinbestekoa da Rousseaurentzat, "bestela gizateria desagertuko baita".

Txikitatik ezberdintasun horietan sakontzea beharrezkotzat jotzen du, gainera: "Emakumeak txikitatik egon behar dira lotuta (...) Bizitza guztian zehar egon behar dira tinko helduta, esklaboak bezala, besteen iritzietatik zaintzeko bada ere. Beharrezkoa da lehenbailehen ohitzea horretara". Azken finean, Rousseaurentzat naturalki gizon eta emakumeak izaera ezberdina zuten, eta garrantzitsua zen hori ez aldatzea eta ezberdintasun horretan hezkuntzaren bitartez sakontzea.

Honek guztiak, esparru publiko eta pribatuaren arteko banaketa sakon bat eragin zuen mundu ikuskerari zegokionez. Kontrajarriak diren bi espazio bezala, esparru publikoa espazio politikoa zen, eta esan dugunez, emakumeak bertatik kanporatuak gelditu ziren. Esparru publikoa eta pribatua generoaren arabera ezberdindu ziren, esan bezala, kontrajarriak ziren eremu bezala. Ikus dezakegunez, gizontasun eta feminitate eredu horiek, hau da, funtzio, helburu, izaera eta abarren aurkakotasunean oinarritzen den genero sistema horrek gaur eguneraino iritsi den aztarna utzi du. Ikus dezagun jarraian nola erreproduzitu zen genero sistema bera.

2.2.1. Genero sistema ezarri eta erreproduzitzeko mekanismoak

Diskurtso zientifikoek zein legeek emakumea definitzeko ahaleginak eta bi egin zituzten. Obsesioaren mugan, emakume guztiek ustez zituzten ezaugarri komunak definitu nahi izan zituzten, eta gizonengandik zerk ezberdintzen zituen ere bai. Ondorioz, biologiak, hau da gizon edo emakume jaiotzeak berebiziko garrantzia hartu zuen eskubide eta betebeharrak eskuratzean. Lehen aipatu dugun hariari jarraiki, emakumeak –emakume izate hutsagatik, hots, esentziaz gizonen aurkakoak izateagatik– norbanako guztiei zegozkien eskubide horietatik kanporatuak izan ziren, izatez unibertsalak ziren eskubideetatik. Nerea Aresti historialariak dioen moduan, unibertsaltasun ilustratuak eta berdintasunaren printzipio abstraktuak ez zituen emakumeak barnebiltzen, baztertu baizik[2].

2 Aresti, Nerea (2012): 408. or.

Mary Nash historialariak azpimarratzen duenez, genero sistema bermatu eta mantentzeko hainbat mekanismo erabili ziren, bai kulturalak eta bai legalak ere: diskurtsoa eta legedia, batak bestea elikatzen zuen[3].

a) Oinarrian, lege baztertzaileak

Gizon eta emakume bakoitzak eginkizun bat zuen gizartean. Hori arautu eta indartzeko, **mekanismo legalak** erabili zituzten estatuek. Legeek lekuan leku berezitasunak izan bazituzten ere, gehienek 1804ko Napoleonen Kodea zuten oinarritzat. Bertan ezartzen ziren genero arau ezberdintzaileak, Espainian 1889ko Kode Zibilean garatu ziren. Aipatutako bi kodeetan zehazten zen "senarrak bere emaztea babestu" behar zuela eta emazteak senarrari "obedientzia zor" ziola. Kode honen arabera, senar-emazteen ondasunen administratzailea zen senarra eta horretaz gain, emaztearen ordezkaritza legala ere senarrari zegokion. Beraz, emazteak bere senarraren baimena behar zuen salerosketetan[4], kontratuetan edo auzi judizialetan parte hartu ahal izateko. Edozein motatako jarduera ekonomikorako zein jardun laboraletarako senarraren baimena behar zuen beraz emazteak, legearen arabera.

Kode zibilak desberdintasunak sortu eta indartzen zituen, senarraren agintea eta autoritatea berretsi[5] eta moral bikoitza zilegi bihurtzen baitzuen. Espainiar Estatuan 1889an onartutako Kode Zibilaren arabera, senarraren aginduak desobeditzea edota iraintzea emaztea espetxeratzeko arrazoi ziren. Tratu txar fisikoen kasuan soilik zigortzen zen senarra. Emaztea beste gizon batekin harremanak edukitzen topatzen bazuen senarrak eta bietako bati zauri larriak eragiten bazizkion, 25 kilometroko erbestera kondenatzen zuten –sei hilabete eta egun batetik sei urtera bitarteko denbora tartean–. Zauriak "arinak" zirenean, ez zegoen zigorrik. Alderantziz zenean, ordea, emazteak senarra hiltzea parrizidiotzat jotzen zen eta betiereko espetxe zigorra ezartzen zitzaion. Adulterio kasuak ere generoaren arabera ezberdin zigortzen ziren: ezkonduta zegoen emakume batek maitale bat izatekotan, bi eta sei urte bitarteko espetxe zigorrera kondenatzen zuten. Aitzitik, alderantzizkoa ez zen adulteriotzat jotzen[6].

Hitz batean, mekanismo horien bitartez, XIX. mendean zehar emakumeak hainbat eta hainbat herrialdetan eskubide zibilik gabe gelditu ziren, adin txikikotzat hartu eta gizabanako orori ustez zegozkion eskubide naturalak ukatuta.

3 Nash, Mary (2012): 32-51. or.

4 Egunerokotasuneko erosketetan izan ezik, emakumeari baitzegozkion egiteko horiek.

5 Nash, Mary (2012): 36. or.

6 Etxean norbait konkubinatoan eduki eta eskandalu publikoa sortzen ez zuen bitartean.

Bestalde, eta lehenengo puntuan esan dugunez, Estatuak gutxika hezkuntzaren ardura hartzen saiatu ziren. Hori garatzeko, garaiotan onartu zen hezkuntza legea eta ezinbestekoa da hura aipatzea ikusteko nola hezten zituzten eskoletan neskak eta mutilak txikitatik helburu ezberdinekin. 1857ko Espainiako Instrukzio Publikoko Legeak, *Moyano Legea* bezala ezagutzen denak, sexuaren araberako ibilbide eta helburu ezberdinak zehaztu zituen. Etorkizunean gizon eta emakume izango zirenei, esparru zehatz bat esleitzen zien legeak: arlo produktiboa edo publikoa eta arlo erreproduktiboa edo pribatua, hurrenez hurren. Hala dio *Moyano Legea*-ren 5. artikuluak:

> *En las enseñanza elemental y superior de las niñas se omitirán [la Agricultura, la Industria, el Comercio, la Geometría, el Dibujo Lineal, la Agrimensura, la Historia y Geografía], reemplazándose con:*
>
> *Primero: Labores propias del sexo.*
>
> *Segundo: Elementos de Dibujo aplicado a las mismas labores.*
>
> *Tercero: Ligeras nociones de Higiene doméstica*[7] [8].

Dudarik gabe, legeek norberak dituen aurreikuspenak eta espektatibak baldintza ditzakete. Hori hala izanik, kontuan hartu behar dugu Instrukzio Publikoko Legeak oinarrizko hezkuntza derrigorrezko bilakatu zuela eta horrek berak neskentzako hezkuntzarako eskubidea onartu zuela eta askorentzat hezkuntzara sartu ahal izatea baimendu zuela[9], 100. artikuluan aipatzen denez, 500 "arimatik" gorako herrietan eskola bat ezartzea derrigorrezko bilakatu baitzen.


b) Errealitatea proiektatuz: genero diskurtsoak

Mekanismo kulturalak genero diskurtsoak erreproduzitu eta emakume eta gizonen egitekoak zeintzuk ziren irudikatzeko bitarteko garrantzitsu bat izan ziren. Mekanismo kultural horiek, orain arte aipatu dugun ildotik, emakumea desberdintasun posizio batean ezartzen zuen genero sistema indartzeko balio izan zuten, eta errealitate horiek ulertu eta sortzeko giltzarri izan ziren. Horrek, nola ez, ez du esan nahi diskurtsoak zuzenean errealitateak sortzen dituenik, baizik eta hori interpretatzeko moduak ematen dituela. Beste gai bat da nola garatzen den diskurtsoa egunerokotasuneko errealitatean: diskurtso ideal horiek klase sozialetan nola garatzen diren zehaztea garrantzitsua da, edota ideal horrekin subjektuek zer egiten duten jakitea

7 *Ley de Instrucción Pública,* 1857.

8 Lan honetako aipu gehienak jatorrizko hizkuntzan izango dira, iturria errespetatu eta mezua itzulpenean aldatu ez dadin.

9 Scanlon, Geraldine M. (1987): 197. or.





Positibistek emakumeen gutxiagotasuna arrazoitu zuten. (Iturria: Moebius, 1900).

–ideal hori saihesten saiatzen diren, edota zuzenean erantzun egiten dioten beste zerbait proposatuz–[10].

Esan dugunez, modernizazioarekin eta ilustrazioarekin batera zientziek pisu eta autoritate nabarmena eskuratu zuten gizartean. Genero diskurtsoa zientzia alor ezberdinetatik eraiki zuten: filosofoek, antropologoek, biologoek, medikuek, gizarte-erreformistek, eta abar. Zientziak, ideien sekularizazio prozesuan, autoritate eztabaidaezin bihurtu ziren eta objektibotasun kutsua eman zioten funtsean ideologikoa zen diskurtsoari: emakumearen mendekotasuna zientzia alor ugarik justifikatu eta indartu zuten horrela.

Ezberdintasun sexualak natural bihurtuta, eta kontrakotasunean ulertzen zen binarismo bat oinarri harturik, biologia betebehar eta halabehar biologiko eta sozial saihestezin bezala ezarri zen. Emakumeen betebehar sozial eta biologiko hori amatasuna zen. Rol erreproduktiboa helmuga bakar bezala ezarri zen, saihestezina zen helburu bezala, alegia. Ezberdintasunak biologiko, zientifiko eta are, ukaezin bihurturik, bazterkeria arrazoitu eta justifikatzera iritsi ziren, bai emakumeen kasuan baina baita zuriak ez ziren gizakien

10 Miren Llonak *kontzientzia praktikoaren* kontzeptuaz hitz egiten digu. Kontzeptu horrekin diskurtso hegemonikoaren eta esperientzia subjektiboen arteko tarteari errepara diezaiokegu. Williams-en arabera, diskurtso nagusia berreraiki daiteke. (Williams, R. (1980): *Marxismo y literatura*: 49. or. IN Llona, Miren: 2006, 288. or.)

kasuan ere. Izan ere, "arraza" ikerketa objektutzat hartu zen, eta zientziek azal zurikoak nagusi zirela eta zurien balio kulturalak hobeak zirela ezarri zuten. Azken gai hori XIX. mendeko kolonialismoaren une gorenetan justifikatu izana ez da kasualitatea.

Zein izan zen, bada, diskurtso horretan marrazten joan zen feminitate eredua? Mendebaldean, "Etxeko Aingeruaren" eredu burgesa nagusitu zen. Etxea bere gune naturala zuen emakumea zen Etxeko Aingerua: otzana, mendekoa, emotiboa, abegitsua, amaigabe etxean zehar maitasuna banatzen duena, haurren zaindari amultsua, bihotzez senarra maite zuena... Dena dela, Arestik lekuan lekuko berezitasunetan atentzioa jartzeko beharraz hitz egiten digu. Horrela, Etxeko Aingerua herrialde anglosaxoietan nagusi zen eredua zela dio, eta herrialde katolikoetan, feminitate eredu horrek beste hainbat ezaugarri dituela; kasu hauetan, erlijioak eta tradizionalismoak pisu handia hartu zuten[11]. XIX. mendearen bigarren erdian, Espainian, emakumeen inguruko ideario tradizionalari aurre egin eta beste feminitate diskurtso osatu bat eratzeko burgesiaren eta progresisten ezintasuna azpimarratzen du Arestik, Elizarekin lehia bizia izan baitzuten eliteek. Bi korronte izan ziren ideien lehian.

Batetik, **krausistek** kristautasun arrazional eta tolerante bat proposatu zuten, erlijioa, zientzia eta hezkuntza (baita emakumeena ere) defendatzen zituztelarik. Seiurteko iraultzailearen (1868-1874) porrotaren ostean, ordea, liberalek ideia positibistak barneratu zituzten eta orduan zientziak gauzei azalpena emateko estatusa, garrantzia eta legitimitatea irabazi zuen.

Zientziaren izenean, argumentu misoginoak zabaldu ziren. Biologiak, emakume edo gizon izateak, norberaren ibilbidearen patua zuzentzen zuen pentsalari positibisten arabera. Ukatu egiten zuten krausisten ustez hezkuntzak pertsonen erreformarako zuen gaitasuna. Emakumeen menpekotasuna behin eta berriro aipatu zen argumentua izan zen eta hori baieztatzeko ikerketa zientifikoak egin zituzten: burmuineko masa pisuaren arabera norbanakoen inteligentzia neurtzera iritsi ziren, emakumeak naturalki eta biologikoki inteligentzia gutxiagokoak zirela ondorioztatuz[12].

Bestetik, **positibistek** zientzia eta erlijioa kontrajarri zituzten, erlijioa emakumeen kontua zela esanez; emakume eta gizonek erlijioarekiko zuten harremana aldentzen joan zen, nork bide batean. Gizartean arrazoiaren eta erlijioaren arteko talka nola zabaldu zen neurtzea zaila da. Arestik dioenez, ziurrenik klase ertain eta goreneta-ko fenomenoa izan zen arrazoia eta fedearen artean gizon eta emakumeen jarrera ezberdinak hartzearena[13]. Hala zioen garaiotan Emilia Pardo Bazán idazle feminista

11 Aresti, Nerea: 2000.

12 Aresti, Nerea: 2001: 28. or.

13 Aresti, Nerea: 2001: 35-36. or.

galiziarrak: “Legea gizonek egiten dute, eta haiek nahi dutena izateko aukera dute: deistak, ateoak, eszeptikoak edo arrazionalistak. Beren alabak, arrebak, emazteak eta amak, ordea, katoliko garbi-garbiak baino ezin dira izan”[14].

Elizak zientzien misoginiari probetxua atera zion eta emakume askok beren lekua aurkitu zuten bertan, baita beren duintasuna berresteko ere. Izan ere, zientziak proposatzen zuen determinismo biologikoaz gaindi, emakumeak beren osotasunean on edo txartzat hartzea ez zela justua zioen Elizak bere idatzietan. Hau da, emakumeei bere bidea egin eta ongiaren eta gaizkiaren artean hautatzeko ahalmena aitortzen zien; Maria edo Eva izan zitezkeen. Horrela, emakumeen inguruan gotortu zen eliza, korronte sekularrak zabaltzen ari zirela ikusita. Adibidez, feminismo katolikoa 1920ko eta 1930eko hamarkadetan zabaldu zen. Izan ere, Elizak karitatearen bitartez emakumeei ekintzarako eragingune bat proposatu zien, parte-hartze sozialerako eremua eskainiz. Elizak, korronte moderno, zientifiko eta sekularrak altxatzen hasi baldin baziren ere, tinko iraun zuen gizartean, pentsamoldean, mundu ikuskeran, fedean.

Laburbilduz, emakumeak ez ziren herritarrak. Erlijioaren mendekoak, inteligentzia txikiagokoak, naturari eta iluntasunari lotuak, gizaki emozionalak ziren. Gizonak ordea, gizaki arrazionalak ziren: herritar oso ziren, eskubidedunak, politika, zientzia eta kulturari loturik zeudenak. Gauzak honela, esparru pribatua funtsean femeninoa zela jotzen zen. Familia zen emakumeen garapenerako unitatea eta beren gune naturala, etxea, beren egitekoa garatuko zuten lekua. Emakumeak emazte eta ama izan behar ziren, halabeharrez. Hori indartzeko mekanismo kultural ugari erabili zen: nobelak, abestiak, errelatoak, publikazioak, herrikoiagoak edo akademikoagoak izan zitezkeenak. Medikuntzatik zein beste zientzietatik emakumeei buruzko postulatuak idatzi, argitaratu, eztabaidatu eta zabaldu ziren, familian zeukaten papera goratuz. Publikazio horietan guztietan, emakumeen izaeran naturalak ziren ezaugarriak hartzen ziren oinarritzat: emakumeak berezkoa zuen etxeko lanak egoki egiteko dohaina; afektibotasuna, sentsibilitatea, samurtasuna, zehaztasuna, pairamena eta antzeko trebetasunak modu naturalean zituzten emakumeek.

Nashek aipatzen duena azpimarragarria da[15]. Beren ustetan, genero arau horiek ez betetzeak eragin zezakeen zorigaitzaren arriskuan zetzan kontrol sozialerako mekanismo gisara etxekotasunaren diskurtsoak zuen indarra. Indarkeria sinboliko hori, Nashentzat, zehaztutako arauak betetzen ez zituztenentzat ezbeharra, zoritxarra eta hondamendia mehatxu gisa edukitzean oinarritzen zen, genero arauak betetzen ez zituztenak egokiak ziren kodeak betetzera bultzatzeko mekanismo bilakatuz, hain zuzen ere:

14 Pardo Bazán, Emilia (1890): 35-36. or IN Aresti, Nerea: 2001, 36. or.

15 Nash, Mary (2012): 52, 53. or.

El padre ordena lo bueno y reprime las malas tendencias; la madre promueve los buenos sentimientos y los hace amar. Cuando la muger (sic) *falta a tan agradable deber, el daño es casi siempre irreparable y crece por grados. La muger, como encargada del gobierno y administración interior de la casa, es el eje de la familia; y cuando el eje se enmohece o sale de quicio, la familia peligra y por fin se arruina*[16].

Hainbat diskurtsoren bidez zabaldu ziren eredu horiek, lehen aipatu dugun afera batekin egiten zuten talka, ordea. Burgesia iturri zuen ideal femenino horri mugak ipintzen zizkion eguneroko errealitateak. Burgesiak beren errealitatetik gizarte osoarentzat sortutako eredua garatzea ez zen posible, errealitate materialarekin egiten baitzuen topo. Ama eta emazte ona irudikatzen zituen eredu horrek familia eta etxea zituen emakumeentzako esparruak. Ekonomikoki eta sozialki langile klasekoak ziren familietako emakumeek ezin zuten lana albo batera utzi, diru sarrera hori beharrezkoa baitzen familiaren biziraupenerako. Emakume horientzat ezinezkoa zen ideal burgesetan agindutakoa betetzea, ordu luzez lan egiten baitzuten etxetik kanpo, eta ahal zen moduan uztartzen zituztelako eguneroko lan guztiak. Emakume langileentzat –eta nekazariak kategoria honetan sartzen ditugu–, ezinezkoa zen Etxeko Aingeru bilakatzea, etxeko garbitasunaz eta bere haurren hezkuntzaz arduratzea, abegitsu eta leun aritzea, beren errealitatea beste nolabaitekoa zelako. Higienista ugarik emakume langile horien ohiturak gaitzetsi zituzten, gainera.

Aipatu dugu zein zen garaiotan bultzatzen zen emakumearen ideala, etxeko munduari eta familiari hertsiki lotua zihoana. Publikoa den horri lotuta, kontrara, gizontasun idealak leudeke. Indarra, erabakimena, ekintza, kontrola eta lan produktiboa gizontasunarekin parekatzen ziren. Espazio publikoan (instituzioen esparrua, politikarena, kulturarena, estatuarena, lanarena...) gizonak soilik sartzen ziren mundu ikuskera honetan. Emakumeak beraz, ez zuen lekurik bertan[17].

Langile klasearen errealitateak talka egin zuen maskulinitate ideal burgesarekin. Hain zuzen ere, ideal horren arabera gizonak etxeko buruak ziren. Gizontasuna parekatzen zen beren familia mantendu eta emazte nahiz seme-alabei etorkizun oparoa eskaintzearekin. Ideal maskulino zein femenino horiek ez zeuden langile klasearentzat eskuragarri, XIX. mendean zehar, familiako kide guztien lana –haurrena barne– familiaren biziraupena ziurtatzeko beharrezkoa baitzen oraindik.

16 Doña F. De A. P eta Mariano Carderera,1856: 24, 25. or IN Nash, Mary: 2012, 53. or.

17 XVIII. mendea baino lehenago, beste hierarkia mota batek zuen garrantzia: estamentuek. Bere horretan, posizio sozial altuetako emakumeek lekua zuten eztabaida guneetan, ikasketetan, arteetan, negozioetan... XIX. mendean salbuespen horiek desagertu egin ziren eta espazio publiko guzti hori ukatu zitzaien emakumeei.

Horrek guztiak lehenago aipatutako puntu batera garamatza: diskurtsoak eta errealitateak bat egiten ez duten gunera, hain zuzen ere. Esan bezala, diskurtsoak idealak dira, denboran zehar behin eta berriz errepikatuta gizarteko kideek asimilatuko dituztenak. Ez ordea, bere osotasunean: moldaketekin barneratuko dituzte horiek gizarteko kideek. Ideal burgesak errealitate materialarekin topo egiten zuenean, hura praktikan jartzeko ezintasuna nagusitzen zen, baina, horrek ez du esan nahi langile klaseko horiengana diskurtsoak ez zirenik iristen, baizik eta bakoitzak modu batera integratu zituela –ideal hori lortu nahi den helburu bezala jarriz, diskurtso horren hainbat ezaugarri bereganatuz, eta abar–[18].

• Mende hasierako feminitate diskurtsoaren moldaketa

Mendearen hasieran hainbat eraldaketa gertatu ziren diskurtso horretan. Emakume guztiek –klase eta egoera guztiak zeharkatzen baitzituen aferak– zeukaten erreproduzitzeko betebeharraren ideia tradizionala harturik, betebehar hori bera indartu eta zertxobait eraldatu zuten pentsalari, zientzialari eta medikuek. Ordura arte mantra bat balitz bezala errepikatu zen emakumeen mendekotasun fisiko eta mentala zalantzan zegoen ordurako. Emakumeek erakutsi zioten gizarteari, eta batez ere beren buruari, hamaika gauza egiteko gai zirela praktikan[19] eta beraz, errealitate berri horretarako ama eta emakume izateko beste diskurtso bat behar zen.

Ordura arteko diskurtsoa eraldatu zen, beraz. Eraldatu baino, ñabardura batzuk gehitu zitzaizkion, errealitate sozial berriei egokitzeko. Genero diskurtso berriak medikuntzatik zabaldu ziren oro har. Alor ezberdinen hamaika publikazio argitaratu ziren, arrazoibide horiek sakonduz. Oihartzun eta zabalpen handiena eduki zuen medikua Gregorio Marañón endokrinologo eta ginekologoa izan zen. Marañónek bi sexuak elkarren osagarri zirela defendatzen zuen[20]. Aldaketa berria, beraz hori zen: ordura arte, emakumea gizonarekiko menpekoa zen, gutxiago zen. Marañónen tesiak ikuskera hori aldatzen zuen. Haren ustez, beraz, emakumeak gizonengandik guztiz ezberdinak ziren eta beraz, konplementarioak izan zitezkeen bi sexuak. Hitz batean, gutxiago edo menpeko izatetik osagarri izatera igaro ziren emakumeak teoria horien arabera.

18 Dena dela, hasiera batean eliteentzat eta bere erreprodukzio sozialari begira zabaldu ziren diskurtso horiek –arlo akademikoetan edo gehienez, emakume burgesentzat eskuragarri ziren medioetan–, arlo akademikoari loturik. XX. mende hasieran oraindik alfabetatze maila baxua zen.

19 Horretaz gain, kontuan hartu beharrekoa da Emakume Berriaren ereduaren agerpenak –lanbide bat zuena, bere ibilbide propioa zuena eta ilea moztu eta arropa laburragoak jantzita sozializatzen hasi zena– eta feministen aldarrikapenek emakume eredu berriak proposatzen zituztela, dudarik gabe, emakumeentzat erakargarriak izan zitezkeenak. Beraz, horri aurre egingo zion proposamen berria behar zen emakumeentzako.

20 Marañón, Gregorio (1927) IN Nash, Mary: 2010, 28. or.

Amatasuna emakumeen egiteko goren bezala irudikatu zuten euren idatzietan medikuek, eta beste edozein ekintza bigarren planoan gelditu behar zen emakumeentzat nahitaez. Horrek, beraz, publiko eta pribatuaren arteko esferen banaketa mantendu zuen. Emakumeen identitatearen erdigunean amatasuna egon behar zen, emakumeen bizi proiektua horrek izan behar zuen[21].

Zientziaren izenean medikuntzan argitaratu eta zabaldu ziren ideiek bazuten zehaztasun berri bat: amatasunak amatasun biologikoa bera gainditzen zuela uste eta defendatzen zuten. Amatasun sozialaz ari ziren; emakume guztiak, nahiko balute, ama izan zitezkeen, haurrik ez zutenek ere besteen haurrei lagunduz beren egiteko soziala garatu zezaketela zioten:

> *...La notable actitud de llenar su vida del latido que el socorrer la pobreza, la miseria o la ignoracia que los desgraciados pueden prestarla, caminará vacilando con su corazón generoso lleno de amor que nadie ya le pide...*[22]

Dena dela, garrantzitsua da azpimarratzea amatasun sozialaz hitz egiten bazuten ere, amatasun biologikoa eta haurren heziketa eta zaintza lehenesten zituztela. Hala, "ama onak" zeintzuk ziren definitu zuten, eta garrantzi berezia dauka inudeen eta haur abandonatuen inudeen errealitatearen kontraesanak ulertu ahal izateko. Ama onak ez ziren haurren bizirautea ahal moduan eta bitarteko ekonomikoak erabiliz ziurtatzen zuten emakumeak. Ama onak haurren zaintzaz pertsonalki arduratzen ziren, egiteko garrantzitsu hori beste inoren eskuetan utzi gabe. Ama onek beren haur biologikoei beren esnea ematen zieten. Haurrak hezteaz arduratzen ziren. Horrek emango zien bere bizitzaren norabidea, egitekoa, helburua, identitatea.

2.3. BENEFIZENTZIATIK ERREFORMISMO SOZIALERA: ESTATUAK BIZIMODU ETA GORPUTZEN GAINEAN ERABAKITZEN

Ulertu nahi dugun gaia sakontzeko, hots, inudeek eta batez ere haur espositoen inudeek gizartean zein paper jokatzen zuten ulertzeko, XIX. mende amaieratik Europako mendebaldean garatzen joan zen erreformismo sozialaren olatuan geldiunea egitea ezinbestekoa da. XX. mendearen hasieran, inude horien lanaren kudeaketa benefizentzia eta Estatuaren –Diputazioa, zehatz esanda– parte-hartzearen artean mugitu zen. Erreformismo soziala, ordea, bitartekoa izan zen gizartea diziplinatu eta moral edo bizimodu burgesa inposatzeko.

21 Nash, Mary, 2010: 29. or

22 Aza, Vital (1928) IN Nash, Mary: 2010, 29. or.

2.3.1. Gatazkak saihestuz: erreformismoa, diziplina eta lanaren etika

XIX. mende amaieran, industrializazioaren eraginak nabaritzen hasiak ziren eta langileen bizi eta lan baldintza kaskarrak begi bistakoak ziren: ordu luzez lan egitea, soldata ezin kaskarragoak, miseria gorria, etxe zarpailetan pertsona asko pilatuta bizitzea... Tentsio soziala handitzen joan zen, jasanezinak ziren baldintzek eta grebek langile mugimendua azkartu zuten. Estatua martxan jarri zen, eredu kapitalistarekin etekinak irabazten ari zirenei ez baitzitzaien komeni langile mugimenduak sor zezakeen gatazka soziala. Testuinguru liskartsu horretan, Errestaurazioko gobernuak Erreforma Sozialen Batzordeak[23] eratzea bultzatu zuen. 1883 eta 1889 bitartean langileen egoeraren inguruko iritziak bildu nahi izan zituzten besteak beste elite intelektualei, klase politikoari, iritzi publikoari eta langile mugimenduko hainbat buruzagiri galdetuz. Erreformismo sozialaren garaia abiatu zen horrela[24]. Lehen aldiz, lan baldintzak, seguru sozialak eta hori kudeatzera bideratutako administrazio organo berriak sortu ziren. Ordura arte karitatearen edo Elizaren esku egon zena bere gain hartzeko bideari ekin zion Estatuak. Langileen babesa antolatzen hasi zen, baina, ez kontrako iritzirik gabe. Europako estatuekin alderatuta, espainiarra berantiarra izan zen erregulazio horretan. Lehen aldiz langileen –nekazariak barne– bizitza pribatua erregulatzeko ahaleginetan hasi zen.

Baina Estatuaren parte-hartzea ez zen bat batekoa izan, prozesu gorabeheratsua izan zen. Errepublika garaian bere osotasunean garatu ahal izan zen, eta eragin mugatua izan zuen. Benefizentzia asistentziala eta Estatuaren politika sozialak elkarren ondoan izan ziren denbora luzez, ondoren aipatuko ditugun legeak onartzen joan baziren ere, hori martxan jartzea beste kontu bat izan zelako. Dena dela, Estatuaren esku hartzeko nahia aldaketa nabarmena zen berez.

Behartsuen asistentzia eliza kristauaren eta karitate pribatuaren menpe egon zen XVI. mendetik. XVIII. mendeko pentsaera ilustratuak paradigma aldaketa sortu zuen. Gizartea onbideratu eta lanaren etika bultzatu beharra zegoen: karitateak alferkeriara zeraman pertsona. Lehenengo Benefizentzia Legea 1822an onartu zen Espainiako gorteetan. Pauso garrantzitsua izan zen, asistentzia lehen aldiz estatu-administrazioaren menpe gelditzen hasteko lehen harria izan baitzen[25]. Aldaketa nabarmenetako bat izan zen benefizentzia udalerrien menpe gelditzea, eta lekuan leku udal benefizentzia batzordeak eratu ziren. Liberalek bultzaturiko antolaketan, udalerria herritarren parte-hartzeko bitartekoa izan behar zen[26]. Asistentzia jasotzeko auzo-

23 Comisión de Reformas Sociales

24 Arbaiza, Mercedes (2000): 396. or

25 Vidal, Florentina (1987): 43. or.

26 Vidal, Florentina (1987): 49. or.

tasuna baldintza nagusia zen, ezinbestekoa zen erroldatua egotea. Baldintza horrek ehun sozial azpiratuenak (ijitoak, migranteak, eskaleak...) baztertzen zituen sistematikoki. Alabaina, behartsuen taldea zabala zen; Martínez Martínek azaltzen duenez, behartsutzat har genitzake beren lanaren menpe bizi zirenak eta bizirauteko beharrak mugan asetzen zituztenak. Edozein gertaerak biziraupenaren balantza alda zezakeen. Amatasuna, langabezia edota heriotza batek eragin zezakeen hori[27] [28].

Legeak irismen oso mugatua eduki zuen, besteak beste, diru faltagatik, baina baita ondoren etorri zen garai absolutistan legea bertan behera gelditu zelako ere. Zehazki, 1823an indargabetu zen 1822ko Benefizentzia Legea. 1849an hurrengo Benefizentzia Legea onartu zen, aurreko legeak urratu zuen bidean sakontzeko helburua zuena. Hainbat ordena erlijioso desegin eta Elizak zituen ondasun asko desamortizatu zituzten bere bidez.

Aitzitik, aipatu dugun bezala, Elizak protagonismo handia izaten jarraitu zuen benefizentzian eta baita karitate pribatuan ere. Benefizentzia batzordeetako kide ziren apaizak eta benefizentzia etxeen barne administrazioa Karitatearen Ahizpen[29] esku gelditu zen[30] eta udalerrietan sortzen joan ziren batzorde lokaletan (benefizentziakoa, espositoena eta haurren lana kontrolatuko zuena, besteak beste) parrokoak parte hartzen zuen.

Baina esan dugunez, XIX. mendearen amaierarako, tentsio soziala gero eta nabarmenagoa zen. Langileen lan eta bizi baldintzak oso kaskarrak ziren. Egunsentitik gauera lan egin arren, horrek ez zuen biziraupena bermatzen. Hirien kanpoaldean langileak nola hala bizi ziren, higiene falta nabarmena zuten etxean. Egoera ezin eskasago horren aurrean antolatzen hasi ziren, eta hori ikusirik, langileen batasun eta ekintzaren beldurrez, erreformatzaile sozialak bizi baldintzak leundu beharraz hasi ziren hitz egiten.

Hortaz, 1883an Erreforma Sozialen Batzordea sortu zen, langileen egoera gertutik ezagutzeko asmoz. Txosten horretan hainbat pertsonaren iritziak bildu ziren, esan dugunez. Iritzi horiek jaso ostean, gizarteak zituen arazoak zeintzuk ziren ondorioztatu eta txostenean irudikatu zituzten. Erreformatzaileen ustetan arazo nagusia zera zen: emakumeek inoiz baina gehiago egiten zutela lan fabriketan. Arazoa, Mercedes Arbaiza historialariaren ustetan, ez zen emakumeek lan egiten zutela, inkestetan ja-

27 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 64. or.

28 Lola Valverde historialariak azpimarratzen duenez, haurrak eta emakumeak –batez ere alargunak– ziren behartsuenak. Behartsuen erroldetan famili-buruak dira ageri direnak eta bertan emakumeen presentzia ikaragarria dela dio, zera baieztatzeraino: famili-buruak ziren emakume gehienak behartsuak zirela (Valverde, Lola: 2012, 185, 190. or.)

29 Hermanas de la Caridad.

30 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 70. or.

sotako iritzien arabera "emakumeek betidanik lan egiten baitzuten". Sozialki arazoa sortzen zuen afera zen emakume langileek lehen aipatu dugun ideal femeninoarekin bat ez egitea zen[31]:

> *Diariamente va en aumento el número de mujeres ocupadas en las fábricas y talleres; y no ya dedicándose a los trabajos sedentarios o ligeros, sino a aquellas manufacturas que necesitan fuerza y actividad; pues muchas veces se las ve suplantando a los hombres en las faenas más penosas. En España no se ha acentuado tanto como en Inglaterra y los Estados Unidos esta tendencia que traerá tristísimas consecuencias para un día quizá no lejano*[32].

Pentsamendu higienistak lekua izan zuen iritzi horien artean, mediku higienistek parte-hartze handia izan baitzuten erreformak proposatzerako orduan. Pentsamendu higienistaren arabera, langile klasea oraindik zibilizatzera iritsi gabeko gorputz basatia zen[33], gaixo eta gaizki elikatuta zegoena; intelektualki, analfabetoa, ezjakina eta zakarra zena; moralki bizioak jota zegoena, adulteroa, eta alkohol, krimen eta prostituziorako joera zuena; erlijioari zegokionean, fedegabea eta sineskeriatan sinesten zuena.

> *Nuestras clases obreras, tanto fabriles como agrícolas, carecen, en efecto, de lo más necesario hasta de medios, materiales de subsistencia. (...). Su ignorancia casi absoluta es su patrimonio; y embotado el sentimiento y desarregalada su voluntad, ofrecen un conjunto de carácter semisalvaje y primitivo, capaz de entristecer a quien menos se preocupe por la suerte de los demás hombres (...). El malestar de nuestras clases obreras supone, pues, el de toda la sociedad española, indica la perturbación y enfermedad del país entero (...)*[34].

Erreformismo sozialak lan eta bizi baldintzak konpondu bidean, emakumeak egoeraren errudun eta erantzuletzat zituen. Gizartean zeuden desorekak, kontrol gabezia, anabasa eta abar erraz konpon zitezkeen emakumea etxean geratuko balitz eta zegozkion betebeharrez arduratuko balitz.

---

31 Arbaiza , Mercedes (2000): 399. or.

32 Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, *Reformas sociales. Información oral y escrita de 1889 a 1893,* II Liburukia, 380. or, Castrillo, Santiago (Ed.), Madril, 1985 IN Arbaiza, Mercedes: 2000, 398. or.

33 Ilustraziotik zetorren garapenaren ideia da hau, naturatik edo basatia denetik kulturara bidea egin behar zuten herritarrek. Gizartea zibilizatu nahi zuten erreformistek.

34 Instituto Libre de Enseñanzak Erreforma Sozialen Batzordeak egindako galdeketan emandako iritzietako bat (Arbaiza, Mercedes: 2000, 407. or.) Instituto Libre de Enseñanza Espainiako Krausismoaren ordezkari nagusia izan zen. Krausismoak erlijioaren bitartez norbanakoak eta gizartea bera erreformatzea defendatzen zuen. Zientzia eta erlijioa bateragarriak zirela defendatzen zuten.

1900. urtetik aurrera proposatu zituzten erreforma sozialak genero-harremanak berrantolatzean oinarritu ziren. Ikusitako errealitatea moralki subertsibo edo iraultzailea zelakoan, proposamen berriek harmonizismo sozialaren influentzia jaso zuten. Arbaizak azpimarratzen duenez[35], aldaketa moral eta erlijiosoa bultzatu zen. Eremu produktiboa eta erreproduktiboa eta bertan egiten ziren lanen arteko bereizketa sakona eta argia sustatu zuten. Familiaren antolaketan zegoen gakoa. Izan ere, emakumeek etxeko eremutik at zuten presentzia zen gizartearen miseria moral eta kulturalaren zergati handiena.

Garaiotako pentsamendu liberalek azpimarratzen zutenez, emakumearen gune naturala etxea zen, eta bere izaera naturalagatik etxeko lanetarako zegoen prestatua. Horregatik, behar-beharrezkoa zen emakumeak fabriketatik ateratzea eta nahitaez indarra erabiliz egin beharreko lanetatik aldentzea, beren estadio naturalera itzultzeko. Baina emakume langileen egunerokotasunak ez zuen inondik inora bat egiten lehenago aipatu dugun ideal femeninoarekin, familia ereduak bezalaxe, kide guztien parte-hartzea beharrezkoa baitzen bizirauteko familia-estrategietan.

Emakumeek etxean eta lan erreproduktiboetan jardun behar zuten ideal burgesaren arabera. Lan erreproduktiboek barne hartzen zituzten elikadura, higienea zein aspektu material eta afektiboak bermatzeko beharrezkoak ziren jarduera guztiak. Gizonek, lan produktiboa eta familia osoa mantendu ahal izateko soldata lortu behar zuten gizontasun eredu hori beteko bazuten. Diskurtso horren zati bat, behintzat, onartu egin zuten langileek. Hain zuzen ere, emakumeen lekua etxea zela zioena. Erreforma Sozialen Batzordeak egindako inkestan, hainbat (gizon) langileren iritziak jaso ziren, eta, adierazten zutenez, emakumeek behar hutsagatik egiten zuten lan:

> *Comprendo que la mujer soltera trabaje; pero la mujer casada debe estar perenne en su casa para atender a las necesidades de su familia, porque en otro caso tiene uno que llevar el pantalón roto; la mujer no puede coserlo, porque está en casa menos tiempo que el marido, y el marido tiene que coserse el pantalón o llevárselo a un sastre para que lo cosa, pero hay que pagarle, y ¿con qué se paga[36]?*
>
> *Señores de la Comisión, [el trabajo] lo busca por necesidad. Yo conozco a un individuo de la sociedad que cuando va a su casa por la noche tiene que hacer la cena él mismo. ¿Irá la mujer a trabajar por distraerse? Yo creo que no; yo creo que irá porque su marido, que no gana más que nueve reales, por no dedicarse al matute y ponerse fuera de la ley, le dirá a su mujer: vete a trabajar para ayudarme a cubrir las necesidades de la casa[37].*

35 Arbaiza , Mercedes (2000): 402. or.

36 Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, *Reformas sociales. Información oral y escrita de 1889 a 1893,* I Liburukia, 107. or, Castrillo, Santiago (Ed.), Madril, 1985 IN Arbaiza, Mercedes: 2000, 414. or.

37 Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, *Reformas sociales. Información oral y escrita de 1889 a 1893,* I Liburukia, 183. or, Castrillo, Santiago (Ed.), Madril, 1985 IN Arbaiza, Mercedes: 2000, 414. or.

Arbaizaren ustetan, errealitatearen eta nahiaren artean distantzia handiegia zegoen. Emakumeek emazte bezala zituzten betebeharren ideia burgesak bere egin zituzten langileek, beren diskurtsoaren edo mundu ikuskeraren parte.

Erreformatzaile sozialek, bestalde, uste zuten moralitatea arriskuan zegoela emakume eta gizonek gune berdinak elkarbanatzen bazituzten. Arestik dioen bezala, ilustrazioaren eragina jaso zuten pentsalari espainiarrek izaera katoliko kontserbadorea zuten ezaugarritzat[38]. Emakumea, Eva bezala, gaitz eta zorigaitz guztien erruduna zen. Gizonarekiko erakarpena eragin zezakeen, edo alderantziz. Hargatik, fabrika edo tailerretan lan egiten zuten emakumeak arriskuan zeuden. Moralak, esan bezala, erreforma sozialean, pisu erabakigarria eduki zuen.

XIX. mendean zehar zabaldutako familia eredugarri edo idealean, familien esanahi afektiboan sakondu nahi izan zen, hau da, familia barruko kideen arteko harremanetan eta bertan garatzen ziren sentimenduetan. Barrura begirako familia eredua zen, kanpoko mundu ziurgabearen aurrean babesleku izango zena. Izan ere, garaiko erreformatzaile sozialek beldurrez ikusten zuten industrializazioaren eraginez familiaren loturak ahultzen ari zirela. Izan ere, galtzen ari zen ordura arteko familia eredu tradizionala, produkzioa, lana eta kontsumoa barne hierarkia batean antolaturik zituena: gune produktiboa oso definituta gelditu zen, esparru publikoan zegoen, eta esan bezala, gizon, emakume eta seme-alabek parte hartzen zuten eremu produktibo horretan, fabriketan zein tailerretan. Familiaren loturak ahultzeak kolokan jartzen zuen aitaren autoritate tradizionala, eta Arbaizak azpimarratzen duenez, hori lortzeko modu bakarra emakumeak eta seme-alabak aitaren –etxea ekonomikoki mantentzeko ardura zuenaren– autoritatearen menpe geratzea zen[39]. Egiatan, ordea, kide guztien soldatak batzea izan zen bizirauteko estrategia ohikoena, baita etxean familiako kideak ez ziren beste kide batzuk sartzea ere.

Estatuak, erreformatzaileek, klase hiritar burgesek ideal bezala zuten familia nuklearraren eredua ez zen betetzen langileen kasuan, espazio publikoa oso definitua gelditu bazen ere, barnera begirako etxe eredu hori ez zen existitzen, denborak eta espazioak ez zutelako horretarako ematen. Kolektiboak izan ziren bizirauteko estrategiak.

2.3.2. Erreforma legalak: emakumeak babestu, genero sistema indartuz

Garrantzitsua da jakitea Erreforma Sozialen Batzordeak zer iritzi jaso zuen eta bertatik konponbideak proposatzerakoan gizartearen uneko arazoak nola arrazoitzen zituzten, sakontasunean ulertzeko. Eginkizun zehatzak atera ziren, eta aurreko atalean

38 Aresti, Nerea (1999): 17. or IN Arbaiza, Mercedes: 2000, 410. or.

39 Arbaiza, Mercedes (2000): 418-429. or.

mekanismo legal gisara definitu ditugunak hona ekartzea garrantzitsua iruditzen zaigu, neurri horiek aipatu dugun guztia kontuan harturik proposatu baitzituzten.

Erreformismo sozialaren alderdi legalak emakume eta haurren babeserako neurriak proposatu zituen. 1873koa da helburu horiekin sortu zen Espainiako Estatuko lehenengo legea: Fabrika, Tailer eta Meatzeetako Lan Baldintzen Legea. Hartzaileak haurrak ziren eta jasotakoaren arabera, 10 urtetik beherako haurrek debekatuta zuten lan egitea. 13 urte baina gutxiagoko mutikoek eta 14 urte baina gutxiagoko neskatoek, egunean bost orduz egin zezaketen lan gehienez; 13 eta 15 urte bitarteko mutikoek eta 14 eta 17 urte bitarteko neskatoek gehienez zortzi orduz. Lantokietan ezinbestekoa zen botikina edukitzea eta gauean lan egitea –20:30etik aurrera– debekatua zegoen 15 urte baina gutxiagoko mutikoentzat eta 17 urte baina gutxiagoko neskatoentzat.

1900eko Emakume eta Haurren Lanaren Erregulaziorako Legea izan zen Erreforma Sozialen Batzordeak egindako txostenaren ondoren egin zen lehenengo legea. Esan dugunez, bertan emakumeak lan erreproduktiboan eta etxetik at egotearen gaia behin eta berriro aipatu zen. Kasu horietan, beraz, haurrak eta haurra eduki berri zuten emakumeen lan baldintzak moldatzea izan ziren legearen helburua. Garrantzitsua izan zen lege hau, hainbat egilek azpimarratzen duenez, Estatuaren interbentzionismoaren hasiera markatu baitzuen[40]. Babestu nahi ziren kolektiboak haurrak eta emakume erditu berriak ziren. Emakumeei zegokienez, erditu ondorengo hiru asteetan debekatuta zuten lan egitea. Laneko orduetan –lanordu bezala kontabilizatu behar zirenak, hau da, ondoren denbora hori kobratzea beharrezkoa zen– egunero ordubete zuten beren haurraren edoskitzerako, bi txandatan: bat goizean eta bestea gauean. Legea urratzen zuten ugazabek, 50 eta 250 pezeta bitarteko isuna jasoko zuten.

Autore askoren arabera, lege hauek etengabe urratu ziren eta hainbat sektorek efikazia falta salatu zuten[41]. Izan ere, legea aldatzeak ez zekarren, ezinbestean, aldaketa erreal bat. Eraldaketen hasiera adierazten zuen, ordea.

Asistentzia oro har, emakume ezkonduei zuzentzen zitzaien, baina, ama ezkongabeengan ere jarri zuten arreta. 1920 eta 1930eko hamarkadetan ezkongabeen inguruko ikuspuntua aldatzen hasi zen gutxika. Egin zuten bekatuaren barkazioa beren haurrak zainduz lor zezaketen. Horretarako Amatasun Etxeak bultzatu zituzten, erditzeko momentuan medikuaren asistentzia ziurtatzeko. Izan ere, haur ilegitimoen infantizidioak saihesteko –ezkongabeentzat haurra munduratzea egindako bekatuaren adierazlea baitzen– eta emakumeak erditzean hil ez zitezen, instituzio horiek bultzatzea erabaki zuten. Aipatu bezala, ordea, edoskitzearen gaia izan zen lege eta neurri erreformisten helburu nagusia.

40 Capel, Rosa María: 85. or IN Aresti, Nerea: 2001, 168. or.

41 Aresti, Nerea (2001): 169. or.

Hainbat ahotsek, besteak beste sindikatuetatik zetozenek, emakume langileen babeserako neurriak eskatu zituzten, beren egoera samurtzeko amatasun asegurua eskatuz. 1923an onartu zen "amatasuneko diru-laguntza". Haurra erditu ostean 6 astez lan egitea debekatu, egunero edoskitzen emateko ordubete ziurtatu eta asistentzia medikoa eta 50 pezetako asistentzia eskaini zitzaien emakumeei. Egia da, halere, amatasun laguntzak ez zituela sektore asko beregain hartzen eta oro har ez zela oso eraginkorra izan. 1931n, jada Espainiako Bigarren Errepublikaren haize berriekin, Amatasun Asegurua onartu zen, horrek bai, nekazariak eta etxeetan lan egiten zuten emakumeak ere barne biltzen zituen. Legearen garapena, halere, erdizkoa izan zen askotan[42].

Erreformen asmoak ez ziren bete, motz gelditu ziren, lantokietako ugazabek beren eskuetan baitzuten ezarri edo ez. Lege horien berri emakume askok ere ez zuten, nahiz eta lekuan leku horien berri jakiteko, adibidez, hitzaldiak egiten ziren. Eta ezin ahaztu, emakume askorentzat ere lana egiteari uztea ez zela aukera bat, soldataren beharra handiagoa baitzen. Emakume eta haurren babesa, protagonisten parte-hartzerik gabe erregulatu zen, eta beraz, subjektu horien infantilizazioa zuten oinarrian mekanismo horiek, beren iritzia kontuan hartu gabe bizitzak baldintzatzeko gaitasuna baitzuten. Dena dela, nonbaitetik hasi behar emakume eta haur langileen eskubideak bermatu ahal izateko.

2.3.3. Erreformak emakume aurpegia du: maternologia, eugenesia, haurtzaroa eta edoskitzea

Erreforma Sozialen Batzordeak egindako erradiografian medikuntzak tartea eduki zuen iritziak plazaratzeko, baita konponbide eta proposamen posibleak zabaltzeko ere. Kontuan hartu behar dugu, medikuntza zientzia bezala prestigioa hartzen hasi zen jakintzagaia izan zela. Ilustraziotik aurrera, zientzia zilegitasuna bereganatzen joan zen mundua begiratzeko eta azaltzeko orduan. Medikuntzak gizartearen arazoak interpretatu eta konponbideak proposatu zituen. Medikuen objektibotasuna eta jakintza zalantza ezina zen. Medikuek orojakile eta aditu figura gorpuztu zuten, hemen eta han, baita herriz herriko egunerokotasuneko jardunean ere.

Medikuntza sozialak eta higienismoak, industrializazioaren eragin txarrak kontuan hartuta, osasuna gizartearen arazo gisa definitzen zuten. Hau da, pribatutasunetik atera eta gai indibiduala zela ukatu zuten, arazo soziala baitzen haien ustetan. Higieneak gaixotasunak eta, are, gizartea sendatzeko ahalmena zuen: klaseen arteko gatazka eta genero gatazka konpontzeko gaitasuna[43]. Hala, gizartearen higiene erre-

42 Aresti, Nerea (2001): 202-203. or.

43 Industrializazioaren eraginez tentsio soziala nabarmena zen, aipatu dugun bezala, ordura arteko harreman eta estrukturak hankaz gora jarri baitziren.

formek bi norabide izan zituzten: fisikoak eta moralak. Moratak dioen bezala, sistema liberal-burgesean gizartea antolatzeko baliatu zuten medikuntza[44]. Izan ere, mediku higienistak klase ertainetako kideak ziren, gizartea erreformatu beharra zegoela sinesten zutenak.

Pentsamendu higienistak gizartea patologizatzen zuen, hau da, gaixotzat hartzen zuen. Gizartean ordena ez egotea gaixotasun bat zen. Boterean zeuden klaseek aitzakia hori probestu zuten eraldaketak egiteko. Neurri nahiko kontserbadoreak izan ziren, hala nola, kaletik "arriskuak" kendu eta instituzioetan jasotzea (eskaleak) edota moralaren izenean ideiak zabaltzea (aurreztearen garrantzia, kaleen garbiketa...)[45].

Emakumeen lekua eta egitekoa etxean zegoen, nola ez, higienisten ustetan. Amei gizartea erregeneratzeko ardura ezarri zieten. Hargatik, beren egitekoa ama izatea zen. Mediku higienistek gogor egin zuten emakumeek etxetik at egiten zuten lan ordainduaren aurka, haurrengan beren denbora eta indar guztiak jartzea beharrezkoa zela uste baitzuten. Emakume gehienen errealitatea ez zen hori, ordea.

Belaunaldiz belaunaldi igaro ziren jakintza herrikoiak gutxietsi zituzten medikuek, absurduaren pare jarri zituzten, amen higiene prestakuntza eskasa salatu zuten eta beraien moldeak sinesmenak zirela egotzi zieten. Haurren heriotza-tasari begira jarri ziren medikuak, eta besteak beste, miseria, etxeen higiene falta, elikadura txarra eta amen zaintza gabezia ziren zergati nagusiak, medikuen ustetan. Amatasuna bera teknifikatzea eta **maternologiaren zientzia** sortzea izan zen, beraz, ondorioetako bat. Medikuek emakumeak hezi behar zituztela ondorioztatu zuten, miseria eta ezjakintasunaren artean, miseriak konponbiderik ez zuelakoan. Amak egoeraren arduradun egin zituzten, haurren elikadura eta osasun txarraren errudun. Hortaz, emakumeek beren lana ondo egin zezaten, medikuek teknifikatu egin zuten amatasuna. Amatasun kontzientearen eredua bultzatu zuten. Hala laburbiltzen zuen Gregorio Marañónek:

> *No basta decir: "la mujer debe ser madre". Tiene que serlo bien. Ser madre es algo mucho más complejo que formar hijos en su seno y darlos a luz. Es algo que se extiende muy lejos del acto concepcional, que implica muchos deberes y muchas cualidades, hasta tal punto importante, que por sentirlos y practicarlos con amor maternal, hay mujeres que, siendo vírgenes, pueden ostentar el título de madres con más legítima razón que muchas multíparas*[46].

44 Morata, Eva María (2003): 164. or

45 Revuelta, Barbara Ana (2011): 114. or.

46 Marañón, Gregorio (1920): *Biología y femnismo:* 187. or IN Aresti, Nerea: 2001, 194. or.

Eugenesiaren pentsamenduei jarraituz[47], XX. mendearen bigarren hamarkada iristerako eraldaketa eman zen. Ordurako, haurren heriotza-tasaren aferak lehentasuna izateari utzi zion. "Arraza" hobea eta perfektua bilakatzeko asmotan, ume asko edukitzea baino, amatasuna aurrera eramateko moduak hasi ziren aldatzen: kuantitatiboa baino, kualitatiboa izan behar zuen, kalitatezkoa.

XIX. mende amaieratik aurrera eta 1920ko hamarkadaz geroztik, mediku higienistek hainbat ekimen garatu zituzten emakume langileengana higienismoaren ideiak zabaltzeko helburuarekin. Liburuek garrantzi berezia hartu zuten horretan, eta sektore errepublikar eta progresistek liburutegi herritarrak jarri zituzten martxan horretarako[48]. Horretaz gain, mitinak eta hitzaldiak antolatu zituzten ideia horiek langile klasera iristen zirela ziurtatzeko. Besteak beste haurren heriotzaz, puerikulturaz, maternologiaz, urbanizazioaz, pedagogiaz, etxebizitzaz, langileen arazoez eta abar hitz egin zen gune horietan, osasunaren kontzeptupean hainbat gai eta pertsona batzeko ahalmena erakutsiz[49].

Honetan guztian, medikuek bereziki **edoskitzean** jarri zuten garrantzia. Baina edoskitzeaz lehenagotik ere hitz egiten zuten, Estatu liberalak erreformak egin zituen eremu berrietako bat haurtzaroa izan baitzen. XVIII. mendearen erdialdean, Europa katolikoan haurren abandonua gizartearen ardura zela azpimarratzen zuten karitate-instituzioek. Estatua gero eta arlo gehiago bere gain hartzen hasi zen, eta besteak beste, haurren abandonuaren kudeaketa ere hartu zuen, ordura arte Elizak bultzatutako karitate pribatuak kudeatzen zuena. Estatuaren parte-hartzea sektore liberaletan gogor kritikatu bazuten ere, esan dugu erreformatzaile sozialek zein higienistek industrializazio garaiko egoera gogorren eraginez sortutako tentsio soziala baretzeko asmotan "gai sozialari" erantzun bat emateko beharraz jardun zutela.

Estatuak gai hori bere gain hartzea ulertu ahal izateko, beharrezkoa da **haurtzaroaren inguruko ikuspuntu aldaketaz** hitz egitea. Haurtzaroak garrantzi berezia hartu zuen medikuntza, higienea, pedagogia zein moralaren begietan. Esan dezakegu, haurrei pertsonalitate propioa eman zitzaiela. Haurren heriotza saihestu zitekeen gertakari bezala ikusten hasi ziren. Hilkortasun tasa nazioen garapen eta aberastasun maila neurtzeko elementu bezala kontsideratzen hasi ziren[50]. Gizartearen, arrazaren eta nazioaren gainbeherari zein despopulazioari aurre egin nahi zieten medikuntza sozial eta eugenikoaren bultzatzaileek[51] eta, horregatik, haurtzaroa hobetzeko ahale-

47 Eugenesiak giza arraza hobetzeko egin beharrekoak zeintzun diren zehazten duen diziplina da.

48 García Galán, Sonia (2015): 49. or.

49 Aresti, Nerea (2001): 85. or.

50 García Galán, Sonia (2011): 135. or.

51 Ballester; Balaguer (1997): 180. or

ginetan, haurren bizitzan esku hartuko zutela agindu zuten. Hau guztia, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako haurren jaiotza tasen jaitsieraren testuinguruan gertatu zen[52].

Martínez Vargas garaiko medikuak zioenez, haurren garrantzia hainbat baliotan neurtzen zen. Haurrak on egiten zuen berez onak ziren familiarentzat –etxeko zoriontasuna eta gurasoen zahartzaroko kontsolamendu zirelako–, gizartearentzat –arrazaren jarraikortasuna zirelako– eta nazioarentzat –landareen bizigarria bezalakoak zirelako–. Ordea, haurrik gabe familiak bakardadea eta babesgabetasuna, eta gizarteak arrazaren eta nazioaren desagerpena jasango zuten[53]. Finean, haurrak sistema liberal berriaren adierazle bihurtu ziren: Jainkoaren haurrak izatetik –bataio bidez salbatzen zirenak– Estatuaren haur izatera igaro ziren: etorkizuneko herritarrak izango ziren, eta Estatuak euren ardura eta kontrola eramango zuen jaioberritatik[54]. Beraz, haurtzaroaren balioa nazioa biziberritzeko ustez zeukan ahalmenean zetzan. Eta hori haurrak prozedura modernoen arabera hezten lortuko zuten.

Mediku higienistek jaioberrien eta edoskitze-aroan zeuden haurrengan sakondu zuten gehienbat[55]. Amatasuna eta edoskitzea ama biologikoak zituen funtzioak ziren, eta beraz, diru truke egiten zen edoskitzearen aurka agertu ziren medikuak eta halako praktiken aurka kritika gogorrak egin zituzten, ondorengo ataletan ikusiko dugunez. Egia da, higienisten korronte horrekin batera, haurren eskubideetan ere jarri zela indarra, amak beren nahietara egokitu behar zirelakoan. Esaterako, haurrek amaren esneaz elikatzeko eskubidea zuten, eta ondorioz, amak hori emateko betebeharra zuen[56].

Garaiotan interesgarri deritzogun aldaketa bat gertatu zen. Arestik dioenez[57], XX. mendearen bigarren eta hirugarren hamarkadetan amatasunak garrantzia hartu zuen gizartean, emakumeek ama bezala gizarteari egiten zioten ekarpena baloratzen hasi baitziren, beraien betebehar saihestezina bazen ere. Lehen aipatu dugu amatasunak berebiziko garrantzia hartu zuela gizartean, eta haurrik eduki ez zutenek ere amatasun sozialaren bitartez beren sena garatzeko lekua aurki zezaketela. Horrekin lotzen dugu, era berean, atal honen hasieran esan bezala, Elizak emakumeei parte hartzeko tartea eman ziela, alor asistentzialean garatzeko lekua eskainiz. Gauzak honela, ez-

52 Revuelta, Barbara Ana (2011): 116. or.

53 Martínez Vargas, Andrés (1906), "El centro médico de Lérida. Póliza infantil. Puericultura práctica", *La medicina de los Niños*, 7, 129-241 orr. IN Ballester; Balaguer (1997): 181. or.

54 Soler, Elena (2011): 1934, 1935. or.

55 Ballester; Balaguer (1997): 187. or.

56 González Revilla, Gerardo (1907): *La protección de la infancia abandonada (abandono y criminalidad de los niños):* 46. or IN Aresti, Nerea: 2001, 175. or.

57 Aresti, Nerea (2001): 180, 192. or.

kongabea izanik haurrak edukitako emakumeak bekatari eta erruduntzat ez hartzeko beharraz jardun zuten hainbat pentsalarik. Ezkongabeak ziren amak babesteko betebeharra defendatu zuten, ordura arteko karitatea eskubide gisara babesten hasi zirelarik. Haurrak etorkizuna ziren, ez bekatu baten emaitza[58].

2.4. LANAREN KONTZEPTUAZ

Lanaren kontzeptuaren inguruko hausnarketari ere tartea egitea ezinbestekoa da inudeen jarduna ulertzeko. Lanaren ikuspegi neoklasikoaren arabera, merkatutik pasatzen dena soilik hartzen da lantzat, beste hainbat jardun ekonomiko ezkutatuz.

Administrazioak lanaren ikuspuntua instituzionalizatzeko bitarteko bat estatistikak izan ziren. Hau da, lana zer kontsideratzen zen eta zer ez zedarritzeko, Estatuak administrazioa tresna gisara erabili zuen. Kategoria sozioprofesional batzuk ezarrita eta beste batzuk kontuan hartu gabe, emakumeek egiten zituzten lanak sinplifikatu eta ezkutatzera jo zuten biztanleen erroldetan jasotako lanaren kontzeptuek. Gizonezkoen eta emakumezkoen erroldak konparatzen baditugu, ikus dezakegu nola gizonezkoen kasuan, merkatutik pasatzen ziren eta etxetik kanpo egiten ziren aktibitate ekonomiko produktiboez gain –fabrikako edo tailerretako edozein lan–, ekonomia familiarraren baitan garatzen zituzten aktibitate ekonomikoak ere kontuan hartu eta sailkatzen zituztela: nekazaria, merkataria, eta abar.

Emakumeen errealitatea islatzeko orduan, baina, beste neurgailu batzuk hartzen ziren aintzat. Soilik merkatutik pasatzen ziren eta etxetik kanpo garatzen ziren aktibitate ekonomikoak jo zituzten lantzat eta horren arabera ezartzen zitzaien kategoria erroldetan. Beraz, gainerako lan guztiak (etxeko lanak, baserriak berezko zituen lan guztiak, merkatu informalean, hots, erregularizatu gabe modu informalean egiten zituzten lan guztiak...) albo batera utzi ziren.

Lana kontzeptualizatzeko modu horrek etekin ekonomiko edo monetarioa sortzen duen jardunak bakarrik baloratzen ditu, beste lan guztiak lanaren esparrutik kanpo utzita. Lan erreproduktiboa lan produktiboari azpiratua agertzen da ikusmolde horren arabera, eta beraz, lan produktiboak, funtzionalak, instrumentalak, monetarizatua dagoenak baino ez du aitortza soziala. Gainerakoa etxekotua, azpiratua eta ezkutatua da, aitortza sozialik gabekoa, ordaindu gabea eta emakumeek egina.

Baserrietako errealitatea paradigmatikoa da. Baserriak nagusi ziren guneetan ohikoa zen baserriko kide ezberdinek hainbat aktibitate ekonomikotan parte hartzea aldi berean. Baserrietako ekonomia mistoa zen, baserri eta industria lanak partekatzen

58 Hirugarren atalean sakon azalduko dugu ohorearen inguruko mentalitate aldaketa horrek instituzio benefikoetan zein politika aldaketa eragin zuen.

ziren bertan, alegia. Baserrietako errealitateak sistematikoki ezkutatu zituzten estatistikek. Ustiategi txikietan ohikoa zen autokontsumorako produzitzea, eta horiek monetarizatu gabe zeuden lanak zirenez, erregistratu gabe gelditu ziren; esan dugun bezala, emakumeen kasua nabarmentzen da batez ere. Horrela zioen Concepción Arenal idazte feministak:

> *El idilio económico-social de la mujer ocupada tan solo en los quehaceres del hogar, provisto por el hombre de todo lo necesario; lo cual, como hecho, es falso; como discurso, erróneo; como esperanza, vana. La mujer ha trabajado siempre fuera del hogar, trabajará, es preciso que trabaje, y para que esté el menor tiempo posible fuera de él no hay más remedio que mejorar su educación y las condiciones de ese trabajo; si ganara en seis horas lo que gana en doce, podrá estar 18 en casa*[59].

1860 eta 1900 bitartean "sailkatu gabe" agertzen dira emakumeak estatistiketan. 1900. urtetik aurrera, kategoria zurruna inposatzen da estatistiketan: "etxeko andrea". Sexuaren araberako lanaren banaketa XX. mendearen lehenengo hamarkadetan ezartzen da, emakumeak etxekotzearen eta espazioen banaketaren ideologia finkatuz, azkenik[60]. Horrek ez du esan nahi emakumeek lan egiteari utzi ziotenik. Etxeko andrearen figurarekin ordea, generoen arteko harremanak finkatzen joan ziren lanaren esparruari zegokionez. Ikerketa hau garatzerako orduan lanaren definizio horrekin behin eta berriro egin dugu topo, gure iturri garrantzitsu bat izan diren biztanleriaren erroldetan ikertzen ari garen lana, inudeena, sistematikoki ukatua izan baitzen.

Ekonomia feministak afera horri erantzuteko proposamen sendoa du, lana enplegutik harago doan jardun konplexuago baten gisara definituz[61]. Hortaz, lana behar humanoak asetzeko egindako edozein aktibitate litzateke, behar horiek asetzeko egindako edozein ekoizpen-ondasun edo zerbitzu, alegia[62]. Beharrez ari garenean, beraz, Cristina Carrasco ekonomia historialariaren hitzetan behar objektiboak (ondasunak eta zerbitzuak, jantziak, elikadura, osasuna, hezkuntza...) zein subjektiboak (afektuak zein harremanak: sozializazioa, zaintza, segurtasun psikologikoa, harremanetarako gaitasunak...) genituzke[63]. Gure ustetan objektibo eta subjektibotasunetik haratago, behar material eta ez-materialak egongo lirateke.

---

59 Arenal, Concepción: *Obras completas,* I. Liburukia, LXIX. or. IN Martínez Martín, María Ascensión: 1996, 56. or.

60 Arbaiza, Mercedes (2000): 444. or.

61 Larrañaga, Mertxe (2013): 99. or.

62 Carrasco, Cristina et al. (2000): 5. or IN Pérez Orozco, Amaia: 2002, 21. or.

63 Carrasco, Cristina (2001): 45, 46. or.

Beraz, lana eta ekonomiaren kontzeptuak zabalduz, kontzeptuen arteko kontrakotasun eta dikotomiak gainditu eta analisia aberasten duten elkarren arteko loturak azaleratzea ahalbidetzen digu. Hala nola, produktiboa/erreproduktiboa; publikoa/pribatua; ekonomikoa/ez ekonomikoa; ekonomikoa/soziala... denak daude elkar eragintzan.

Carrascoren ustetan, gizarte batean bizitza nola sostengatzen den ikertzeak, gizarte antolaketaren berri izateko eta inplizituak diren hainbat prozesu azaleratzeko aukera ematen digu[64], hau da, beharrezkoa zer den eta hori nola egiten den jakitea ahalbidetzen du. Zentzu honetan, ekonomia feministak zaintza lanak eta etxeko lanak esplizitu egitearen alde egiten du. Lehen aipatutako ikuspegi dikotomikoak gainditzeko, eta azken batean, merkatuaren independentzia eta *homo economicus* delako figuraren autonomia faltsua dela adierazten baitigute. Izan ere, zaintza gizakiarentzat beharrezkoa da bizi ziklo edo momentu zehatzaren arabera, modu edo intentsitate ezberdinarekin beharko baitugu.

Homo economicus bezala ezagutzen dena atal honetan zehar aipatzen joan garen gizontasun eredu burges eta liberalaren sintesia litzateke. Hots, familia sostengatzen duen gizonaren figura, sostengatzea behar ekonomikoak soilik asetzea izango balitz bezala. *Homo economicus*-ak irudikatzen duena sostengaezina da, batetik, zaila delako errealitatean betetzea diskurtso historiko eta ekonomiko horren eredua. Langileen artean nekez aseko zituzketen etxeko behar monetarioak gizonaren soldataren bidez bakarrik. Bestetik, *homo economicus*-aren ereduan, ez dira kontuan hartzen behar monetario horietatik harago doazen beste behar guztiak: harreman sozialak, zaintza, etxeko lanak... nahiz eta horiek ezinbestekoak izan pertsonen garapenerako.

Kontzeptuak ekarri nahi izan ditugu, lana eta enplegua sinonimotzat jotzeko prozesua ere historikoa izan dela azpimarratzeko, estatistikek jardun horiek guztiak ezkutatzen dituzten heinean, gizon eta emakumeen arteko egitekoak publiko eta pribatuaren artean banatu dituztelako, eta kontzeptu horren arabera sortutako interpretatzeko tresnak erabili direlako. Azkenik, hemen aipatu ditugu, kontzeptuak birpentsatzeak eskaintzen dizkigun hausnarketak baliaturik, inudeen jarduna eta gizarteari egiten zioten ekarpena bere osotasun eta konplexutasunean ulertzeko tresna egokienak direla uste baitugu.

64 Carrasco, Cristina (2001): 44. or.

3.

ERALDAKETAK BERTAN:
Gipuzkoa eta Hernani mende hasieran

Ezinbestekoa da azaldu ditugun gako guztiak gurera ekartzea. Eraldaketa horiek gurean nola gertatu ziren jakiteko, testuinguru orokorra esperientzia lokalera ekartzea beharrezkoa zaigu, orain arteko deskribapena eguneroko errealitatean txertatzeko.

3.1. INDUSTRIALIZAZIOA HERNANIN

Aditzera eman dugun bezala, aztertzen ari garen garaia eraldaketa eta prozesu askotako unea izan zen. Industrializazioak gizarte eraldaketa handia eragin zuen, lekuan leku azkartasun eta intentsitate ezberdinak eduki zituena. Hernaniko industrializazioa Gipuzkoakoaren testuinguruan kokatu behar dugu. Gipuzkoako industrializazio eredua graduala izan zen: haustura izan baino, gutxika garatzen joan zen, prozesu horretan elementu tradizionalek modernoekin egin zuten bat[65]. Horrek, baina, ez du esan nahi desoreka eta desberdintasun sozial handiak, bizi baldintza txarrak, lan ordu amaigabeak eta lan prekarietatea presente egon ez zirenik.

Industrializazioak isuri atlantikoko baserrien produkzioaren norabidea aldatzea eragin zuen. XIX. mendearen bukaeran, Bilboko itsasadarrean zein Gipuzkoako haranetan baserriak buruaski izatetik produkzio intentsibo edo espezializatura igaro ziren, hirietako populazioa handitzen ari zela ikusita. Horrela, produktibitate baxuko

65 Aizpuru, Mikel (2000): 198. or.

ekoizpenak baztertu ziren –garraiobideek irisgarriago bihurtu zituzten produktuak, adibidez, mahastiak– eta hirietako populazioa hornitzeko produkzioari bide eman zioten, batez ere esne eta barazkiak ekoitziz[66].

Lursailak zabaldu beharrean, modu intentsiboan erabiltzen hasi ziren. Horrek baina, lan intentsitate handiagoa eskatzen zuen, ordura arte, oro har, familiako kideen artean egin zena. Lan kantitateari aurre egiteko, eta lurra modu intentsiboan landu ahal izateko, ongarri organikoez gain, ongarri kimikoak erabiltzen hasi ziren, eta horretaz gain, hautatutako haziak erabiltzen hasi ziren, produkzioa bermatze aldera. XX. mendearen lehenengo erdialdean oraindik makineria eta teknifikazioa ez ziren baserrietara iritsi.

Ekoizpenari dagokionez, merkaturatzearen garrantzia handitu zen. Artzantza alboratu zen –lan gogorra baitzen, eta gainera, mendiak baso berritzen hasi ziren– eta abeltzantzara bideratutako esne eta haragi produkzioak hartu zuen lehentasuna. Behia zen garrantzitsuena, baina, horretaz gain, zerriak eta oiloak ere hazten zituzten. Artoak baserriko kideen elikagai izateari utzi zion, gari irina hobesten baitzen. Artoaren produkzioa, beraz, abereak elikatzeko erabiliko zen, eta baten batzuek soberakina salduko zuten[67]. Uzta txarrik egonez gero ordea, merkatuan erosi beharko zuten abereen bazka. Bestalde, baserrietan barazkien laborantzak lekua irabazi zuen. Patatak, babarrunak, tipulak, baratxuriak, tomateak, piperrak, kuiatxoak, pepinoak, ilarrak, letxugak, babak, kuiak eta abar landu ziren. Horretaz gain, hainbat fruta-arbola landatzen ziren: sagarrondoa zen nagusi Hernanin, baina, horretaz gain, pikondoak, gereziondoak, intxaurrondoak, urritzak, udareondo eta aranondoen produkzioa ere bazegoen[68]. Lehentasunez, baserriko kideak elikatzeko erabiltzen zen produkzioa eta soberakina merkatuan saltzen zen. Lursail handiak lantzen zituztenek soberakinak zituzten, baina, oro har, beharrak asetzeko bezalako soberakinak ziren[69]. Hitz batean, baserri mota ireki bezala definitu izan da produkzio mota hau, merkatura begira zegoen produkzio gisara, alegia[70].

Jakina denez, baserriak unitate produktiboak izateaz gain, erreprodukzio familiar eta kulturalerako instituzio ere baziren. Baserriaren produkzioaren norabidea aldatzeak ere, eraldaketak eragin zituen horretan. Ordura arte, baserria ez zatitzea zen oinarrizko printzipioa eta oro har, familia tronkalean egituratzen zen, belaunaldi bat baina gehiago bertan elkarrekin bizi zirelarik. Baserria bera, lurraren gaineko eskubi-

66 Ainz, M. José (1995): 90. or.

67 Taltavull, Bartolomé (1963): 85. or.

68 Taltavull, Bartolomé (1963): 88. or.

69 Taltavull, Bartolomé (1963): 82. or.

70 Ainz, M. José (1995): 91. or.

deak eta horrek inplizituki zekartzan estatusa oinordeko batek herentzian jasoko zituen eta horrela baserriaren jarraitasuna bermatuko zen. Bertan gurasoek, herentzian jasoko zuen semearekin eta haren emaztearekin biziko ziren, eta gainerako anaia-arrebek kanpoan bilatu behar zuten bizibidea. Oinordekoak eskubide zein betebehar batzuk jasotzen zituen herentzian: baserria bera eta produkzio bitartekoak, dirua, bitxiak eta abar. Usufruktua gurasoekin banatu beharko zuen haiek hil artean –baita zorrak ere–, eta gurasoekin bizi bitartean zaintza, errespetua eta tratu egokia bermatu beharko zizkien eta, horretaz gain, horien heriotzaren gastuak eta baserriaren hilobia mantendu beharko zituen. Ezkontzeak ez zekarren berekin etxeko buru izendatzea. Estatus hori 35-45 urte inguruan hartzen zen, aita hiltzean normalean, nahiz eta askotan amak ere har zezakeen baserriaren buruzagitza.

Oinordekoak ez zirenak eta ezkongabeak baserrian mendeko posizio batean gelditu ohi ziren bai eta, zer esanik ez, ezkondu gabe ama izan ziren emakumeak edota haur ilegitimoak ere. Horiek guztiek etxetik kanpo edo etxe barruan beren etorkizuna ziurtatu beharko zuten aurrerantzean.

Gizartea antolatzeko modu hori, oinordekotzaren eta familia tronkalen eredua, alegia, XIX. mendearen bigarren erdian hasi zen galtzen, edo behinik behin ezaugarriak leuntzen hasi ziren, industrializazioaren eraginez eraldatzen hasi baitziren ordura arte nekazaritzara emanak zeuden herri asko.

Hernani nagusiki nekazaritzatik bizi zen herri izateari uzten hasi zitzaion hamarkada horietan. Fabrikak irekitzearekin batera, lehen industrializazio prozesua hasi zen herrian, eta horrek egitura ekonomikoa aldarazi zuen. Jakina den moduan, industrializazioak berekin beste hainbat eraldaketa ekarri zituen. Eraldaketa ekonomiko eta sozialak, lehen sektoreko herri izatetik bigarren eta hirugarren sektoreko herri izatera igarotzen hasteko prozesuan jarri zuen Hernani. Martínez Martínek prozesu hori Gipuzkoan nola izan zen laburbiltzen du datutan:

1. TAULA: GIPUZKOAKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BANAKETA SEKTOREKA (EHUNEKOETAN), 1887-1930[71]:

	1887	1900	1910	1920	1930
1. SEKTOREA	% 53,2	% 43,5	% 38,4	% 35	% 26,9
2. SEKTOREA	% 28,4	% 38,8	% z35,9	% 40,9	% 42
3. SEKTOREA	% 18,4	% 22,7	% 25,7	% 24,1	% 31

71 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 51. or.

Taulari erreparatuz gero, hamarkada gutxiren buruan, poliki baina gelditu gabe gizartean aldaketa sakona eman zela ikus dezakegu. Mendea amaitu aurretik nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreak merkatuaren produkzioaren erdia baino gehiago hartzen zuen. 1920ko hamarkadan jadanik industriaren sektorea gailentzen zen merkatu produkzioan; ondorengo urte luzeetan halaxe mantendu zen. Zerbitzuen sektorea, bestalde, indarra hartzen joan zen baina industria baino motelago. 1930eko hamarkadarako lehenengo sektorea gaindituko du hirugarrenak, ozta-ozta, baina zetorren garaiaren norabide eta joerak aski definituta uzteko moduan.

Familia eta genero harremanen bilakaera, ohituren modernizazioa, sekularizazioa... gizartearen eraldaketa prozesua mantsoa izan zen. Nekazaritzako produkzio unitatea baserria edo familia izatetik, norbanakoa izatera igaro zen: gizon, emakume eta haurrak lan esku bilakatu ziren.

Hernaniren industrializazio prozesuaren hastapenetik, lantegiak Urumea ibaiaren ur-bazterretan ezartzen joan ziren. Berebiziko garrantzia eduki zuen trenbide sarea bertatik igarotzeak, kokaleku interesgarri bihurtu zen inbertsioak egiteko. Zabalpen eta bultzada handiena 1935etik aurrera gertatu zen, Zikuñagako paper fabrikaren sorrerarekin. 1900. urterako jada hainbat industria ireki ziren, baina, 1929an eztanda egin zuen krisi ekonomikoak ere izan zuen eraginik. Krisi ekonomikoari 1936ko gerraren zapalkuntza eta gosea gehitu behar dizkiegu. Une horretan, beraz, garrantzitsua izan zen Zikuñagako lantegiaren irekiera, 1939an funtzionamenduan jarri eta 1941ean produkzioa merkaturatzen hasi baitzen[72].

Garoa González historialariak Hernaniko industriak zerrendatu ditu[73]. Gerraostean fabrika garrantzitsu asko ireki ziren, Hernaniko industrializazioari bultzada eman ziotenak. Dena dela, Gonzálezek dioenez, benetako bultzada 60ko hamarkadan gertatu zen, gerraren ondorioak gainditzen hasi zirenean[74], hau da, desarroilismoaren garaietan. Honi guztiari estuki loturik, industrializazioaren eragin nabari bezala, biztanleriaren gorakada eta migrazioaren fenomenoa genituzke, fabriketako lan esku beharrari erantzuteko iritsi zena.

72 Taltavull, Bartolomé (1963): 104. or

73 González Fernandino, Garoa (2004): 4. or.

74 González Fernandino, Garoa (2004): 5. or.

2. TAULA: GIPUZKOA, HERNANI ETA DONOSTIAKO BIZTANLERIAREN EBOLUZIOA, 1900-1940[75 76]:

	1900	1910	1920	1930	1940
Gipuzkoa	195.850	226.557	258.557	302.329	331.753
Donostia	41.200	53.090	67.281	85.554	105.775
Hernani	3.672	4.326	5.404	6.277	7.570

Bestalde, migrazio tasei zegokienez, Taltavullek azpimarratzen du lantzen ari garen garaian, 1940 baino lehen, oraindik Gipuzkoako herrietako migrazioa zela nagusi:

3. TAULA: 1940AN HERNANIRA IRITSITAKO MIGRANTEEN JATORRIA, EHUNEKOTAN[77]:

GIPUZKOA	% 58,8
BIZKAIA, ARABA ETA NAFARROA	% 17,2
GAZTELA ZAHARRA	% 13,7
EXTREMADURA	% 3
ANDALUZIA	% 1
LEON	% 1
BESTEAK	% 8

Datuak ikusirik, esan dezakegu Hernaniko biztanleria handitzen zihoala gutxinaka. Eta migrazioen ehunekoek erakusten dute biztanleriaren hazkundea erabat lotuta zegoela hazten ari zen industriarekin eta hamarkadotan oraindik Gipuzkoako herrietatik zetozela etorkin gehienak.

Alfabetatze mailaren inguruko datuei ere erreparatu diegu. Gipuzkoako datuek erakusten digute XX. mendearen lehenengo hamarkadetan aldaketa nabarmena gertatu zela, Arte eta Ofizio Eskolen irekierak horretan zerikusia izan zuelarik[78]. Estatuak bultzatutako 1857ko *Moyano Legeak* analfabetismo tasa handiari aurre egin nahi

75 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 51. or.

76 HUA B-4-I-Lib. 2 Exp. 4; B-4-I-Lib. 4 Exp. 2; B-4-I-Lib. 4. Exp. 1; B-4-I-Lib. 9 Exp. 4; B-4-II-17.

77 Taltavull, Bartolomé (1963): 67. or.

78 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 58. or.

izan zien, derrigorrezko eskolatzea arautuz. Dena dela, gorabehera politikoen ondorioz erdizkako emaitzak baino ez zituen lortu ahalegin horrek. Elizak ere bere eragin esparrua mantendu nahi izan zuen, gizartearen sekularizazio zantzuei aurre egiteko. Horrela, hezkuntzari lotutako hainbat arlotan presente egon ziren erakunde erlijiosoak, benefizentzia, osasuna eta baita eskoletan ere[79]. Martínez Martínek aipatzen duenez, Gipuzkoan alfabetatze tasa "onargarria" zegoen, Espainiako Estatuko batez bestekoarekin konparatuz gero.

4. TAULA: GIPUZKOAKO ALFABETATZE TASAK EHUNEKOTAN, 1900-1930[80]:

	1900	1910	1920	1930
Irakurri eta idatzi	Emak. % 40,5 Gizon. % 46,5 GUZT. % 43,4	Emak. %50,2 Gizon. % 54,0 GUZT. % 52,1	Emak. % 61,4 Gizon. % 64,0 GUZT. % 62,8	Emak. % 71,8 Gizon. % 73,1 GUZT. % 72,5
Irakurri	Emak. % 11,6 Gizon. % 8,8 GUZT. % 10,2	Emak. % 8,0 Gizon. % 6,2 GUZT. % 7,1	Emak. % 2,5 Gizon. % 1,8 GUZT. % 2,1	Emak. % 1,9 Gizon. % 1,2 GUZT. % 1,6
Analfabetoa	Emak. % 47,8 Gizon. % 44,6 GUZT. % 44,6	Emak. % 41,6 Gizon. % 39,6 GUZT. % 40,6	Emak. % 35,8 Gizon. % 34,0 GUZT. % 34,9	Emak. % 25,7 Gizon. % 25,5 GUZT. % 25,5

Emakumeen tasa baxuagoa da, baina esan dezakegu gertutik jarraitzen ziola gizonen alfabetatze mailari. Dena dela, honek argi erakusten du norbait eskolatu behar bazen gizonezkoek lehentasuna zutela. Agian, gerora ofizio bat garatu ahal izateko oinarrizkotzat jotzen zelako alfabetatzea. Dena dela, ikusten dugu hamarkadaz hamarkada nola aldatzen den 1900. urtean aurkezten zaigun panorama. Martínez Martinek esaten du, eta Dávila Balserak berretsi, Gipuzkoako datuek ez dutela zerikusirik Espainiakoekin: 1900. urtean herritarren % 68ko analfabetoak ziren –emakumeen kasuan, % 78, gizonen kasuan, % 68,3–; 1910ean % 59,3ra jaitsi zen baina oraindik altua izaten jarraitzen zuen alfabetatu gabeen mailak –emakumeen % 65,7 eta gizonen % 52,5–; 1920an, oraindik biztanleriaren erdia analfabetoa zen: % 52,2, –zehazki, emakumeen % 57,7 eta gizonen % 46,2–; azkenik, 1930erako % 42,3ko

79 Del Valle López, Ángela (1997): "La actividad educadora insitucional: Órdenes, Congregaciones e Institutos eclesiásticos femeninos dedicados a la educacion y enseñanza", *Historia de la acción educadora de la Iglesia en España* IN Berdote, Esther: 2016, 120. or.

80 Dávila Balsera, Paulí (1995): Lengua, escuela y cultura: el proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX: 50-52 In Berdote, Esther: 2016, 116. or.

analfabetismoa zegoen –emakumeen % 47,5 eta gizonen % 36,9–[81]. Hainbat ikerlarik azpimarratzen dute, Euskal Herriaren alfabetatze mailaren ondorio garbia izan zela euskara etxe, familia eta erlijioaren hizkuntza gisara mantentzea, ahozkotasuna ezaugarri nagusi zuela, eta bitartean gaztelania erakundeen hizkuntza ofizial gisara ezartzea, 1876ko foruen galeraren ondoren azkar garatu zen prozesu batean[82]. Hori, ordea, beste gai bat da.

3.2. IDEIA MODERNOAK MAHAI GAINEAN: MEDIKUNTZA, HIGIENEA ETA ARRAZA

Aldaketa politiko eta ekonomikoek aldaketa kulturalak eragin zituzten eta pentsaera berriek, aldiz, aldaketa sozialak –hauek, aldi berean, aldaketa ekonomiko zein politikoak elikatu zituzten–. Gipuzkoa etapa modernoan sartzen hasi zen eta gizartea ere korronte orokor horren arabera antolatu zen: ideia burges eta liberalak nagusitu ziren eliteen artean. Horrek ez du esan nahi prozesu hori gorabeheratsua izan ez zenik. Tradizionalismoak pisu handia baitzuen gure ingurunean. Foruak, euskara, tradizioak, baserria... modernitatearekin kontrakotasunean ulertu zituzten hainbat pentsamenduk.

3.2.1. Hernani eraldaketa betean: ideia eta ohituren fusioan

Gipuzkoan arau moderno berriak ohitura tradizionalak alboratu gabe garatu ziren. Hernanin eta tamainaz oso handiak ez ziren antzeko herrietan, ideia modernoen sarrera ez zen guztiz erraza izan. Nekazal komunitatean lurrari eta familiari errotutako lotura estuak mantendu ziren, merkatu ekonomiara begirako produkzioa finkatzen hastearekin batera. Bizimodua oro har, nekazaria eta komunitarioa zen, Mikel Aizpuru historialariak azpimarratzen duen moduan. Hau da, ezaugarri tradizionalak mantentzen baziren ere, ez zegoen inguratzen zion gizarte eraldaketetatik eta errealitate berrietatik isolatua.

Aizpuruk dioenez, Hernani bezalako herrietan, bizibide tradizional eta modernoaren arteko talken zantzuak hainbat elementutan nabari ditzakegu. Horietako bat akordeoia eta musika dantzagarrien eta txistu eta danbolinaren arteko talkak sinbolizatu zuen, akordeoiaren eta musika dantzagarriaren sarrerak moralitatea erlaxatu zela adierazten baitzuen zenbaitentzat[83]. Horren adibide dugu 1915ean Hernaniko dantzaleku edo erromerian porrusalda dantzatzeko ezarritako debekua. Gorputzak

81 Idem.

82 Dávila (et. al.) (1994): 72-73. or.

83 Aizpuru, Mikel (2000): 203. or.

elkarri estututa lotzen ez baziren ere, gorputzak aske, lotura gabe eta desinhibizioz beteta baitzeuden momentu horietan:

> *Un artículo publicado en el Correo del Norte ("El baile de Hernani"), suplica que se ponga remedio a la forma poco honesta y procaz con que algunos jóvenes bailan los domingos al compás de la música con mengua de la decencia y del pudor de las personas sensatas que concurren a distraerse viendo bailar al elemento forastero.*
>
> *El ayuntamiento funda un ruego: acordó disponer que en lo sucesivo no ejecute la banda municipal la pieza denominada "porru-salda" que da margen a que las parejas corran, salten y choquen estre sí, ocasionando caídas grotescas, que menoscaban el pudor de las mujeres que en la danza toman parte y publicar [el acuerdo en] un bando (...) [y también] en los periódicos de la capital, haciendo un llamaniento a la cordura del público a fin de dejar que cese un estado de las cosas tal que tan poco favorece al crédito y buen nombre de esta villa*[84].

Garaiotan oraindik erlijio katolikoak bizitza publiko eta pribatuan pisu handia zuen eginkizun pastoraletik haratago, bai ospakizun edo errito garrantzitsuetan (jaiotza, ezkontza eta heriotzean) baina baita hezkuntzan, benefizentzian edota elkarteetan izan zezakeen presentzian ere[85].

Moralitatearen garrantziak eta bizimodu tradizionalak garrantzia zuten momentu hartan, baina ideia modernoak ere iristen hasi ziren, nahiz eta herritar guztiengana ailegatzeko denbora gehiago behar eta bide ezberdinetatik iritsi. Interesgarria da ideia modernoak zein bidetatik zabaldu ziren jakitea; hala, higienismoa, generoaren araberako funtzio kontrajarri eta osagarriak, edoskitzearen garrantzia eta beste hainbat gaik arrastoa utzi zuten herritarengan. Afera horri eusteko, garaiko publikazioetan zein dokumentazioan agertzen ziren ideietan sakondu dugu.

Hiru iturri nagusi landu ditugu horretarako: batetik, *Guipúzcoa Médica* aldizkaria, medikuntzan eta zientzian zer esaten zen jakiteko eta Gipuzkoako medikuek lehenengo atalean aipatu ditugun korronte orokorrekin bat egiten zuten edo ez ikusteko; bestetik, *Euskal Erria* aldizkari euskaltzalea, elite kulturalak garaiko gizarteaz zuen ikuspegia ezagutzeko; eta azkenik, Eusko Ikaskuntzak doan zabaldutako liburuxka bat, herritar xumeengana zein ideia iristen zen ikusteko, nahiz eta zaila den jakitea publikazio horien benetako hedapena zein izan zen.

84 HUA A-1-37, Udal Akta Liburua 1915-07-04koa.

85 Aizpuru, Mikel (2000): 204. or.

3.2.2. *Guipúzcoa Médica*: higienismoaren ahotsak Gipuzkoan

Guipúzcoa Médica Gipuzkoako Medikuen Elkargo Ofizialak 1916an sortu zuen aldizkaria zen; 1936ra arte hilabetean behin argitaratu zen eta bere orrietan Gipuzkoako mediku ospetsu edo nabarmenek osasunarekin eta medikuntzarekin lotura zuten gaien inguruko hausnarketa eta ikerketak plazaratzen zituzten.

Nola islatu ziren garaiko ideiak aldizkarian? Higienea, gizartearen erregenerazio beharra, haurren heriotza saihesteko moduak... itaun horiei segika lehenengo urteetako idatziak aztertu ditugu.

Medikuen klaseak orain arte aipatu ditugun gaiaz zer nolako ikuspuntua zuen jakin nahi izan dugu, eta oro har, esan dezakegu, aipatutako korronte orokorrean txertatzen zirela Gipuzkoako adituak. Aldizkariko testuek osasun arazoez eta arazo sozialez hitz egiten dute: hainbat gaixotasunen inguruan ikerketak aipatzen dituzte, besteak beste, hesteetako gaitzak, haurren heriotza, haurren higienea, abortua eta infekzioak dira gai ohikoenak. "Medicina Social" izeneko atalean, gizartean nagusitzen ziren arazoak nabarmentzen zituzten: etxebizitzaren arazoa, umeek aire garbia arnasteko zuten beharra, eta beste.

Higienismoari buruz izendatutako ezaugarrien artean, *Guipúzcoa Médica*n behin eta berriz ageri zaigun ideia bat da zientziari eta medikuntzari gizartearen arazoak bere osotasunean konpontzeko eta konponbide horretan abangoardia izateko egozten zioten funtzioa. Testu hau sinatu zuen 1916an Elkargoko Batzordeak, Akademia Mediko-Kirurgikoaren inaugurazio egunean:

> *Reunidos fraternalmente todos los compañeros de la provincia (...) gratamente el papel elevado que representamos en la sociedad, creyendo firmemente que la Medicina es la mano firme que encauza a la Humanidad en el camino que debe seguir su evolución.*
>
> *Ella es la que cuida de la madre, recoge al ser en sus comienzos, la que con sus vacunas pone a salvo posibles dolencias, la que consuela al desvalido, alivia sus dolores y vence a la enfermedad. La que indica la manera de ser fuerte para sobrellevar las vicisitudes de la vida y asesora al legislador para que sus leyes sean norma de lo que puede y debe exigirse a ese cerebro y ese cuerpo que constituyen la máquina complicada de la que somos sus fieles conocedores.*
>
> *Tan elevada es nuestra misión que sin disputa alguna (sic) día llegará en que el médico sea la primera figura de esta organización hoy defectuosa de nuestra sociedad*[86].

86 *Guipúzcoa Médica* (1916): I. urtea, 7. Bol: 2. or.

Ikusten dugunez, mediku higienistek garaiotan beren lekua eskatzen dute erabakimenetan, sinetsita erabakiguneetan zeudenek ez zituztela haiek bezain ongi ezagutzen gizarteak zituen arazoak eta konponbide posibleak. Medikua, instituzio gisara, misio batean sartuta dago, gizartearen gaitz guztiak, gaitz fisikoak eta moralak konpontzearen misioan, hain zuzen. Izan ere, gizartea ezjakina zen garaiko medikuen ustetan:

> *La carencia de fe [de las clases bajas] en aquellos tiempos*[87] *en la eficencia y acción de los preceptos de la medicina que con más o menos base y dirección científica pudieran emplearse para el restablecimiento de la salud, se hallaba sustituida con creces (y aun en los nuestros puede que suceda lo mismo) por toda clase de aberraciones referentes a esa misma materia, en gran parte por fanatismo religioso que no solamente alcanzaba a las últimas capas sociales, sino a veces hasta a las más altas y elevadas y aun designadas por su destino a regir y a gobernar el pueblo*[88].

Medikuntzak gizarteari emateko zeukana argi zegoen: hezkuntza, formakuntza eta higieneari buruz zeukaten ikuspuntua. Formakuntzaren balioan sinesten zuten, beren egitekoan. Baina zertarako formatu herritarrak?

> *Estas instituciones (...) serían para la mujer, para la futura madre verdaderas escuelas prácticas de puericultura en donde aprendería todas las reglas y el tecnicismo de la higiene infantil que quizá más tarde le servirían de provechosa enseñanza para su hogar. Allí aprendería a conocer al niño y a alimentarlo cuando y como es debido, allí a vestirlo y a cuidar de su sueño y a adivinar sus deseos y la causa de sus quejas y allí seguramente empezarían a limarse las asperezas que hoy existen entre el hogar y aquel niño que nació de pobres obreros y el de la dama o la señorita que tuvo la felicidad de criarse entre ricos pañales o de alcanzar un bienestar que a los desheredados de la fortuna les produce odio de "clases" o la desesperación. ¡Quién sabe si de este trato más constante entre dos clases que hoy se miran con prevención no nacieran simpatías o afectos que sirviendo de nexo entre los dos, sirvieran para evitar más tarde las suspicacias y recelos de los tiempos presentes*[89]*!*

87 Idatziaren lehenengo partean medikuntza eta osasuna gure herrian tradizionalki nola zaindu den aipatzen du.

88 "Como ha pensado y piensa nuestro Pueblo la Medicina" (1917): *Guipúzcoa Médica*, II. Urtea, 11. Bol: 131

89 Elvira, Ángel doktorea (1917): "Refugios infantiles", *Guipúzcoa Médica*, II. Urtea, 17. Bol: 314-317. or.

Horretan, bai, emakumeak ziren lehenengo formatu beharrekoak. Beren egitekoa erreprodukzioa zen, ama izatea. Baina ez edozein modutan, ama onak izan behar ziren, kontzienteak, maternologiak arautzen zituten pautak jarraitzen zituztenak. Emakumeengan gizartea erregeneratzeko ardura ezarri zuten medikuek, ama onak izateaz gain, gizartean zeuden beste hainbat arazo konponduko baitzituzten bide batez. Esan dugunez, mediku higienistek industrializazioaren eragin kaskarrenak pairatzen zituen gizartearen testuingurutik hitz egiten zuten, betiere euren mundu ikuskera burgesetik. Arazo soziala, tentsioa saihesteko behar handia zegoen, eta horretan, benetan sinesten zuten medikuntzaren bidez landu zitezkeela arazo horiek. Hargatik aipu hau: ondo hezitako haurrek klaseen arteko borroka leundu ahal zuten, gizarte harmoniatsua eraiki zezaketen, baina, horretarako emakumeek beren lana ondo egin behar zuten.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi, aldizkarian umorerako tarterik ere bazegoela. Kontakizun formatoan, langile klasearen egoerak aipatzen dituzte, beren ohiturak eta lehentasunak barregarri utziz. Adibidez[90], langile familia bateko gorabeherak aipatzen dira, parodia baten antzera, ume gaixo bat artatzeko medikuari kontsulta ordaintzeko dirurik eduki ez eta, zerbitzua ordaindu gabe egitea eskatu ostean, haurra behin osatuta, dirua lortu eta medikuari ordaindu beharrean, ospatzeko oilasko bat erosteagatik.

Medikuek ikuspuntu eta ideologia burges-liberaletik hitz egiten zuten, eta esan dugunez, burgesek pentsatutako gizartean familia nuklearra bultzatzen zuten. Sexua, ezkondu osteko erreprodukziorako bitartekoa zen:

> *La salud, el vigor, el entusiasmo y el afecto que los padres sientes en el acto de procreación, son la garantía de un engendro robusto, sano y perfecto. (...) La brutalidad pasional, la indiferencia, las enfermedades, la debilidad, sobre todo el alcoholismo y el terror, dan origen a niños degenerados, deformes, retrasados, idiotas, sordo-mudos*[91].

Gainera, pasioa estadio basatia zen, kulturarik ez zeukan gizakiarena, eta hori alboratu beharra zegoen higienisten ustetan. Zibilizatu, zientifikotu. Alkoholismoak ez zuen laguntzen bide horretan, gizakiaren (gizonen) alderdirik okerrenak ateratzen baitzituen. Langileen arteko alkoholismoaren aurka borrokatu ziren medikuak, erreformatzaileekin batera.

90 *Guipúzcoa Médica*, II. Urtea, 9. Bol: 34-39. or.

91 "Pediatría. Código de la madre", *Guipúzcoa Médica*, III. Urtea, 29. Bol: 241-249. or.

Haurraren balio eta babesa eta amatasunaren gorazarrea, berriz, behin eta berriro aipatzen diren gaiak dira. Amatasuna guztiz teknifikatu beharra zegoen, horrek haurraren etorkizuna baldintzatzen baitzuen:

> *La mujer encinta no ha de recrearse en su estado; va a ejercer de la función más sublime de la naturaleza, sin la cual se acabaría el mundo; ¡va a ser madre! Santa palabra que endulza la vida, expresión de sublime amor y de la más grande abnegación.*
> *Toda mujer embarazada debe evitar las impresiones fuertes, los disgustos, las ideas fijas, sobre todo en los primeros meses; en todo tiempo paseos en coche, los viajes, los vestidos, los baños de mar, los purgantes deben ser motivo de consulta con el médico. Durante los tres meses últimos se procurará el mayor descanso posible; el hijo de la mujer que trabaja hasta el final pesa 300 gramos menos que el de la mujer descansada. Preparará, además, sus pechos para la lacancia*[92].

Haurdunaldia, haurraren sortze prozesuaren hasiera zen heinean, babestu beharreko denbora zen, haurraren bizitza jokoan zegoen eta horretarako, medikuek jarraibide zorrotzak zituzten amentzat. Garai hori, ordea, ilusioa piztekoa omen zen, emakumeak azkenean ama izatea lortuko baitzuen, bere "eginbeharra eta funtzioa" beteko zituen. Medikuek maitasun maternalaren ideia egoera paregabe eta goren bezala definitzen lagundu zuten. Haurren edoskitzea behin eta berriro eduki zuten ahotan, edoskitzea erregulatze aldera:

> *Se haran todos los esfuerzos posibles para que la madre amamante a su hijo.*
> *¡La "lactancia materna" a todo trance!*
> *¡Todo hijo tiene DERECHO al pecho de su madre!*
> *¡Toda madre el DEBER de lactar a su hijo*[93]*!*

Testu honek ondo laburbiltzen du aipatutakoa. Amek, beren egitekoa bete behar zuten, aitzakiarik gabe, baina, zoriontsu. Hori zen jarrera egokiena ama ona izateko. Jaioberrientzako hori zen onena higienistentzat, baina ez zuten esaten, adibidez, emakume langileentzat ezinezkoa zela eredu hori jarraitzea. Helburua argia zen: klase sozial altuetako emakumeak, behintzat, eredu horretan sartzea. Horregatik, medikuek gogor egin zuten inudeen lanaren aurka, horretara jotzen zuten amek kate desegoki batean hartzen zuten parte, baita inudeek ere, beren ustezko praktika ez higienikoengatik, eta beren haurrei zegokien denbora ez eskaintzeagatik.

92 "Pediatría. Código de la madre", *Guipúzcoa Médica*, III. Urtea, 29. Bol: 241-249. or.

93 "Pediatría. Código de la madre", *Guipúzcoa Médica*, III. Urtea, 29. Bol: 241-249. or. Jatorrizkoan ere letra larriz.



3.2.3. *Euskal Erria*: euskal elite kulturalaren pentsakera

Euskal Erria aldizkari kulturala zen, oro har literaturari loturikoa. Interesgarria iruditu zaigu halako plazetan zabaltzen ziren iritziak zeintzuk ziren ezagutzea. Argitalpen hauek zabalkunde mugatua zuten baina garaiko elite kultural euskaltzaleak zer nolako iritzia zuen jakiteko balio dezakete. 1880an argitaratzen hasia, XX. mendeko zenbakiak begiratu ditugu. *Euskal Erria* aldizkaria euskaltzalea zen, nahiz eta gaztelaniazko idatziak nagusitzen ziren. Garaiko beste komunikabide askotan bezala, abiapuntu ideologikoa kasu askotan tradizionala bazen ere, nahitaez esparrua gizarte modernoa zen[94].

Aldizkari euskaltzalea izaki, zaila da bere nortasuna eta zabaltzen zituen ideiak sinplifikatzea. Tradizionalismo edo erromantizismotik abiatzen ziren idatziak argitaratu zituzten, besteak beste, historia edo emakumeen ikuspegi mitifikatua azpimarratu daitezke. Amaren figura da bertso eta idatzi gehienetan irudikaturik agertzen dena:

94 Díaz-Noci, Javier (1995): 18. or.

Andik aurrera berak
Erakutzi zidan
Jainkoari otoitzen
euskera garbiyan
eta euskaldun zarrak
oizuten neurriyan
zortzikua kantatzen
bere magalian
Arbolchua bezela
okertu ez nedin
nigatik egin zitun
amaika alegiñ;
ni bakarrikan nintzan
beretzat atzegiñ
ta nere atzekabiak
ematen ziyon min[95]

Ama, euskararen eta tradizio euskaldunen transmisore gisara irudikatzen dute hainbat bertso eta idatzietan *Euskal Erria*-n, gerora EAJ alderdi abertzaleak 30eko hamarkadan Emakume Abertzale Batzarekin egingo zuen bezala:

> *Dios vela por la conservación del pueblo éuskaro, fiel observador de la ley santa; Dios mismo, sí; y después de Él, o mejor dicho, inspirada por Él, la mujer bascongada. (...) La mujer bascongada es el verdadero tipo de la mujer fuerte (...). Hay en su corazón una mezcla extraña de ternura y de energía, de fortaleza y de sensibilidad imposible de describir. En su alma se aúnan en admirable consorcio el amor inconcebible de las matronas de Esparta y la exquisita delicadeza de sentimientos de una niña meridional. (...) La mujer aquí comparte el cultivo de las heredades, le ayuda en el penosísimo ejercicio de layar, lo que le exige un desarrollo de las fuerzas musculares que parece imposible en una mujer (...). Y todo esto sin desatender sus ocupaciones domésticas, que para todo encuentra tiempo esta mujer sublime, verdadero ángel de consuelo, paz y alegría de su hogar*[96].

Euskal emakumeak hamaika testuren objektu izan ziren aldizkarian. Testu horietan agertzen diren emakumeak, ordea, ez dira ilustrazioak bultzatzen zituenak bezalakoak. Emakume indartsua da ageri zaiguna, eta emakumeek egiten duten lan eskerga da duintasun iturria. Altonagak dioenez, Antzinako Erregimeneko elementu definitzaileak ez ziren egun batetik bestera desagertu, ideia berri eta ilustratuekin batera bizi izan ziren[97]. Halako testuetan ideien hibridazio hori atzematen dugu: otzantasuna eta fintasuna baino, ekintza eta indarra dira emakumeez goratzen dena, baina, horretaz gain, etxeko aingeru izatea ere bai.

95 Elizondo, José (1911): "Nere ama", *Euskal Erria*, 2. Zk: 589. or.

96 De Ormaeche, Ermelinda (1904): "La mujer bascongada", *Euskal Erria,* 1. Zk: 239. or.

97 Altonaga, Bakarne (2016): 19. or.

Aitzitik, ikus dezakegu ideal burgesek gizartearentzat proposatzen zuten ideiekin bat egiten zuten beste testu batzuk ere zabaldu zituztela:

> *El hombre y la mujer no pueden vivir del mismo modo; distinta es su naturaleza y distinto el fin para el que han nacido. (...) El hombre ha nacido para conquistar y dominar el mundo, ora en el campo de batalla entre el humo y el estruendo del cañón, dando la vida por su Patria; ora surcando embravecidos mares y arrastrando peligros sin cuento para arrebatar nuevos secretos a la Naturaleza; ora gastando su inteligencia en largas vigilias para resolver trascendentales problemas en provecho a la Humanidad, o bien encumbrándose a la cabeza de las sociedades para dictar leyes que rijan a los pueblos y hagan su perfección moral. (...) La mujer ha nacido para embellecer el mundo; no la busquéis atravesando ignotos mares, ni en los combates (...). Buscadla en el hogar siendo ángel de la paz y el amor, calmando con su cariño los dolores que las ilusiones perdidas traen a nuestra alma. En sus caricias consiste su imperio, todo se suaviza a su alrededor*[98].

Nieva Zardoya historialariak zioen ezer ez dela homogeneoa, "ideien munduan gutxiago, eta ezinezkoa hezur-mamizko pertsonen kasuan"[99]. Ideologiak edo pentsamoldeak ez dira iragazgaitzak edo estankoak, eta denbora pasa ahala eraginak jaso eta barneratzea saihestezina da. Higieneak protagonismo handia eduki zuen *Euskal Erria* aldizkarian ohitura aldaketak bultzatzeko, eta bide batez, gizartearen gaitzak alboratu eta biziberritzeko. Aipatzeko moduko testuen artean dago, Decorneti doktorearen Higienearen Dekalogoa[100], testu erlijiosoa bailitzan, hamar manamendutan *salbaziorako* praktikak ematen ditu aditzera.

Alkoholismoa, bere eraginak eta hori alboratzeko beharra behin eta berriz agertzen dira aldizkarian, tartean alkoholismoaren aurkako hogeita hamar puntuko manifestua. Aipatu bezala, gizarte erreformatzaileek eta medikuek gogor egin zuten langile xumeen artean bizi baldintzen ondorioz zabaldua zegoen alkohol kontsumoaren aurka[101]. Horregatik aldizkarian argitaratutako testuak gizonei zuzentzen zatzaizkien, gizontasun eredu bat proposatu eta bestea gaitzetsiz:

---

98 Delgado Castilla, A.: "Orientación de la educación intelectual de la mujer en relación con sus fines sociales", Granadako Sociedad Económica de Amigos del País erakundeak antolatutako literatur leihaketaren txapelduna, *Euskal Erria,* 1915, 2. Zk.: 418. or.

99 Nieva, Jose Luis (2013): 403. or.

100 "Decálogo de higiene", *Euskal Erria*, 1909, 1. Zk: 114-115. or.

101 Hirietan industrializazioa zabaltzearekin batera aisi eredu berriak zabaltzen hasi ziren, hala nola, futbola edota taberna. Komunitatea eratzen zen leku horietan. Baina lan baldintza kaskarrek, nekeak eta etorkizun lausoak alkoholismorako joerak handitu zituen langileengan, askotan, soldataren zati handi bat xahutzeraino. Aisi espazio horiek erabat maskulinoak ziren. Mozkortzea eta langileen gizontasun identitatearen parte bilakatzeraino (Llona, 2006).

DECÁLOGO DE LA HIGIENE

El formulado por el Dr. Decorneti, que ha sido agraciado con el premio Hachette, en París, es el siguiente:

Mandamiento 1.°

Higiene general.—Levántate temprano, acuéstate pronto y ocupa bien el día.

Mandamiento 2.°

Higiene respiratoria.—El agua y el pan sostienen la vida; pero el aire puro y el sol son indispensables á la salud.

Mandamiento 3.°

Higiene gastrointestinal.—La frugalidad y la sobriedad son el mejor elixir de larga vida.

Mandamiento 4.°

Higiene de la piel y de los orificios.—La limpieza preserva de la impureza; las máquinas mejor conservadas prestan más largo servicio.

Mandamiento 5.°

Higiene del sueño.—Suficiente reposo, repara y fortifica. Demasiado reposo, enerva y debilita.

Mandamiento 6.°

Higiene de vestir.—Vestirse bien quiere decir conservar el propio cuerpo con la libertad de los movimientos y el calor necesario, preservándolo de las bruscas variaciones de temperatura.

Mandamiento 7.°

Higiene de las habitaciones.—La casa bonita y alegre hace agradable el hogar.

Mandamiento 8.°

Higiene moral.—El espíritu reposa y adquiere perspicacia con las distracciones y las diversiones, mas el abuso de éstas lleva á la pasión y la pasión al vicio

Mandamiento 9.°

Higiene intelectual.—La alegría hace amar la vida y el amor á la vida es la mitad de la salud; al contrario, la tristeza y el descorazonamiento hacen avanzar la vejez.

Mandamiento 10.

Higiene profesional.—¿Vives del cerebro? No dejar aniquilarse los brazos y las piernas. ¿Te ganas la vida con el trabajo de tus brazos? No olvidar de ilustrar tu inteligencia y engrandecer tu pensamiento.

Higienismoa hamar manamendutan. (Iturria: *Euskal Erria*, 1909, 1. Zk., 114-115 or.)

El alcohólico es un ser despreciable a los ojos de la mujer, que ama en el hombre, el talento la virtud, el valor y el poder, los grandes atributos que hermosean el alma humana, no los vicios que afean y degradan. (...) Ningún vicio coloca al hombre en una situación de mayor inferioridad social que el alcoholismo. El hombre ebrio no es digno de conmiseración ni de piedad: en un ser profundamente despreciable por innoble.(...) La lucha antialcohólica es una obra de filantropía, de patriotismo y de suprema caridad[102].

Gizartea bizio txarretatik atera nahi zuen, zibilizatu, arrazionalizatu. Pasioak, alferkeria, olgeta... horiek arazo larriak ziren:

En esta época [gabonak] (...) parte de la especie humana se entrega con fruición casi salvaje al más grosero de los placeres sensuales, que es el vicio de la gula. (...) Se trata pues de un verdadero caso de regresión y de atavismo; porque claro es que al olvidar el hombre la parte espiritual de su doble naturaleza, equipara su vida a la de los pueblos primitivos e incultos, que todo subordinan a la satisfacción de los meros institos animales[103].

Lana duintasuna lortzeko bidea zen gizonentzat, familiaren sostengu ekonomikoa izatea. Besteengandik bizi baino, independente izateak zuen garrantzia pentsamendu liberalean. Eta eredu txarrena kalean zegoen: besteengandik bizi ziren eskaleak ziren.

El vagabundo vive a costa de los vecinos (...) la holganza le arrastra insensiblemente al camino de la delincuencia y sus vicios pervierten e infeccionan aun a los hombres honrados y laboriosos. (...) Donde se practica la beneficencia con limosnas, decae la población y aumentan los vicios. En cambio, el trabajo dignifica al hombre, convirtiendo al pordiosero en obrero. Renace la moralidad y el bienestar, se fortifica la raza, adquiere temple el espíritu y propaga la riqueza[104].

Behartsuek behar zutena lana zen, ez limosna, horrek utzikeriara eta bertan goxo bizitzera eramaten baitzien, besteen lanaren fruitutik bizitzera, alegia. Beraz, garrantzitsua izango zen "benetako" pobreen eta ustezko pobreen artean ondo bereiztea, azken horiek iruzurra egiten omen zutelako.

---

102 Razetti, L. (1908): "Contra el alcoholismo. Treinta aforismos de higiene y de moral", *Euskal Erria,* 1. Zk: 211-213. or.

103 Aurioles, M. G. (1906): "La higiene en navidad", *Euskal Erria:* 569. or.

104 "La mendicidad y la vagancia. Conferencias dadas en la Academia de Derecho y Ciencias Sociales de Bilbao" (1902): *Euskal Erria,* 2. Zk: 563. or.

> *El pobre que pide limosna (...) es digno de lástima, y merece ser socorrido. (...) Contra ese malestar profundo y enervador, se levanta y triunfa la fuerza de voluntad, la constancia de propósitos, la energía del genio, la fe del porvenir, el amor a la familia y el querer ser. (...) El mendigo por costumbre, el pobre desvergonzado, pide desde niño para morir pidiendo; nunca se sacia; y borracho, y pendenciero y ateo, y si la ocasión se presenta, ratero; avanza hasta el asesinato, con en cinismo por ocupación y la hipocresía por máscara*[105].

Gizonek lana, eta emakumeek etxeko *eginbeharrak*. Hori zen hitz batean aldizkari euskaltzalean errepikatzen ziren ideia nagusiak. Horretarako heziketa jasotzea garrantzitsua zen, emakumeak beste edozertan aritu ez zitezen:

> *Antes de lo superfluo se debe enseñar a la niña lo útil, necesario y práctico para la vida, lectura, escritura, cuentas y antes que primores, la confección y arreglo de sus propios vestidos y los de su familia, mucho aseo y economía doméstica, acostumbrarlas a que tengan amor al trabajo, orden en todo, y saber distribuir el tiempo y no malgastarlo en vanas frivolidades*[106].

3.2.4. *Aurrazkuntza Irakastia*: arraza hobetzeko gizartea (amak) heziz

Eusko Ikaskuntzak puerikulturari buruzko liburuxka argitaratu zuen. Entitate zientifiko-kulturala 1918an sortu zen, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako Diputazioen bultzadaz Oñatin egindako lehen kongresuan, euskal gizartean pil-pilean zeuden erronkei aurre egiteko asmoz[107]. Hasiera batean hizkuntza eta hezkuntzaren inguruko gaiak lantzea zen helburu nagusia, baina gerora osasungintzako gaiek ere bere lekua hartu zuten.

Aurrazkuntza irakastia – Cartilla de puericultura dokumentuan, Eusko Ikaskuntzak osasunaz, amatasunaz zein edoskitzeaz zuen ikuspuntuaren berri eduki dezakegu, eta hala, elite intelektual euskaldunak zer proposatzen zuen jakin. Pedro Gorrotxategi medikuak dioenez, 1919 eta 1923 tartean datatu daiteke *Aurrazkuntza Irakastia* dokumentua, Oñatiko kongresu ostean Madinabeitia doktoreak idatzi baitzuen Eusko Ikaskuntzarentzat, eta Madinabeitia 1923an hil zen[108].

Publikazio hura erabili zuten "egokitzat" jotzen zen edoskitze eredua zabaltzeko. Baina *Aurrazkuntza Irakastia* harago doan pentsamolde baten isla ere bada. Euskaraz

105 Prieto, M. "Falsos pobres" (1909): *Euskal Erria,* 1. Zk: 80-81. or.

106 Delgado Castilla, A. "Orientación de la educación intelectual de la mujer en relación con sus fines sociales", Granadako Sociedad Económica de Amigos del País erakundeak antolatutako literatur leihaketaren txapelduna, *Euskal Erria, 1916,* 1. Zk.: 25. or.

107 Gorrotxategi, Pedro (2003): 264. or.

108 Gorrotxategi, Pedro (2003): 264. or.



eta gazteleraz idatzia, ahalik eta jende gehienarengana iristea zuen helburu, eskatuz gero doan banatzeko egina baitzegoen.

Higienismoaren postulatu guztiekin bat egiten du Madinabeitiak. Medikuaren arabera, harrigarria zen euskal gizartean *gizona*[109] osasunaz serio –modu zientifikoan, alegia– ez arduratu izana, eta lotsagarria zen gai horren ardura petrikilo, sorgin eta aztien esku utzi izana. Euskaldunak, euren "arrazaz" harro egoteaz gain, hura endekatu eta gainbeheran etor ez zedin, higienearen –eta bere bi ahizpen, eugenesia eta puerikulturaren– eskutan egotea beharrezkoa zen. Higienearen "diktadoreen" menpe jartzea beharrezkoa zen Eusko Ikaskuntzarentzat, eufemismorik gabe.

Aurrazkuntza Irakastia, beraz, dekalogo bat da, 26 puntutan banatuta dagoena. Eugenesiaren aginduak oinarri hartuta, arrazaren hobekuntzaren aldeko ideiak aipatzen dira, norbanakoen hautaketa zilegiztatzen den bitartean. Moralki eta fisikoki onenak aukeratzea beharrezko jo zuten, bizitza kolektiboa egoki garatu zedin. Arraza indartsuen sekretua, higienean eta hautaketan baitzegoen haien ustetan. Eta herritarrak horretan lanean jartzea ezinbestekoa zen. Erreprodukzioa espeziearen biziraupenerako garrantzitsua zen, baina ezkontzeko baldintza nagusia osasuna zen. Higienea eta puerikultura hori bermatzeko moduak ziren.

109 Literalki utzi dugu, pentsamolde horrek zientziaren ardura gizonei egozten dielako.

Hezkuntzarekin ordea ez zen nahikoa, izan ere, hautaketaren beharra ere hor zegoen. Emakumeen egitekoa erreproduzitzeaz gain, haurrak zaindu eta edoskitzea zen. Zer egin, ordea, edoskitzeko ezintasuna zutenekin? Ez zen egokia horiek erreproduzitzea, ez zen egokia ahultasun hori zutenak ezkontzea.

Izan ere, animaliek esnea beren kumeei ematen zieten bezala, emakumeek ere eginbehar hori nahitaez egitea garrantzitsua zen. Liburuxkan azaltzen denez, edozein emakume indartsuk du edoskitzeko ahalmena eta oso arraroa da gaitasun hori ez izatea. Eusko Ikaskuntzak gogor salatzen du inudeengana jotzea, ama bezala egitekoa ez betetzea. Inudeak lotsagarriak dira herrialdearentzat, iraina, amek beren haurrak ez edoskitzea betikotu, hortik dirua lortu eta gainera, beren seme-alaben beharrak alboratzen dituztelako. Gogor ordaindu beharko dute, ordea, inudeek:

> *La mujer que abandona a su hijo por lactar a otro delinque y cae de lleno en un código penal, cuyos artículos no determina la Sociedad pero cuya penalidad estará de fijo determinada por Dios, con severísima pena"*[110].

Hemen, amek amatasuna bizitzeko duten modua salatzen da, epai moral bat da, alegia. Emakumeak errudun sentiarazteko bidetik doa *Aurrazkuntza Irakastia*, inudeen edoskitzea gaitzetsiz. Mediku edo ama biologikoaren behaketarik gabe haurra inudearen eskuetan uztea "inklusa batean uztea baino okerragoa" zen Eusko Ikaskuntzarentzat. Horrek argi erakusten digu bultzatu nahi zen balio moralen eskala zein zen: haurrak sehaska etxe batean abandonatzea okerrena zela ematen du aditzera testuak, eta etikoki parean jartzen dute norberaren haurrari bularra emateko aukera izanda, diruz ordaintzea erabakitzea.

Baina errealitatea hori zen, oraindik ere inudeengana jotzeko ohiturak bere horretan baitzirauen euskal gizartean. Horren testigu dira egunkari ezberdinetan aurki zitezkeen iragarkiak. *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikarrean, kasu, 1931n oraindik halakoak argitaratzen ziren, nahiz eta azken urteetan nabarmen jaitsi zen iragarki kopurua[111].

Honelako ideiak, baina, gutxika gizartean txertatzen joan ziren eta amek haur biologikoak edoski eta inudeengana ez jotzeko bidea hasi zuten. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak zabaldu zuen hazkuntza ereduan, edoskitze artifizialari tartea egin zioten, garaiotarako onarpen handiagoa lortu baitzuen edoskitzeko modu horrek. Inudeen industriaren gainbeheran eragin zuen beste ezaugarrietako bat izan zen hori.

110 *Cartilla de Puericultura-Aurrazkuntza irakastia*, 8. puntua.

111 *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-03-14, 15. or.

Edoskitzea –edo bere alternatiba nahiz osagarri bezala behi esnea–, egokia zen, ezinbestekoa agidanez, arrazak hobetzen jarrai zezan. Baina, edoskitzea eta zaintza bera, ezin ziren edozein modutan egin, formakuntza behar zuten amek. Hezkuntza horrek higienearen funtsen arabera egin behar ziren, hau da, modu zientifiko eta arrazionalean, Madinabeitia doktorearen ustetan. Horretarako, zientifikoen jarraibideen arabera aritzeari garrantzia ematen diote liburuxka honetan: amona, emagin, bizilagun eta gainontzeko jende "esperimentatuari" jaramonik ez egitea zen ama bati eman ahal zitzaion aholkurik onena. Gauzak honela, *Aurrazkuntza Irakastia*n agertzen dira edoski eta haurrak egoki hez zitezen kontuan hartu beharreko hainbat arau: elikaduraren garrantzia, haurrak egoki janztearen beharra, garbitasunaren beharra, haurrak gainean eraman baino, aulki batean eramateko aholkua, amaren bihotzak aurkakoa badio ere, haurrak aparte lo egitea onena dela, edoskitzeko eta bularra emateri uzteko aldiak, eta abar.

Edoskitzeaz gain, gutxika, haurra hezten joatea beharrezkoa zela aipatzen du liburuxkak. Hori, laztan, fereka eta samurtasunez egin behar zuten amek, eta ipurdiko, aurpegiratze eta garrasiak alboratuz, beti ere, egokia ez dena onartu gabe.

Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak, garaiko medikuek zein ideia zabaldu nahi zituzten jakiten laguntzen digu. Haurraren lehenengo urteari berebiziko garrantzia ematen diote, higienearen oinarriak jarraituz heriotza ugari saihestuko liratekeela baitiote. Haurraren heriotzaren errudun gurasoak egiten ditu liburuxkak, modu esplizituan. Aholku batzuk baliagarriak izan bazitezkeen ere, herritarren jakintza erabat gutxiesten zutela ikus dezakegu idatzi honen bitartez.

Bestalde, pentsalari eta zientzialari euskaldunek garaiko pentsamolde modernoak bere gain hartu eta zabaltzen saiatu zirela ikus dezakegu. Eugenesiaren ikusmoldea zeharo txertatua, euskal abertzaletasunaren ideiak indartzeko balio izan zuela dirudi, "euskal arrazaren" berezitasuna indartzen baitzuen. Eugenesiaren ideiak, ordea, ez ziren Euskal Herrian garatu, testuinguru orokorrago batean baizik. Arraza hobetuz gizartea hobetzea, hori omen zen degenerazioari aurre egiteko bitartekoa. Eusko Ikaskuntzak ideia horiek bereganatu eta geurera moldatu zituen, herri xehearen artean eman eta zabaldu asmoz.

3.3. ERREFORMA SOZIALAK GIPUZKOAN

Gipuzkoan, beste leku gehienetan bezalaxe, higienearen aldeko politikak eta babes erreforma zehatzak ezarri ziren. Lekuan leku, Erreforma Sozialen Batzorde Probintzialak sortu ziren, nekazari eta industriako langileen egoeraren azterketa sakona egiteko helburuz. Gipuzkoakoa 1883an eratu zen, baina oso erritmo motela izan zuen. Martínez Martínek uste du Gipuzkoako prekarietate eta beharrak beste lekuetan bezain larriak baldin baziren ere, moteltasun horretan zerikusia izan zutela langile mugimenduaren sendotasunak, antolaketak eta eragin mugatuak[112].

112 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 45-50. or.

Dena dela, Gipuzkoan erreforma sozialen proiektu ugari garatu ziren mendearen hasieran, Diputazio Probintzialari eta Aurrezki Kutxari lotuta batez ere. Ezin aipatu gabe utzi Tomás Balbás politikari liberala, Gipuzkoako erreformismoaren ordezkaria eta bultzatzaile nagusia. Balbásek zientzian eta garapenean sinesten zuen, eta erreformak herrialdea erregeneratzeko beharrezko zirela uste zuen. Kultura aldatzea beharrezkoa zen horretarako, eta hori lortzeko oinarria hezkuntza zen. Kultura ez zen beretzat irakurri eta idaztea soilik, aurrezteari eta aurreikuspenak egiteko gauza izateari ere garrantzia ematen zien eta, hori dela eta, Aurrezki Kutxaren sorrera bultzatu zuen –1896an ireki zituen ateak– gutxien zutenek "benefizentziatik bizi baino, buruaskiak izan zitezen"[113]. Horretaz gain alkoholismoaren aurka aritu zen, pobreen arteko gaitz larriena zela uste baitzuen; eta behartsuak, emakumeak eta haurrak babestearen alde egin zuen.

Higienismoak ohituren diziplina eta aldaketa proposatzen zuen, biztanleria zibilizatu beharra baitzegoen. Higienea "administrazioaren lehentasunezko helburua[114]" zela zioten garaiotan, eta herri xehearen ohiturak aldatzeko modu ezberdinak hautatu zituzten: arauak, kontrola, herrien ikuskaritza... Hori berma zedin, udal medikua honako hauek ikuskatzeaz arduratzen zen: uren eta hondakinen ebakuazio egokia, estolderien funtzionamendua gainbegiratzea –estolderiak zeuden lekuetan, leku guztietan ez baitzeuden–, etxe eta denden aireztapen egokia ikuskatzea, hilerrien inspekzioa, haragien kalitatea neurtzeko hiltegietako kontrola, elikagaien adulterazioa gainbegiratzea, ikuskizunetarako lekua, fondek eta ostatuek garbitasun baldintzak betetzen zituztela ziurtatzea, eta abar. Hernanin, baditugu agiri ugari herritarrek udalari zuzenduta: kexak, zabor pilaketak, usain txarrak, labaderoen funtzionamendu txarra, estolderia beharra... Horien aurrean, neurriak hartzeko eskatzen dute agirietan. Eguneroko ohituretan ere sartzen ziren higienea sustatzeko neurriak: 1920an herrian alfonbrak astintzeko ordutegia ezarri zuten. Debekuen bidea alde batetik, baina bestetik, sarien bidea jorratu zuten hainbat udalek. Baserri Eredugarrien txapelketak antolatu zituzten urteetan zehar[115], Diputazioak bultzatuta. Baserri Eredugarriak higiene arauak errespetatzen zituztenak ziren. Diputazioak eskaintzen zituen 25.000 pezetak eskuratu ahal izateko, baserria higienizatzeko proiektu bat aurkeztu beharra zegoen, eta proiektu egokiena –eta ekonomikoena– izaten zen irabazle. Baserriak higienizatzeaz gain, baserrietako jabeei "interes eta sentimendu humanitarioak" pizteko helburua zuen txapelketak.

113 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 215. or.

114 1903ko Osasun Batzorde Probintzialaren 19. zirkularra (HUA A-14-Lib. 3-Exp. 1).

115 Idem.

Gipuzkoan erreforma sozialei lotutako beste hainbat proiektu garatu ziren, horretarako Aurrezki Kutxak dirua jarri zuen hainbat instituzio zabaldu ahal izateko. Gure gaiari hertsiki loturik doan Donostiako Esne Tanta[116] irekitzearen alde egin zuen Tomás Balbásek, Aurrezki Kutxako Gizarte Ekintzaren finantzazioarekin. Instituzio hori Fraisoro Sehaska Etxeari lotuta egon zen hasieratik. Oraindik sehaska etxea ireki gabe, Fraisoroko nekazal eskolaren lurretan eraiki zen. Bertako zuzendaria Frantziako Estatuko hainbat tokitan izan zen hango Esne Tantak ezagutzen. Fraisoron esnea tratatzen hasi ziren bidaia horretatik bueltan, eta Donostiako San Antonio Abad Ospitalea hornitzen zuen. Hasiera batean, haur espositoentzako zen, baina behar zutena baino gehiago produzitzen zenez, erabaki zuten diruz larri zebiltzan familiei ere banatzea.

Donostiako Esne Tanta 1902an hasi zen funtzionatzen, irekiera ekitaldia 1903an egin bazen ere. Gerora, Aurrezki Kutxak finantzatuta San Martin azoka inguruan zegoen pabilioi batean ezarri zuten. Hango langileak Karitatearen Ahizpak ziren. Helburua esnea banatzea bazen ere, –honek paradoxikoa dirudien arren– emakumeak edoskitze biologikoa praktikatzera bultzatzea eta haiei prestakuntza ematea zen bere lehentasuna. Egunero haurra pisatzera joaten zirenean, medikua ama bakoitzari gerturatzen zitzaion, publikoki galdekatuak izan ohi ziren eta beste guztien aurrean aholkuak jasotzen zituzten[117]. Horretaz gain, bisitatzaile batzuek laguntza jasotzen zuten amen etxeetara joaten ziren, etxeko garbitasuna, haurren higienea eta abar ikuskatzera.

1900eko legeak emakumeentzat erditze osteko hiru asteko deskantsua arautu zuen. Esan bezala, hori ez zen betetzen, eta gerora garatu zen 1910eko Lehen Haurtzaroa eta Puerikulturari buruzko araudiarekin[118], Amatasun Kutxak sortu ziren, prebentzio moduan eta garai horretan amek dirua jaso zezaten. Gipuzkoan, Amatasun Mutualitateak bultzatu zituen Balbásek, 1904 inguruan; esan dezakegu garai goiztiarrean bultzatu zuela emakume langileen babesa. Emakume ezkongabeen egoera txarraren jakitun –kladestinoki asiloetara jotzen baitzuten–, emakume langileen babesa beharrezkoa zela zioen:

> *¿Cómo se puede imponer a mujeres de una modesta condición, cuyo salario es insuficiente generalmente, un descanso obligatorio en el momento en que la crisis maternal viene a agravar los apuros domésticos y a poner su presupuesto en desequilibrio, sin concederles, ya por un medio, ya por otro, una indemnización compensadora[119]?*

116 Gota de Leche.

117 "La gota de Leche en San Sebastián" (1909): *Pro-Infancia,* 5. Zk., 413. or IN Uribe-Etxeberria, Arantzazu: 1997, 169. or.

118 Laugarren atalean sakonduko dugu araudi honetan.

119 Balbás, Tomás (1904): 7. or.

Badirudi, emakumeen idealez gaindi, Batzorde Probintzialak ikuspegi errealistago baten jabe zirela, eta errealitate hori kontuan edukita proposatu zituztela erreformak:

> *El trabajo de la mujer en la capital y aún en estas provincias vascas, es muy activo y lo hacen con gusto y gran voluntad, dedicándose no sólo al privadamente casero, sino también a la industria y compraventa, para todos ellos son constantes, enérgicas e inteligentes; viéndose muchas familias sostenidas por los trabajos de las mujeres. Consecuencia de esto un relativo bienestar en la mayoría.*
>
> *En las clases artesanas, si no hay trabajo extraordinario por efecto de la mucha familia, se busca fuera. Si son grandes las necesidades, la mujer de estos países, hace esfuerzos extraordinarios en general para hallar trabajo donde lo encuentra, y a que lo tiene en casa o fuera, emplea en muchas ocasiones, horas que otras dedicarían al reposo o distracción, a aumentar las entradas en la familia*[120].

Europako eredu ezberdinei begira jarrita, politikariek egoera larri horien aurrean zerbait egiteko beharra azpimarratzen zuen Balbásek. Horretarako, beharrezkoa zen hautatzea, ekintzara pasatzea: "Asistentzia, edo mutualitatea, edo asegurua". Haurren heriotza goiztiarrari aurre egitekotan, halako neurriak hartu beharko ziren bere ustetan. Horregatik, benefizentzia eta karitatea alboratu gabe, ama eta haurrak babesteko beharra azpimarratzen zuen, legeen bitartez baina batez ere ohiturak aldatuz.

Baina bere proiektuak gerora ez zuen arrakastarik izan, "batzuen eta besteen apatiagatik (kargu publikoak eta ugazabak) eta interesatuen lankidetza ezagatik[121]". Eta erreformak erreforma, emakume langileek bere horretan jarraitu zuten: lanean. Haur bat edukitzen zuten emakumeen babesa 1923ra arte ez zen egoki antolatu, baina, benetako fruituak 1931ko Amatasun Aseguruarekin iritsi ziren, denbora gutxirako, ordea. Izan ere, garaiotan emakumeen lanaren inguruan asko idatzi eta pentsatu bazen ere, hori praktikan jartzea beste kontu bat zen. Mediku, erreformatzaile eta politikariek hainbat bide erabili zituzten legeak herritarrengana irits zitezen, adibidez, langile auzuneetan hitzaldiak antolatuz eta lege horietan deskantsurako eskubidea onartu zela jakinaraziz[122]. Hitzaldi horietan, emakumeek beren ama papera betetzeko eskubidea eta betebeharra zutela azpimarratzen zuten, haurren biziraupena soilik horrela bermatuko zelako. Dudarik gabeko aurrerapena zen emakume langileentzat deskantsuarena baina, luzera begira, emakumeen lekua etxean egotea zela irudika-

120 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 57. or.

121 Balbás, Tomás (1920) "Seguro de maternidad", *II. Congreso de Estudios Vascos*: 468-469. or IN Uribe-Etxeberria, Arantzazu: 1997, 171. or.

122 *La Voz de Guipúzcoa*, 1915-12-20, 2. or; 1915-12-22, 2. or.

tzen zuen, zoritxarrez. Luzera begirakoak, dudarik gabe, langile klaseko emakumeak etxetik kanpo lan egiten jarraitu baitzuten. Hernanin, badugu Haur eta Emakumeen Babeserako Legea urratzen zela dioen adibide bat. Hain zuzen ere, 1917an Royalta fabrikan 14 urtetik beherako haurrak baimendutakoa baino lanaldi luzeagoa egitera behartzen zituzten[123]. Lege berriak onartu arren errealitatea aldatzeko oraindik asko falta zen. Ugazaben eskuetan zegoen legea urratzea eta hori baimentzea, eta haur eta emakumeek ordainsari baxuenak zituztenez, interes ekonomikoak lehenesten zituzten. Familia askotan, bestalde, kide guztien lanetik lortutako ordainsaria beharrezkoa zen aurrera egin ahal izateko, bizirauteko.

123 Legeen arabera, 14 urtetik beherakoek goizean hiru ordu eta arratsaldean beste hiru orduko lanaldia egin zezaketen. (HUA F-Lib. 1-Exp. 10).

4.

INUDEAK BERE TESTUINGURUAN: edoskitzea, klasea, haur abandonatuak eta bete beharreko legeak

4.1. EDOSKITZEA ETA INUDEAK: HISTORIA GORABEHERATSU BAT

Edoskitzea haur jaio berrien biziraupena ziurtatzeko jarduera izan da historikoki. Zeregin horrek ezberdin eragin izan die emakumeei lekuan leku eta garai bakoitzean, kultura, klase sozial, sineste eta ohituren arabera[124]. Ondorioz, historian zehar, leku, momentu, kultura eta klase sozialaren arabera, haur jaioberrien amek edoskitzearen jardunean intentsitate ezberdinez parte hartu izan dute. Eta edoskitzeak berak gizarte edo komunitate bakoitzean prestigio gehiago edo gutxiago izan du.

Familiek, oro har, beren kideen zaintza sostengatu izan dute, baina edoskitzea ez da beti izan haurren ama biologikoek egin duten lana; batzuetan bularra emateko ezintasunagatik eta beste hainbatetan edoskitzeari uko egiteagatik. Klase altuetan ama biologikoek edoskitzeari uko egitea konstante bat izan da, eta beste emakume batzuen zerbitzuetara jo izan dute horretarako.

Antzinaroan, Grezia eta Erroman, legegile, filosofo zein agintariek ama biologikoen edoskitzea goraipatzen zuten[125]. Erdi Aroan, Europan, edoskitze mertzenarioa ohikoa

124 Hernandez Gamboa (2008) IN Martínez Sabater, Antonio: 2014, 6. or.

125 Colmenar, Carmen (2007): 342. or.

izan zen estratu nobleetan eta inudeen funtzioa beharrezkotzat eta ordezkaezintzat zuten. Maiz, haur jaioberriak landa eremuetara bidaltzen zituzten bertan inudeek bularra eman ziezaieten[126]. Izan ere, norberaren haurrari edoskitzen ez ematea bereizteko zeinu bat izan da historikoki klase dirudunentzat. Bularra ematea maila baxuko ekintza batekin parekatzen zen. Ohitura baldar, zakar eta lotsarik gabekotzat hartzen zen[127], eta beraz, edoskitzeari uko egitea klase soziala erakusteko modua zen –klase berekoei zein baxuagokoei–. Gainera, Lola Valverde historialariak azpimarratzen duenez, moralistek zalantzatan jartzen zuten amaren bularrek esnea isurtzen irauten zuten bitartean (urte eta erdi inguru) harreman sexualak edukitzea zilegi izan zitekeenik, esnea eten eta oinarrizko elikagairik gabe haurra hil zitekeelakoan. Moralista guztiek ez zuten iritzi bera baina denek aipatzen zuten arazoa. Senarrek, hortaz, edoskitzealdia sexu harremanik gabeko "nahigabeko" garaitzat zuten. Baita emakumeek ere, senarrak bere "beharrak" beste norbaitekin aseko zituen beldurragatik, Valverderen hitzetan[128].

Haurrari bularra ez ematea aristokraziari lotutako ohitura izan bada ere, gerora, ordaindu ahal zuten beste gizarte-taldeek –hots, hirietan lekua egin eta kapitala metatu eta aberasten hasi ziren burgesek– zerbitzu horiek kontratatzera jo izan zuten.

XIII. mendean jada Parisen Inudeen Ofizina ireki zen, hain zuzen ere, hiriko edoskitzearen merkatua kudeatzeko asmoarekin. Fenomenoa pixkanaka baina etenik gabe zabaltzen joan zen hirian, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar. Azkenerako Frantzia osoan barrena zabaldu zen ordain zezakeen orok zerbitzu horietara jotzea. Hirietako artisauek inudeen edoskitzeagatik ordaintzen zuten, horrela emakumeek lan egiten jarraitu baitzezaketen[129].

Hainbat ikerketak Ingalaterrako inudeen jardunaren eboluzioa aztertu dute. Dirudienez, Ingalaterran, XVI. mendetik aurrera, bizimoduari aurre egiteko eta bizibide bat lortzeko asmotan migratzea erabaki zuten gurasoen haurrak bizi zitezen, haur jaioberriei modu altruistan bularra ematea ohiko kontua izan zen. Komunitateek historikoki babestu dituzte beraien kideak eta hori bizirautea bermatzeko beste modu bat zen. Ahozko iturriek ere ziurtatzen digute praktika horiek denboran luzatu izan direla. Beraz, inudeen lana ez zen diru trukean egindako jarduera soilik izan, emakumeen arteko laguntza sareen parte ere izan zen; horrelako behar bat baldin bazegoen elkarren artean soluzioa eman ohi zitzaion.

126 Fides (1988) IN Martínez Sabater, Antonio: 2014, 19. or.

127 Badinter (1984): 73-78. or IN Valverde, Lola: 1994, 151. or.

128 Valverde, Lola (1994): 152. or.

129 Valverde, Lola (1994): 152. or.

Oro har, ordea, haur jaioberriari inude batek bularra ematea aristokraten usadioa zen. Dena dela, XVIII. menderako hirietan aberasten hasi ziren klase ertainetako familiak halako zerbitzuak kontratatzera jotzen hasi ziren, aristrokraten usadioak imitatu eta boterea erakutsi nahian[130]. XIX. mendean zehar lortu zuen hirietan diru trukean egiten zen edoskitzeak zabalpen handiena. Inudeek zerbitzu domestikoaren baitan garatu zuten haien jarduna, familia dirudunen haurrak zainduz.

Inudeak gizartean funtzio garrantzitsua betetzen zuten emakumeak ziren, haur jaioberriek beharrezko duten elikagaia ematea baitzen inudeen egitekoaren oinarria. Haur horien biziraupena eta garapena beraien esku zegoen, hein handi batean. Edoskitzea nork burutu behar zuen eta nork ez, historian zehar filosofikoki behin eta berriz eztabaidatua izan den gaia da.

Erdi Aroan edoskitze mertzenarioaren ohitura aristokraziako zeinu bezala ezarri eta zabalpen handia eduki zuenez, inudeen lana ezinbestekoa zela pentsatzen zuten. Halere, Errenazimenduan jadanik emakume kristauen egitekoa beren seme-alaba biologikoen edoskitzeaz arduratzea zela defendatzen zuten filosofo eta medikuek, baina, garai horietan inudeen lana aitortu eta inude onenak nola hauta zitzaketen aipatzen zuten medikuek. XVII. eta XVIII. mendeetan haur jaioberriek inude baten bularra jasotzearen albo-kalteez ere hitz egin zuten medikuek beren tratatuetan[131].

Ilustrazioak zeresan handia izan zuen edoskitzearen inguruan, ideia modernoak ezartzeko orduan haiek plazaratu eta publikatutako mezuek izan zuten garrantzi eta oihartzunagatik. Ilustratuek gizarte berri batez hitz egiten zutenean, emakumeak nolakoak izan behar ziren aipatu zuten, besteak beste. Eta, nola ez, edoskitzeak nolakoa izan behar zuen ere aipatu zuten. Ama biologikoen funtsezko eginbeharra zen bularra ematea, haien ustetan. Izan ere, ikusirik edoskitze mertzenarioak hirietan garrantzi gero eta handiagoa zuela, eta oraindik klasea erakusteko zeinutzat hartzen zela, hainbat argumentu eman zituzten edoskitze biologikoaren alde, diru trukean egiten zenaren aurka, alegia.

Finean, ilustratuek ama biologikoen edoskitzearen beharrezkotasuna defendatu zuten, haien ustetan emakumeen egiteko nagusia ama izatea zenez, ama egokia izateko ezinbestekoa zen beren haurrak zaintzea eta edoskitzea: biologikoa eta naturala, senetik egiten zen ekintza esentzial femeninoa, maitasunezkoa, ohiturazkoa, ardura historiko-soziala... Azken batean, emakumeen oinarrizko funtzioa zen, emakume on orok egin beharreko sakrifizioa. Argudioak indartu nahian, gainera, inudeak emakume egokiaren antonimotzat zeuzkaten: gaixotasunak transmititzen zituzten, diru trukean beren burua saltzen zuten eta ohitura txarrekoak ziren... Ilustratuek beraz, gako garrantzitsuak eman zituzten uler-

130 Bolufer, Mónica (1992): 4. or.

131 Colmenar, Carmen (2007): 343. or.



Fig. 6: "La terquedad", tira cómica de Rojas, en *Blanco y Negro,* marzo 1902.

ARENAL, 10:2; julio-diciembre 2003, 163-190

Inudeak ezjakinak zirelakoan, barregarri uzten zituzten mediku higienistek (Iturria: Morata, 2003: 174. or).



Fig. 11: Ilustración del texto "Niñerías", de E. Monturiol, en *Los Problemas de la Higiene,* febrero 1900.

Erdian, amatasun eredu egokiena. Ezkerrean inude ezjakina, eskubian, behartsua. (Iturria: Morata, 2003: 179. or).

tzeko gerora sakonago garatzen joan ziren edoskitze biologikoaren beharrezkotasunaren inguruko ideiak, eta baloratzeko inudeek zer rol zuten gizartean.

Baina ezin dugu ahaztu errealitatea bestelakoa zela: XVIII. eta batez ere, XIX. mendean, hirietan ohikoa zen, ordain zezaketenen artean, inudeen zerbitzuak kontratatzea. Denborak aurrera egin ahala, ordea, inudeen lanbidea desagertze progresiboan sartu zen amatasunaren esentzialismoaren zein higienismoaren zabalpenaren ondorioz, batetik, eta produktu berrien agerpenaren ondorioz –formulako esnea–, bestetik. Baina prozesu hori luzea izan zen, ohiturak eta bularra ematearen aurreiritziak hor baitzirauten klase altuetako emakumeen artean, eta inude bezala lan egiten zutenentzat bizibidea izan zen oraindik ere.

XX. mendearen hasieran emakumearen inguruko diskurtsoari ñabardura berriak gehitu zitzaizkion; horretan zientzialari eta batez ere medikuek esku hartu zuten: erreformatzaile sozial eta mediku askok haurren heriotza-tasa altuen arazoa jarri zuten mahai gainean. Hainbat pentsalari eta mediku higienistak, lotura garbia ikusten zuten heriotza-tasa altuaren eta haur jaioberriak etxetik kanpo heztearen artean. Besteak beste, arrazoi moraletara jo zuten hori salatzeko: beren haurren gaineko ardura saihesten zutenek, ez zuten amatasun rola egoki betetzen[132].

Amatasunaren ideal berrian, emakumeak bere dedikazio guztia zor zion ama izateari, eta noski, haur jaioberriari edoskitzen ematea hertsiki lotua zegoen rol horrekin. Hala, emakumea amatasunari lotua agertzen zen, baina, jada ez zen emakume pasiboa: amatasun aktibo, zientifiko eta arduratsua goratzen hasi ziren; etxeko lanak egiten ikasia, eta bere gain hartuz haurren zaintza osoa[133].

Sonia García Galán historiagileak 1913ko Londreseko Medikuntza Kongresuan aipatu ziren ideien berri ematen digu[134]. Bertan, Wallich doktoreak baieztatu zuen Pariseko haur asko eta asko –inudeek edoskitzen ematen zietenak– hil egiten zirela. Mediku guztiek gaitzetsi zituzten praktika horiek, inudeen zerbitzuetara jotzea errotik desagertu beharreko ohitura zela zioten. Batetik, amatasuna zalantzan jarri zuten, azpimarratuz edoskitzen ez zuena ez zela benetako ama, ama gisara jarduten zuena baizik. Hots, benetako ama izateko haurra zaindu eta hezi beharra zegoen. Bestetik, inudeak mespretxatu zituzten, esanez, edoskitzeagatik dirua irabazten zutenak ama arbuiagarriak zirela eta luxu, apeta eta erosotasunez inguratuta bizi zirela[135].

132 García Galán, Sonia (2015): 138. or.

133 Higienisten ikuspuntuaz ari gara, Maternologiaren zientziaz eta amatasunaren teknifikazioaz.

134 García Galán, Sonia (2015): 138. or.

135 Klase altuetako haurrei edoskitzen ematen eta zaintzen aritzen ziren inudeez ari ziren, noski.

Medikuntza Kongresu horretan, "arazoari" irtenbidea eman nahian, ama biologikoen edoskitzea sustatzea erabaki zuten, "arrazaren hobe beharrez"[136]. Bestalde, Esne Tanta bezala ezagunak ziren instituzioak bultzatzen saiatu ziren. Printzipioz, familia txiroei –edo inude bat ordaindu ezin zuten familiei– zeuden zuzenduak, familia horietako haurrak edoskitze artifizialaz elikatu eta beren biziraupena bermatzeko sortu baitziren. Dena dela, diru trukean ere jaso zitekeen esnea, eta beraz, esnerik ez zuten amek ere jo zezaketen Esne Tantetara. Behi esne tratatua banatzen zuten bertan, pasteurizatua.

Beraz, zientzialarien zentsura jasan zuten garai haietan inudeek eta haiek burutzen zuten lanak. XIX. mendetik zetorren diru-truke egindako edoskitzearen aurkako ideiek tradizio historiko bat etetea eragin zuen. Halere, XX. mendearen hasieran oraindik ere ohitura zen klase ertain eta altuetan halako zerbitzuak kontratatzea, orduan ere estatus ekonomiko eta sozial baten erakusle baitzen hori ordaindu ahal izatea eta lan hori beste norbaitek egitea[137].

Zerbitzu horiek ordaintzea posible zutenek soilik jotzen zuten halakora. Baina amatasuna nola bizi behar zuten eta zehazki zein pauta jarraitu behar zituzten... hori emakume guztiei erakutsi behar zitzaien, medikuen arabera; langile eta nekazariek beren haurrak hezteko moduak gaitzespena jasan zuten. Medikuntzatik zientzia berria sortu zen: maternologia eta puerikultura. Emakume hauek guztiek ezjakinak zirela esaten zuten medikuek, haurren heriotza-tasa altuen errudunak. Medikuntzatik, bada, edoskitzeko eredu zehatzak inposatu zituzten, kantitateak, ordutegiak eta abar arautuz. Maila apaletako emakumeak amatasun zientifiko eta efizientean hezi behar zituzten horretarako. Gainera, ezjakintasuna salatzeaz gain, emakumeen ohiturak zalantzan jartzen zituzten. Etxeetako eta arropetako higiene desegokia salatzen zuten, arropa tradizionalak alboratu beharreko jantziak zirela azpimarratu, elikagaiak prestatzeko modu txarrak aipatu eta nola ez, amak egoera desegoki horien errudun jo zituzten: amatasun zientifikoa ezartzeko premia larria zen medikuen iritziz.

Heziketan jarri zuten indarra erreformatzaileek. Mende hasieran, ohikoak izan ziren egunkarietan emakumeen edo amen sekzioak, non aholkuak ematen baitzituzten. Dena dela, mugatua zen testu horien zabalpena, arrazoi ekonomikoengatik soilik emakume batzuengana iristen zirelako, eta bestetik, oraindik emakume askok irakurtzen ere ez zekitelako. Ostera, formakuntzan jarri zuten indarra, prestakuntza batez ere medikuntzatik bideratuz. Aurreko atalean aipatu ditugun publikazioek helburu argi haur zuten, noski.

136 García Álvarez, Honorio (1929), "Al margen del hogar. Vulgarización médica de las madres", *El Comercio,* 1929-01-05 IN García Galán, Sonia: 2015, 141.

137 Revuelta, Barbara Ana (2011): 304. or.



Haurren osasunak iritzi publikoan lekua hartu zuen. Amak beren zaintzaleak ziren. (Iturria: *La Voz de Guipúzcoa*, 1915-1923).





4.2. INUDE GUZTIAK EZ DIRA BERDINAK: KLASEA

Inudeen lanaren funtsa diru truke bularra ematean oinarritzen zen. Dena dela, askotan ez zen soilik edoskitze aldira mugatzen zaintza lana. Bularra emateari utzi ondoren ere, maiz, inudeek eta haurrek elkar loturik jarraitzen zuten; inudeek haur baten –edo gehiagoren– zaintzaren ardura eduki zezakeen urte luzez.

Errealitate hori kontuan harturik, ondorengo sailkapena egiten du Manuel Cabrera Espinosak[138]. Batetik, *amas de leche* bezala definitzen dituenak leudeke. Hauek ordainsari baten truke beste norbaiten haurrei bularra ematen dieten emakumeak izango lirateke. Bestetik, *amas de cría* bezala ezagutzen zirenak egongo lirateke, hau da, jada bularrekoak ez ziren haurren zaintzaz arduratzen ziren inudeak lirateke hauek.

Bereizketa horrek laguntzen digu irudikatzen inudeen lanaren konplexutasuna. Alegia, ume jaioberri bati denbora labur batez lotu ahal zitzaizkion bezalaxe, urte asko iraun zezakeen zerbitzua eskaini ahal zutela inudeek. Egun batzuetako kontua izatetik, urte luzez iraungo zuen harremana izateraino. Beraz, esan dezakegu, inudeen lanaren oinarri eta ezaugarri nagusia edoskitzea bazen ere, bularra ematetik haratago zihoan zaintza lana burutzen zutela.

Cabrerak beste sailkapen bat gehitzen du, inudeen lanaren nolakotasunean sakontzeko balio diguna. Alde batetik, edoskitze "mertzenario" bezala definitzen duen jarduera legoke. Orain arte erabili dugun terminoa da hau. Klase sozial altuko familietako haurrei edoskitzen ematen zieten inudeena litzateke edoskitze hori. Beste alde batetik, sorospen edo laguntzazko edoskitzeaz hitz egiten du, hau da, haur esposito edo abandonatuei edoskitzen ematen zieten inudeez.

Definizio horrek inudeez dugun irudia zabaldu eta aberasteko balio digu: inude guztiak ez ziren klase sozial altuetako familietako haurrei bularra eman eta zaintzeaz arduratu.

Cabrerak hautatutako izendapen edo kategoriek bere mugak dituzte: inude askok haur espositoak zaindu zituzten, baina ez preseski sorospenagatik. Lan horren atzean behar ekonomikoak zeuden, eta hori zen lan hori egin zuten emakume horien nahia: emakume askori beste diru iturri bat ziurtatzen zion lana zen honakoa.

Horretaz gain, biologikoa ez zen haurrari bularra emateko beste arrazoi bat sailkapen honetan islatzen ez dena honakoa da: komunitate barruko elkartasuna. Historikoki emakumeek elkarri laguntzeko sareetan (familia, bizilagunak...) norbaitek

138 Cabrera, Manuel (2012): 7. or. / Euskaraz inudea, ama esnea edo hazama bezalako sinonimoek definitzen dute jardun hau. Hitz hauek ez dute aipatutako funtzio ezberdintasun horren nabardura islatzen. Euskaraz jaso ditugun hiru hitz horiek biologikoa ez den haur bati edoskitzen emateari egiten diote aipamen.



◁
Inude bat klase burges-altuko haur bat zaintzen, Donostian, 1920an. (Iturria: Kutxateka, Fotocar Kolekzioa).

Haur abandonatuak zaintzen zituzten emakumeek beste planta bat eduki ohi zuten. (Iturria: Kati Horna, 1937).
▽



bularra emateko zailtasunik bazuen –esnerik ez zuelako edota haurrari esnea emateko tarterik ez zuelako, lanagatik adibidez–, beste norbaitek egin zezakeen lan hori, haurraren ama biologikoa izan gabe ere.

Alabaina, kontzeptuak baliagarri izan daitezen, modu itxian ulertu baino, mintza gaitezen kontzeptu horiek ezkutatzen duten errealitateaz. Ezberdintasun nagusi bat dago definitu diren bi edoskitze mota horien artean, hau da, familia dirudunen haurrak zaintzearen eta haur espositoak zaintzen zituzten inudeen artean. Familia onenek, hitz batean, zerbitzu horiengatik gehien ordain zezaketenek, nahi zituzten inudeak aukeratu zitzaketen: itxura, osasun, garbitasun, izaera eta esne onenaren arabera, inudeak aukeratu edo baztertzen zituzten[139], diruak hautatzeko gaitasuna ematen baitzien. Hainbat zonaldetako inudeak ziren preziatuenak aukeraketa horretan: Vega de Paseko (Kantabria) inudeak ziren dirudunen kuttunenak, ondoren, kantabriarrak, euskaldunak, asturiarrak eta galiziarrak ziren baloratuenak, hurrenez hurren[140].

Aukeratuak ez ziren inudeek diru gutxiagogatik egiten zuten lana. Okerren ordaindua zegoen lana zen haur abandonatuak jasotzen zituzten instituzioetako haurrei edoskitzen ematea. Inude horiek udaletxe edo diputazioek kontratatuta egiten zuten lan. Emakume txiroenak ziren, beraz, inklusetako haurrei bularra ematen lan egiten zutenak. Beharrak estutzen duenean, diru sarrera bat ziurtatzea garrantzitsua da. Gehien behar zutenek ez zuten familia onetan lan egitea ahalbidetuko zien "itxura onik", beharrak larrituta eta baldintzatuta bizi baitziren. Haur espositoei bularra ematen zieten inudeek, estereotipo sozial negatiboa zuten, gainera[141]. Estereotipo horren arabera, haur espositoei bularra ematen zieten inudeak gizarte-jatorri baxukoak ziren: nekazariak, baliabide gabeak, gaizki elikatuak, formazio eskasekoak eta funtsean, ez ziren gomendagarriak[142].

Inudeen jatorri eta klaseak garrantzia zuen, beraz. Familia aberatsenetan inude "onenak" zeuden, etxeko beste zerbitzari baten gisa haur horren edoskitze eta zaintza lanetan. Inude horiek estatusa erakusteko zeinu sozial bat ziren hirietan aberastutako burgesentzat. Haurren jatorria ezezaguna zenean, haurrak abandonatuak zirenean, Diputazioak horien ardura hartzen zuen eta ongintzako erakunde batean sartzen zituen. Inudeak haur horien biziraupena ziurtatzeko giltzarri ziren.

139 Fernández; Roda (1998): 157. or.

140 Expósito, Raúl (2012).

141 Rodriguez Martín, A (2008) "El destino de los niños de la inclusa de Pontevedra, 1872-1903" IN Martínez Sabater, Antonio (2014): 25. or.

142 Fernández; Roda (1998): 155. or.

Finean, itxura hoberena zuten inudeek haur aberatsak hazten zituzten eta inude pobreenek, gizartean estigma handiagoa zutenek, haur abandonatuak. Hirietako burgesentzat inudea etxean edukitzea prestigio zeinu bat zen arren, haien haurrez arduratzen ziren inude horiek klase baxuko zerbitzariak besterik ez ziren. Hala ere, inude horien estatusa garrantzitsuagoa zen haur abandonatuez arduratzen ziren inudeena baino. Inude horiek pobreak ziren eta gainera, gizartearen lotsa zaintzeaz arduratzen ziren: haur abandonatu edo ilegitimoak, hots, ezkontzatik kanpo jaio ziren haurrak.

4.3. HAURREN ABANDONUA

Haur abandonatuei edoskitzen eman eta beren zaintzaz arduratu ziren inudeen errealitatea ezezaguna zaigu, historikoki aldakorra izan delako haurren abandonu tasa zein haur horien harira instituzioek izan duten parte hartzea eta ardura. Hori ezagutzeko, haur abandonatuen egoera nolakoa izan zen xehetasunez landuko dugu.

Erdi Arokoak dira haurren abandonuaren arazoari aurre egiten saiatu eta beren zaintzaz arduratu ziren lehenengo instituzioak. Europa katolikoan, Elizari lotutako instituzioak izan ziren eta beren helburua infantizidioa saihestea zen, beren zaintzaz arduratu ezin zutenek edo nahi ez zutenek haurrak hil ez zitzaten. XVIII. mendera arte haurrak abandonatzea etengabeko fenomenoa izan bazen ere, hainbat historialarik baieztatzen dute data horretara bitarte abandonu-tasak oso baxuak zirela[143], familia zabalek haur "ilegitimoak" –hots, ezkondu gabeko harremanetik sortutakoak– beren kideen artean hartzeko zuten ahalmenagatik[144]. Ilegitimotasun-tasak altuak izan baziren ere, horrek ez zuen haurren abandonu-tasa altu bat eragin[145].

Elizak bultzatu eta kudeatzen zituen instituzio horien helburua bataiatu gabeko haurren heriotza saihestea zen, eternitatean "linboan" egon behar izan ez zezaten. Bigarren helburua, haur ilegitimoaz erditu zen amaren ohorea salbatzea zen. XVIII. mendearen erdialdean tornuak zabaldu ziren helburu horiek betetzeko asmotan. Amaren "ohorea" babesteko eta anonimotasuna bermatzeko helburuarekin erabiltzen zen sistema zen tornuarena, eta horrelako sistemak zituzten etxeei tornu-etxeak esaten zitzaien. Bertako langileak erlijiosoak izan ohi ziren eta haiek arduratzen ziren haurrak lehenengo momentutik jasotzeaz. Tornuek zilindro forma zuten eta kalea eta tornu-etxearen barnealdea komunikatzen zituzten. Barrukoek ezin zuten ikusi nork uzten zuen haurra: umea kanpoaldean uztean haurraren pisuak kanpai baten soinua eragiten zuen, barruan zeuden langileak abisatuz. Zilindroa biratuz, barrukoek jaso zezaketen.

143 Valverde, Lola; Revuelta, Bárbara Ana.

144 Valverde, Lola (1994): 16, 114. or.

145 Valverde, Lola (1994): 101, 102. or.

Tornuak zabaldu eta instituzionalizatzearekin batera, haurren esposizioa[146] handitu egin zen. Haurrak halako lekuetan uztea ezohikoa zen ordura arte, eta klase apaleko herritarren artean zabaldu zen batez ere. Inklusak asistentzia instituzio gisara erabiltzen hasi ziren, egoera ekonomiko larriari aurre egiteko edo haur jaio berriari edoskitzea ziurtatu eta hala, bizirauteko beharrezko zuen elikadura eskaini ahal izateko. Baina askotan, lanagatik edota esnerik ez edukitzeagatik ezinezkoa zitzaien haur jaioberriari elikagaia ematea. Bularra emateko ezintasuna zuten ama horiek, klase xehekoak baziren, ez zuten beste emakume baten zerbitzuak ordaintzeko bitarteko ekonomikorik. Gauzak honela, Bárbara Ana Revuelta historialariak azpimarratzen duenez, instituzioei "erabilera ez tradizionala" ematen hasi zitzaien kapa sozial xehetako kideak: bikote ezkonduak haur legitimoak denboraldi baterako esposizioan jartzen hasi ziren[147].

Hainbat arrazoi egon zitezkeen haur jaioberriak instituzio horietan uzteko. Pobrezia eta desohoreaz haratago, fenomeno konplexua baitzen haurrak abandonatzearena. Hainbat historialarik "eskubide sentimenduez" hitz egiten dute, hau da, herri-klaseetako kideek inklusak asistentzia sozialerako instituzio gisara erabili izanaz. Eta gainera, kontrol erreproduktiborako ere erabili izan zirela azpimarratzen dute hainbatek[148]. Haurrak halako instituzio batean esposizioan ezartzeko arrazoiak anitzak izan zitezkeen, eta batak bestea elikatu zezakeen: emakume ezkongabe batek haur ilegitimoa izatearen presio soziala eta jazarpena saihesteko, bizirauteko familia estrategia gisara, miseriagatik edota horretarako eskubidea zutelako sentsazioagatik. Valverdek, gaur egungo begiradatik ihesi, aipatzen du haur jaioberriak instituzio batean abandonatzea erregulazio demografikorako modu ez biolento bat zela: esaten du gurasoek instituzio horietara jotzen zutela beraiek haurrari eman ezin zioten aukera beste nonbait lortzeko asmoarekin[149]. Izan ere, XIX. mendean Gipuzkoan delitutzat jotzen zen haur legitimo bat halako instituzio batean uztea. Haur legitimoak udalaren esku uztea moralki gaizki ikusita zegoen, inklusetarako bideratutako dirua beste haur batzuk babesteko baitzen[150]. Delitu hori bere gain hartu eta haur legitimoak bertan uzten zituzten guraso horiek, beraz, funtzio soziala ebatsi zieten instituzio horiei.

Azpimarratzekoa da emakumeen "ohorearen" gaia. Izan ere, modernizazioarekin batera eraiki zen emakume idealaren diskurtsoaren baitan bi emakume eredu ezarri ziren, sexualitateari zegokionez. Bata saihestu beharreko emakume eredua zen eta,

146 Haur espositoak, abandonatutako haurrak ziren. Haurrak esposatzeak esan nahi du, tornu batean edo haur abandonatuak jasotzeaz arduratzen zen instituzio batean haurra uzteak.

147 Revuelta, Barbara Ana (2011): 107. or.

148 Derosas; Tsuya (2010): "Child control as a Reproductive Strategy in Preindustrial Eurasia", 3-18. or. IN Revuelta, Barbara Ana (2011): 108. or.

149 Valverde, Lola (1994): 44. or.

150 Valverde, Lola (1994): 179. or.

bestea, berriz, jarraitu beharrekoa. Biak noski, kontrakotasunean ulertzen ziren, bata edo bestearen artean aukeratu beharra zegoen. Eva eta Mariaren irudiez ari gara. Evaren figura hainbatetan errepikatu zen testuinguru, idatzi eta dotrina katolikotan. Horietan guztietan emakumea bekatari eta gaitz guztien sortzaile bezala irudikatzen da. Aldiz, jarraitu beharreko eredua emakume onarena zen: emakume ona Maria birjina bezalakoa zen. Sexua soilik erreprodukziorako bitartekoa zen. Hortaz, ezkontzatik kanpo debekatua zegoen sexua. Emakume ezkongabeen ohorea birjintasunean zetzan. Kastitatea eta fideltasuna ziren emakume ezkonduen ezaugarriak. Sexua erreprodukzioaren baitan soilik ulertzen zen, bikote ezkonduen artean. Emakumeen sexualitatean, hobe esanda, sexualitate-ezan oinarritzen zen beren ohorea, eta are, familia guztiarena ere.

Ideia horretan du iturria, hain zuzen, haur legitimo eta ilegitimoen arteko bereizketak eta balorazio sozialak. Emakume ezkongabe batek haur ilegitimo bat edukitzea zorigaitza zen, hala familiarentzat nola bere buruarentzat. Lotsa eta jazarpena uxatzeko, haur ilegitimo hori baztertzea zen aterabide egokiena[151]. Esan dugun bezala, halere, hori estatu modernoen ezarpenaz geroztik baino ez zen nagusitu, eta XIX. mendean dimentsio oso handiak hartu zituen fenomenoa izatera heldu zen[152].

XX. mendearen lehenengo erdian ikusmolde hori izan zen nagusi oraindik, nahiz eta haurren eta haurtzaroaren babesaren eta garrantzi sozialaren ideia berriak ere nahastu ziren afera hretan, eta 20ko eta 30eko hamarkadetan emakume ezkongabeen haurrak onartzeko lehen urratsak egin ziren. Aldaketak gertatu ziren inklusetako politiketan, haur abandonatuak jasotzen ziren instituzioetan: tornua kendu eta inklusak Amatasun Etxe bihurtzen hasi ziren, horrela, amen egoera zibilaren araberako diskriminaziorik egin gabe, eta beharra zuen edozein emakume onartuz. Ezkongabeak bekataritzat ez hartzeko lehen pausua izan zen hori. Zabaltzen ari zen pentsamoldearen arabera, pertsonen beharrei estatuak erantzun behar zien, eta ez ziren karitatearen esku utzi behar[153].

151 Azpimarratu nahiko genuke, XVIII. mendeko lehen erdira arte ohikoa izan zen praktika bat: emakumeak haurra jaio eta hiru urte pasa arte, amak hala nahi izanez gero, haurraren kargu egiteko eska ziezaiokeen aitari. Oraindik ama eta haurraren arteko harremana mistifikatu gabe eta ama onaren ideala definitu gabe zegoen momentu hartan, aita zen semearen jabe. Lege eta pentsamolde berriekin, ordea, amek ardura osoa hartu behar izan zuten. Espainiako Kode Zibil berriarekin, aitaren ardura erreklamatzen zuten emakumeak emakume arduragabetzat zeuzkaten. (Valverde, Lola: 1994, 116-119. or.)

152 Valverde, Lola (1994): 52. or.

153 Aresti, Nerea (2001): 205. or.

> *Las Inclusas o Casas de Expósitos bien tenidas debieran hoy perder estos nombres y llamarse Casas Maternales, abiertas a todo niño que necesite madre y a toda madre que quiera criar a un niño; la mujer fue hecha para tener hijos y estos reclaman necesariamente a su madre, sin ella están obligadamente perdidos, por lo cual no se debe estigmatizar a la mujer desgraciada, sino al contrario, abrirle los brazos para que en los suyos salvadores pueda portar un niño*[154].

Inklusa gehienek amatasun gelak ireki zituzten, amak bertan erditu zitezen. 40 egun ondoren (berrogeialdia) joan egiten ziren, haurra bertan utzirik. Mende hasieran haurra eta ama banandu egiten zituzten jaio orduko. Gerora, bi hilabetez bertan egon eta haurrari edoskitzen ematea derrigorrezko bihurtu zen. Zer aldatu zen? Esan dugun bezala, amatasun eredua aldatu zen. Ama kontzienteak, haurraren heziketaz arduratzen zirenak, ziren imitatu beharreko eredua. Ama eta haurraren arteko lotura mitifikaturik, jada balio handiagoa zuten amak haurrarengatik egin zitzakeen sakrifizioek, gorputz eta arimaz aritzeak.

4.4. HAURREN BABESA JOPUNTUAN: MEKANISMO LEGALAK

Marko legalak inudeen lana eta bizimodua baldintzatu zuen. Administrazio eta instituzio publikoetatik XX. mendearen hastapenetan erreformismoaren lehenengo saiakerak egiten hasi zirenean eta Estatuaren esku hartzea arlo sozialera bideratu zenean, hainbat lege onartu ziren, besteak beste haur langileen babesa helburu zutenak –1878ko eta 1900eko legeak, zehazki–. Horien ildotik beste hainbat lege garatu ziren eta haurren babesa ardatz hartuta edoskitzea ere arautzen zuten.

1904ko Haurren Babesari buruzko Legeak haurren "osasun fisiko eta morala babestea" zuen helburu[155]. Horretarako Haurren Babeserako Kontseilu Gorena eratu zen, lekuan leku Batzorde Probintziala eta Batzorde Lokalak sortzea ekarri zuen horrek. Azken hauek udalerri edo barrutietako udalerri nagusi guztietan sortu ziren. Organo horiek edoskitze ez biologikoa gainbegiratzen zuten. Ikergai dugun kolektiboa erregulatu zuten, beraz, sehaska etxeetatik zetozen haurren edoskitzea, alegia. Batzorde Lokalen zeregina zen inudeek bere jarduna garatu ahal izateko eduki beharreko dokumentazioa ematea. Dokumentazio edo kartila hori gabe, inudeek ezin zuten legez aritu. Horretaz gain, Batzorde Lokalak edoskitze mertzenario bidez bularra jasotzen zuten haurren kontrola eraman behar zuten. Aldiro-aldiro, medikuen errebisioa pasa behar zuten horretarako. Horretaz gain, beren lana egokien egiten zuten inudeei

154 Diputación Provincial de Vizcaya (1933): *Memoria de la Junta Directiva de Expósitos de Vizcaya:* 4. or IN Aresti, Nerea: 2001, 207. or.

155 *Ley sobre protección a la infancia,* 1904-08-12.

sariak emateko baimena ematen zien legeak. Kaleko haur eskaleen jatorria ere ikertu beharko zuen batzorde horrek.

Inudeek, hortaz, batzordeari hainbat datu eman behar zizkioten inude bezala jarduteko baimena eskuratu ahal izateko: egoera zibila –ezkonduta zeudenek senarren baimena behar zuten–, osasun egoera, baldintza fisikoak, inudegaiearen haurraren jaiotze agiria... Inudearen haur biologikoak gutxienez 6 hilabete izan behar zituzten eta gehienez 10, inude bezala aritzeko baimena lortu ahal izateko. Hori hala ez balitz, ziurtagiri bat aurkeztu beharko zuten haurrari beste emakume batek edoskitzen ematen ziola adieraziz.

Gainera, inudeak kontratatzeaz arduratzen ziren agentziak irekitzeko alkateen baimena ezinbestekoa zen. Benefizentzia instituzioetako –sehaska etxeetako– zuzendariek haurren gorabeheren erregistroa eraman eta Kontseiluari azaldu behar zioten: hara iritsi ziren haurrak, jaso zituztenak, inudeen zaintzapean gelditu zirenak, hil zirenak...

Lege hori osatzeko asmoz beste batzuk onartu ziren hurrengo urteetan: haurdun zeuden emakumeen ingurukoak arautzeko, edoskitze mertzenarioa eta haurren zaintza erregulatzeko... Horretarako Batzorde orokorrak hainbat sail sortu zituen, besteak beste puerikultura eta lehenengo haurtzaroarena.

1908an, 1904ko legea osatzeko asmoz, Haurren Babeserako Araudia onartu zuten. Araudi honen helburuak hauek ziren besteak beste: haurdun zeuden emakumeen babesa, edoskitze mertzenarioa[156] eta horren zaintza arautzea[157]. Hainbat sail eratu ziren araudia betetzeko. Lekuan leku araudia bete zedin Haurren Babeserako Batzorde Lokalak eratu ziren eta hainbat kidek osatzen zuten: alkateak, apaizak, alkateak hautatutako mediku batek, lehen instantziako epaileak –edo bere ordez, udaltzainak–, irakasle batek, ama batek, aita batek eta langile batek. Edoskitze mertzenarioaren industria kontrolatzeko ahaleginak ere egin ziren: inudeak nortzuk ziren jakiteko erregistroari garrantzia eman zitzaion, baita inudeek beren lana nola egiten zuten gainbegiratzeari ere.

Lege honek proposatzen zuen kontrola, ordea, ez zen inudeen esparrura soilik mugatzen. Guraso biologikoak ere jo puntuan jarri zituzten, haurrei tratu txarrak ematen zizkieten gurasoak salatzeaz arduratu ziren. Azkenik, guraso edo inude bezala haurren zaintza egoki egiten zutenek domina jaso zezaketen: urrezkoa, zilarrezkoa edo brontzezkoa, garrantziaren arabera.

156 Kasu honetan, inudeek burutzen zuten haur abandonatuen edoskitzea.

157 *Reglamento para la protección a la infancia* (1908).

Beste lege baten bidez fabriketan Amatasun Kutxak sortzea onartu zen, erditu ostean atsedenerako denbora hartu eta soldata jaso ahal izan zezaten ama izan berriek. Haurdunaldia Amatasun Etxean pasatzea edota asistentzia erraztea eta haurren zaintza zorrotza egitea zen helburua. Egokitzat jotako portaera izatea eskatzen zitzaien emakumeei, haurrak "abnegazioarekin" zaintzen zutela demostratzea beharrezkoa zen, inudeei eskaintzen zitzaizkien "biziraupen primak" jasotzeko.

Bestalde, Espainiako Maternologia eta Puerikultura Institutu Nazionala sortu zuten garaiotan, "ohikoak diren axolagabekeriak saihesteko eta ezjakintasunaren ondorioz gertatzen diren haurren heriotza goiztiarrak eragozteko" helburuz. Ama eta inudeen hezkuntza bultzatu zen, erizain-haurtzain eskolak sortu, osasun inspektoreak izendatu eta oro har "inudeen industria" kontrolatzeko mekanismoak ezarri ziren.

1910eko araudiak gehiago sakontzen du erreformistek eta mediku higienistek bultzatu nahi zuten amatasun ereduan. Sortu berri zen Maternologia eta Puerikulturako Institutu horrek "higienea eta benefizentzia batuz, arrazaren erregenerazioa" zuen helburutzat[158]. Besteak beste, ama eta inudeen hezkuntza bultzatu nahi izan zuten, "ohikoak diren axolagabekeriak ekiditeko, ezjakintasunaren ondorioz gertatzen diren haurren heriotza goiztiarrak saihesteko". Gainera, erizain-haurtzain eskola bat eratzea emakume gazteenek haurrak higienikoki zaindu eta "elikaduraren artea" ikas zezaten eta "ekonomia domestikoaren eta abegikorraren oinarri praktikoak" ikas zitzaten.

Araudi honetan, amatasunaren eginbehar eta mugak zeintzuk ziren argi adierazi zuten, inoiz baina gehiago, amen eta inudeen kontrolari garrantzia handia emanez. Osasun inspektoreek arau hausteak salatuko zituen aurrerantzean eta Batzorde Lokalak hala erabakiz gero, soldatapeko bisitatzaile bat jartzeko aukera zabaldu zen. Bisitatzaile horiek adin nagusikoak eta ohitura onekoak izan behar ziren, eta puerikulturako jakintzak izan behar zituzten. Haien egitekoa zen ama eskaleak eta inudeen haurrak, sehaska etxeetako haur eta gaixoak eta umezurtzak kontrolatzea. Inudeen egunerokotasunean garrantzia eduki zuten bisitatzaile hauek.

Inudeek higiene egokiaren arauak ez ezagutzekotan, haurtzain titular bat formakuntza ematera joan zitekeen, inudeak hala eskatzen bazuen. Liburuxka batean inudeen jardunaren erregistro osoa jasotzen zen. Adibidez, haur bat hiltzen zenean, inudearen liburuxkan gertaera hori idatziz jaso behar zen. Finean, liburuxka inude lana egiteko dokumentazioa zen, hori gabe lanean aritzea debekatua zegoen eta kendu egin ziezaioketen, esne faltagatik, gaixotasun kutsakor bat izateagatik, haur bat osasun egoera kaskarrean sehaska etxera itzultzeagatik edota alkoholismo edo prostituzioan jardutegatik, besteak beste. Araudian zehazten zen inudeek ezin zutela euren

158 *Reglamento sobre Puericultura y Primera Infancia* (1910): 6. artikulua.

artean haur bat elkarren artean trukatu eta haurra itzuli nahi izatekotan, gutxienez bost eguneko aldearekin jakinarazi beharko zuen.

Lege guzti horien bitartez administrazioak mugak non ezarri nahi zituen jakiten laguntzen digute. Legeak errealitate berriak sortu eta erreproduzitzeko mekanismoak dira. Lege guzti hauek mediku higienisten iragazkiaren araberako haziera bultzatzen zuten: inudeak ikuskaritza baten kontrolpean zeuden jada.

5.

XX. MENDEAREN LEHEN ERDIKO INUDE GIPUZKOARREN ERREALITATEA

5.1. INUDEAK KONTROLPEAN, HAURRAK BABESPEAN[159]

Nolakoa zen haur abandonatuen kudeaketa gurean? Inudeek eta haurrek zer errealitate zuten Gipuzkoan? Eta Hernanin?

Gipuzkoari zegokionez –baita Bizkaiari zegokionez ere–, XVIII. mendean ez zegoen haur abandonatuak jaso eta zaintzeko instituziorik. Gipuzkoan jasotzen ziren abandonatutako haurrak Iruñeko Ospitale Orokorrera eraman ohi zituzten, elizbarruti berean baitzeuden. XIX. mendearen lehenengo erdian eraldaketak hasi ziren. Ordura arte haur espositoen asistentzia elizari lotutako karitatezko ekimen pribatuen ardura izan zen. Aipatu dugunez, erreformistek eta higienistek garrantzi berezia eman zioten haurren babesari, nazioaren etorkizuna zirelakoan eta nazioaren beraren aberastasun mailaren neurgailua ere bai. Eraldaketa asistentzial horren baitan, Estatua saiatu zen halako instituzioen ardura bere gain hartzen. Haur espositoen gaia kudeatu ahal izateko udal batzordeak eta batzorde parrokialak sortu ziren, adibidez.

Saiatu esan dugu, izan ere, hainbat autorek azpimarratzen duten gisan, Estatuak amatasuna sustatzeko legeak eta haur espositoen erregulazio espezifikoa garatu ba-

159 Aipatutako bibliografiaz gain, haur espositoen Araudiak (1900, 1910 eta 1916koak) izan dira gai hau garatu ahal izateko iturri nagusiak.

zituen ere, halako arazo handiari konponbiderik eman ezin zionez, ekimen pribatua –elizari lotua, orobat– zen oraindik eremu horretan nagusi[160].

XIX. mendean, beraz, hainbat aldaketa eman ziren haur espositoen inguruko kudeaketa instituzionalean. Gipuzkoan bost barruti osatu ziren espositoen laguntza antolatzeko asmotan: Tolosa, Donostia, Azkoitia, Azpeitia eta Arrasate ziren barruti horien buruak. Bost herri horietan tornu bana ezarri zen. 1844an probintziako espositoen araudi berria onartu zen eta Batzar Nagusiek Gipuzkoako Aldundiari haur espositoen gaiaren eskumena transferitu zioten. Araudian tornu-etxeetan aldaketak egitea onartu zen: bost beharrean, Gipuzkoa osoan lau egotea adostu zen. Hala, Azkoiti eta Arrasatekoak kendu eta Bergaran beste bat irekitzea onartu zen. García Magriñak azpimarratzen duenez, aldaketa horien zioa Gipuzkoa osoan barrena tornuak ireki eta herrialde osoan zabalduko zen inude sarea sortzea zen, inudeek gertuko tornuetan uzten ziren haurrak har zitzaten, ezezaguna zen norbaiti bularra emateak beldurra edo babes falta sortzen baitzuen; esan dugunez, gaixotasunaren mamua beti presente zegoen inudeen bizitzan[161]. Honela, inudeeak haur abandonatuak haztera bultzatu nahi izan zuten.

XX. mendearen hastapenera arte, Gipuzkoako haur abandonatuak Iruñeko inklusa edo sehaska etxera eramaten zituzten. Garaiotan Gipuzkoa aipatutako lau barrutietan zegoen banatua, zonalde bakoitzeko beharrak asetzeko tornu banarekin. Mende aldaketaren bueltan, ordea, Donostiako San Antonio Abad Ospitalean haur esposito asko jaso eta hiltzen zirela salatu zuen Galo Aristizabal bertako medikuak. 1899an diputatu talde batek salatu zuen haur eta inudeen osasuna alboratuta zegoela. Tomás Balbás politikari erreformista izan zen gerora konponbide bila hasi zena[162].

Konponbide moduan Fraisoroko Sehaska Etxea ireki zen 1903an, Zizurkilgo lurretan. Gipuzkoako haur espositoen aferari aterabidea eman, haur espositoen babesa ziurtatu eta haurrak jasotzeko asmotan ireki zen instituzioa. Erreferentzia egin diegun erreforma sozialen bultzadaren adibidetzat har dezakegu Fraisoroko Sehaska Etxearen irekiera[163].

Fraisoroko Sehaska Etxearen barne-antolaketari zegokionez, medikua zen hango zuzendaria eta ezinbestean bertatik pasa behar zen egunero. Fraisorora gerturatzen ziren inudeen errebisioa egiteaz ere arduratzen zen. Bere esanetara egon ohi ziren

160 Esteban, Mariano (2004): "Pobreza y asistencia social en la España de la Restauración": 28. or; (1992) "La asistencia liberal española: beneficencia pública y previsión particular": 123-125. or IN Revuelta, Bárbara Ana: 2011, 113. or.

161 García Magriña, Eva (2011): 25. or.

162 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 83-84. or.

163 García Magriña, Eva (2011): 26. or.



Fraisoro Sehaska Etxea (Iturria: Kutxateka).



Fraisoroko logelak (Iturria: Kutxateka).

inudeak, edoskitzeari buruzko jarraibideak berak ematen baitzituen. Berak erabakitzen zuen ere gaixo zeudenei zer nolako tratamendua eman behar zitzaien. Bestalde, Fraisoroko zuzendari espirituala kapilaua zen. Horrela, sakramentuak eman, eguneroko meza prestatu, kultu katolikoaren praktika elizkoiak behatu eta Fraisoroko kide guztien betebehar erlijiosoak egiaztatzeko funtzioa zuen honek. Azkenik, mojen esku zeuden gainerako egiteko guztiak: medikuaren aginduak betetzen zirela ziurtatu behar zuten, etxearen administrazioa eraman, bertakoentzako asistentzia bermatu –arropa lortu, mantendu eta garbituz, besteak beste– eta, azkenik, barnean lan egiten zuten inudeen jarduna gertutik kontrolatu behar zuten.

Fraisoroko Sehaska Etxea artean ireki gabe zegoela, Gipuzkoako Diputazioak Probintziako Gobernu Batzorde bat eratu zuen haur espositoen afera kudeatzeko. Tornuak zeuden lau barrutietan Barrutietako Batzordeak antolatu ziren, barruti bakoitzeko diputatu probintzialek eta barruti horietako herri nagusietako alkateek eta parrokoek osatuta. Batzorde horretako presidente zein bokalek bisitatzaile funtzioa txandakatu behar zuten, barrutiko guztietako tornu-etxeen kontrola eramateko. Funtzio horretaz salbuetsita zeuden bai Diputazioko presidentea eta Batzorde Probintzialeko presidenteordea edo bokala. Horretaz gain Batzorde Lokalekin harreman zuzena eduki behar zuten, haur espositoen gorabeheren berri izateko. Hilabeteko lehen sei egunetan barruti hartako tornura iritsitako haur guztien erregistroaren berri eman eta hiru hilabetean behin kontuak eman behar zizkioten Probintziako Batzordeari.

Tornuen sinplifikazioarekin administrazioa ere sinpletu egin zen. 1910etik aurrera, Gipuzkoako espositoen Batzorde Probintzialak hartu zuen sehaska etxearen eta tornu-etxearen gaineko kontrola, bisitatzaileen figura ordezkatuz. Gainera, udalerri bakoitzean Espositoen Batzorde Lokalak sortu ziren. Alkateak, parrokoak, mediku titularrak eta "batzordeak egoki ikusten zuen kantitatearen araberako" emakume talde batek osatzen zuten Batzordea. Bere egitekoak honako hauek ziren: haurren babeserako neurriak aplikatzea eta udalerrian jarduten zuten inudeak kontrolatzea, haurrek beharrezko zaintza jasotzen zutela eta elizara eta eskolara bidaltzen zituztela bermatzea, administrazioari jakinaraztea tratu txarrak jasotzen zituzten edo arretarik gabe eta moralki abandonatuak zeuden haurren egoera, eta haurren bizimodua hobetzeko neurriak gomendatzea. Batzordeko kideek beren artean banatu ohi zuten behatzeko lana. Bisitatzaile papera betetzeko, beraz, batzordeko kideen artean banatzen zituzten inudeak, beren etxeetara joan eta bertako egoera ikuskatzeko.

Fraisoroko ateak 1903an ireki zirenean, hortaz, lau tornu zeuden Gipuzkoan: Donostia, Tolosa, Bergara eta Azpeitikoa. 1910etik aurrera, ordea, soilik tornuak Donostia eta Tolosako tornuak mantendu ziren. Horietaz gain, Fraisoro Sehaska Etxeko tornuan bertan utz zitzaketen gurasoek beren haurrak.

Tornu-etxeetan, lehenik, haurrak jaso bezain pronto garbitu, arropak aldatu eta erregistro liburuan izena ematen zieten mojek, ordena korrelatiboan zenbaki bat eza-

rriz. Bestalde, haurrak bataioa hartu ote zuen jakitea ezinbestekoa zen. Hori jakin ahal izateko, erregistro zibilera zein bataio partidetara jotzen zuten, haurra bataiaturik ote zegoen ziurtatzeko.

Tornuan mojek egiten zuten errekonozimenduaren baitan, haurra identifikatu ahal izateko zeinuak bilatzen zituzten. Batzuetan, gurasoek haurrari jarri beharreko izena idazten zuten paper zati batean, eta nahi hori betetzeko agindua zuten tornu-etxeko langileek. Bestela administrazioak erabakitzen zituen haurraren izen-abizenak, betiere, abizenen kasuan inguru hartan ohikoak ziren bi abizen jarri ohi zituztela. Asmoa haurraren esposito izaera ezkutatzea zen, bere "ohorea" jokoan baitzegoen. Ohorea babesteko beste neurri bat ere hartzen zuten tornu-etxeetan: aipatu dugun erregistro liburua, haur espositoaren izen-abizenak eta identifikazio zenbakia zituena, isilpekoa zen.

Tornu-etxeetan haurraren erregistroa eta garbiketa egin ondoren, Fraisorora eramaten zituzten segidan. Iritsi bezain pronto, ama nagusiak haurrak identifikatu ahal izateko lepoko bat ezarri eta bertako erregistroan izena ematen zion. Esan dugunez, haurrek bataioa jasotzea ezinbestekoa zen, eta beraz, bataiatu gabe iristen ziren haurrak bataiatzen zituen Fraisoroko kapilauak, berehala.

Haurraren erregistroan zehar jaiotza dokumentuetan haur legitimoa zela ageriko balitz, edo haurra ilegitimo errekonozitua zela ageriko balitz, legez bere ardura zegokionari itzuliko zitzaion haurra, zaintza-obligazioa betearazteko. Honek garrantzi berezia du, soilik haur espositoentzat erreserbatutako instituzio gisara definitu baitziren tornu-etxea eta Fraisoroko Sehaska Etxea. Administrazioarentzat lehentasuna zen iruzurra saihestea: haur legitimoek ez zuten lekurik bertan.

Ohoreak ez ezik, klaseak ere batzuen eraginik haurren abandonuaren fenomenoan. Maiz, haur bat gehiago munduratzea arazoa zen eta familia oso baten biziraupena edo ekonomia kolokan jar zezakeen. Hargatik, iruzurrera jotzen zuten familia batzuek, ezkontza barruan jaio ziren haur legitimoak abandonatuz. Instituzio hauetan, ordea, haur legitimoen abandonua ez zegoen onartua.

5.1.1. Barruko inudeak: deshoreaz ihesi. Errua eta obedientzia derrigorrezkoak direnean

Haur abandonatuei bularra ematen zieten inudeek beren jarduna bi lekutan garatu zezaketen: sehaska etxe barruan edo sehaska etxetik kanpo. Horren arabera, sailkapena argia zen: barruko eta kanpoko inudeak zeuden.

Barruko inudeek sehaska etxean eskaini ohi zituzten beren zerbitzuak. Oro har, emakume ezkongabeak ziren, sehaska etxean erditu zirenak. Bertako medikuek erditzen lagundu eta diru-laguntza bat eman ohi zieten. Ezkontzaz kanpoko harreman batetik jaiotako haurra, hau da, legitimoa ez zen haur bat erditzearen presio sozial eta lotsari ihes egiteko eta erditzeak berak zekartzan gastuei aurre egiteko asmoz gertura-

tzen ziren instituzio horietara emakumeak. Oinarrizko betebeharra bete beharko zuten trukean: Amatasun Etxean gutxienez bi hilabetez gelditu behar izaten zuten, haur erditu berriari bularra ematen. Bi hilabeteak igaro ondoren, emakume asko sehaska etxean gelditzen ziren langile bezala, etxera eta herrira itzultzean jasango zuten errepresioaren beldur[164]. Bertako langile izateaz gain, esnea zutenek, askotan beste haur abandonatu bati ere ematen zieten bularra[165]. Barruko inudeen funtzio garrantzitsuena abandonatu berritan sehaska etxera iritsi ziren haurrei lehenengo momentu horretan bularra ematea zen.

Sehaska etxean erditu zuten emakumeek derrigor bi hilabetez haurrari edoskitzen ematea zen arau garrantzitsuetako bat, amak haurrari zor zion gutxienekoa hori zela pentsatzen zelako. Baina hori bera zen emakume askok saihestu nahi izaten zutena; haurra ahaztu eta aurrera egin nahi zutelako, agian. Hainbatetan aipatu dugunez, garai hartan presente zegoen arau soziala argia zen: emakume baten funtzio garrantzitsuena ama izatea zen. Erreprodukziora laburbiltzen zen sexualitate eredu horretan, haurrak ezkontzatik jaio behar ziren eta ez beste inola. Hargatik, ezkongabe haurrak edukitzen zituzten emakumeak sozialki baztertuak, gutxietsiak eta jazarriak zeuden. Sehaska etxeak haur guzti horiek jasotzeko helburua zuen.

Fraisorora inude sartzeko, baldintza batzuk bete behar zituzten. Inude izateko medikuak ziurtatu behar zuen errekonozimendua eta beharrezko ziren jarrera eta baldintzak betetzen zituela. Onarpena lortu ostean, medikuak egokitzat jotzen zituen beste edozein proba egitera behartuta zeuden barruko inudeak.

Norberaren garbitasunaz eta arropen eta logelen garbiketaz arduratzen ziren inudeak. Otordu, jolasaldi eta lo orduak errespetatzea derrigorrezkoa zen eta behar bezalako ordena gordetzea, diskretuak izatea eta eginbehar erlijiosoak betetzea ere bai. Horretaz gain, haurrei edoskitzen egoki emateaz, beren garbitasunaz, arropak josteaz eta mediku-zuzendariaren zein gainerako langileen esanak betetzeaz ere arduratu behar zuten.

Barruko inudeen soldatak goranzko joera eduki zuen XX. mendean. Horretaz gain, barruko inude bezala beren zerbitzuak eskaintzen urtebete betetzen zutenean, esker on bezala, soineko bat jasotzen zuten opari.

164 García Magriña, Eva (2011): 91. or.

165 Valverde, Lola (1990): 237. or.

5. TAULA: GIPUZKOAKO BARRUKO INUDEEN HILABETEKAKO SOLDATAK, 1900-1941[166]:

URTEA	1900	1910	1926	1930	1941
PZT/HIL	30	40	50	60	75

Baina, arduragabe jokatzen bazuten, haurrekin zabarrak baziren, garbitasunarekin ganoragabeak baziren, nagusiei errespetua galtzen bazieten eta liskarrak eragiten bazituzten, inudeek hainbat zigor jaso zitzaketen: errepresio pribatua, errepresio publikoa edo sehaska etxetik kaleratzea izan zitezkeen ondorioak.

Valverderen ustez, gakoa da ulertzea XIX. mendetik aurrera sehaska etxeen kudeaketaren ardura Karitatearen Ahizpek hartu zutenez geroztik aldaketak gertatu zirela: isiltasuna eta errezoak sehaska etxeetan ohiko bihurtu ziren, "bide okerretik" zebiltzan emakumeak beren jarrera eta bizimoduak zuzentzeko metodo bezala erabiltzen zituzten biak ala biak[167]. Araudia aztertuta, ikusten dugu zer jokamolde espero zen inudeengandik: arauei men egitean oinarritutako obedientzia behartua, ezarritakoaren aurkakotzat jotzen zen edozein keinu edo zantzuren jazarpena, errepresio publiko zein pribatuak dakarren umiliazioa eta asexualitate behartua. Hori zen, dirudienez, emakume hauek merezi zuten penitentzia, ezkongabe haurrak erditzearen bekatuaren barkazioa jasotzeko jasan beharreko gurutzebidea.

- Amatasun behartuari iheska

Ezkontzaz kanpo haur ilegitimo bat eduki zuen emakume batentzat gizartearen erdeinua eragingo zuen haurra sortzea gogorra zen. Are gogorragoa Fraisoron mespretxu sozialetik ihesi eta bertan haurra eduki ondoren bi hilabetez derrigorrez haurra zaintzen egon behar izatea. Izan ere, amatasun behartua bultzatzen zuen Fraisoroko Sehaska Etxeak derrigortutako bi edoskitze hilabete horietan zehar.

1925eko eskutitz baten bitartez dakigu Fraisoroko Sehaska Etxeko administrariak kexu zirela. Haurren babeserako sortutako instituzio hartan gero eta haur gehiago jasotzen zituzten bitartean, eta inudeek gero eta soldata altuagoa zuten arren, inude askok "iruzurra egin" eta derrigorrezko edoskitze-aldia saihesten zutela zioten eskutiz hartan[168]. Urte hartako maiatzean, 29 haur jaso ziren Fraisoron –Gipuzkoan esposi-

166 *Iturria: Reglamento general de expósitos para la Provincia de Guipúzcoa*, 1900, 1910, 1916 eta García Magriña, Eva: 2011, 93. or.

167 Valverde, Lola (1990): 238. or.; (1994): 163. or.

168 GAO, JD-IT 1414/1537.


toen zerbitzua ezarri zenetik izandako kopuru altuena– eta gehienak Donostiako San Antonio Abad Ospitaletik zetozen.

Zer zen bada gertatzen zena? Haur ilegitimoa erditzera emakumeak Fraisorora joan beharrean, Donostiako Ospitalera joaten hasi zirela. Horrela haurra sortu bezain pronto abandonatu eta Fraisorora bideratzen zutela baitzekiten. Horrela, Fraisoron arautua zegoen bi hilabeteko edoskitze-aldia bete behar izateari muzin egiten zioten. Hargatik oraintxe geniona: emakume batzuek jaioberria erditu bezain pronto haurra ahaztu nahi izaten zuten, derrigorrezko bi hilabetetako lotura hori eten eta egoera gainditzeko.

Eskutitz honetan, Fraisorokoek haurren bizitzaren defentsaz hitz egiten zuten eta hainbat estatistika aipatzen zituzten. Eskutitzean aipatutako datuen arabera, haur jaio berriei ez bazieten edoskitzen ematen beren ama biologikoek, eta ondorioz, edoskitze mertzenario bitartez elikatu behar baziren, haurren heriotza arriskuak gora egiten zuen. Beraz, Donostiako Ospitalean ama ezkongaberik ez onartzeko eskatu zuten Fraisorotik, eta han norbait agertuko balitz, Fraisoroko Amatasun Etxera bildaltzeko eskatu zieten, Fraisoron ama baten "betebehar ederrena bete zezaten"; norberaren haurra edoskitzea, alegia.

Aipatu bezala, XX. mendeko lehenengo hamarkadetan haur ilegitimoen zilegitasun soziala onartzeko prozesu luzea hasi zen. Instituzio publikoek ilegitimotasunari aurre egin nahi izan zioten, haurren babesaren eta beren balio sozialaren garrantziaren ideiak bultzatuta; horretarako, gizarteak eta amek beren ardura hartzea sustatu zuten. Testuinguru horretan ulertzen dugu haur horien iritsieraz Fraisorotik atsekabea adieraztea. Izan ere, instituzio hartan hainbeste haurren zaintza bermatzeko arazoak zeuden, haur ugari jasotzen ziren bitartean, inude gabezia begien bistako arazoa baitzen. Gauzak honela, ama biologikoen gain jarri nahi zuten haur horien ardura; Donostiako ospitaleetan haurrak erditu eta bertan utzi baino, hobesten zuten emakumeak ezinbestean behartzea Amatasun Etxean erditzera eta bertan gutxienez haurraren lehengo bi hilabeteetan bularra ematera derrigortzea, horrela emakume horiek beren ama-sena garatuko zutelakoan. Baina instituzioek ideia hauek bultzatu nahi izateak ez du esan nahi garaiotan gizartea oraindik prest zegoenik ilegitismotasunean haur bat izateak sortzen zuen desohorea onartzeko. Izan ere, ohoreak pisu handia zuenez abandonu kopurua zen horren handia.

Eskutiz honetan argi ikusten dugu, XX. mendearen lehenengo herenean haurren abandonuak fenomenoa izaten jarraitzen zuela, ohoreak indar handia zuela, instituzioetatik amatasun biologiko eta esentzialista bultzatzen saiatzen jarraitzen zutela eta inudeek gizartean paper garrantzitsua betetzen zutela.



JUNTA PROVINCIAL DE EXPÓSITOS
DE
GUIPÚZCOA

DIPUTACIÓN PROVINCIAL DE GUIPÚZCOA
7 JUL 1925
REGISTRO DE ENTRADA

Ilmo. Sr.:

El crecido número de niñosexpósitos que ingresan en la Casa Cuna de Fraisoro por una parte,y por otra,la escasez de nodrizas internas,encargadas de su lactancia,han planteado a esta Junta problemas de dificil solución que hasta el presente han podido resolverse elevando en diversas ocasiones la remuneracion que se concede tanto a aquellas como a las externas que los recogen para criarlos en sus hogares.

En el curso del año actual, apesar de los esfuerzos que se realizan por el señor Médico Director y la Superiora de la Casa Cuna para conseguir y retener nodrizas internas y de haberse elevado recientemente la remuneración de las externas, sube en forma alarmente el número de niños y disminuye el de las nodrizas, con la triste perspectiva de tener que recurrir a la lactancia artificial que causa estragos en estos desgraciados seres,que vienen mas necesitados que los de legitima unión de la lactancia materna,porque como es bien sabido,nacen, en general, por las circunstancias que concurren en su gestación,más débiles que éstos.

Durante el mes de Mayo último han ingresado en la Casa Cuna 29 niños,número que no ha llegado a registrarse ni aproximadamente desde que se halla implantado el servicio de expósitos en la Provincia.

El mayor contingente procede del Hospital de esta Capital, donde acuden con preferencia las embarazadas, quizás por las restricciones que para su admisión en la Casa de Maternidad de Fraisoro opone el Reglamento de la misma y acaso tambien para no verse obligadas a amamantar a sus propios hijos,durante los dos primeros meses, eludiendo asi el mas sagrado y primordial deber de una madre.

Ahora bien, con el régimen seguido hasta la fecha con las

Fraisorotik Gipuzkoako Espositoen Batzordera bidalitako eskutitza.
(Iturria: GAO, JD-IT 1414/15379).

5.1.2. Kanpoko inudeak: bizirauteko estrategiak zaintzatik

Sehaska etxetik kanpo beren jarduna garatzen zuten inudeak ziren kanpokoak. Kanpoko inudeen profila bestelakoa zen; inude horien nolakotasunetan sakonduz, XX. mende hasierako Hernaniko inudeen errealitatera gerturatu ahal izango gara.

Kanpoko inudeek beren etxeetan egiten zuten lan, beren etxeetan arduratzen ziren jaso zuten haurraren edoskitze eta zainketaz. Kanpoko inudeak inklusetako ardatz nagusiak ziren; haurrak instituzio hauetara iritsi orduko kanpoko inude baten zaintzapean jartzen saiatzea zelako helburu nagusia. Instituzioetatik saiatzen ziren haur espositoak hirietatik kanpo bizi ziren inudeen zaintzapean jartzen, nekazaritza edo landa ingurunean, haurrentzat onuragarriena zelakoan. Gainera, epe ertainera familia horretan txertatzeko aukera izango zuten etxean jasotako haur horiek, beharrezkoa zen lan guztietan lagunduko zutelako. Hirian, kontrara, nagusitu orduko ofizio bat bilatu beharko zitzaien.

a) Kanpoko inudeen perfil orokorra

Etengabekoa zen inude beharra Fraisoroko Sehaska Etxean eta eskaintzen zituzten soldata eskasak behar gorria zuten inudeak erakartzen zituen soilik lan mota horrek. Bi egoera zeuden emakume bat kanpoko inude bezala aritzeko: batzuetan erditu ostean haur jaioberria hil egiten bazen, eta larritasun ekonomikoa handia bazen, ama horiek inude sartzen ziren, bularrean zuten esneari probetxua ateratzeko[169]. Beste batzuetan, haur jaioberriari bularra emateko esnea soberan zutela ikusi eta ondorioztatuta, haur esposito bat hartzen zuten berari ere edoskitzen emateko eta horrela, dirua lortzeko[170]. Pobrezia edo miseria egoeran zeuden inudeak ziren:

> *Salvo algunas excepciones, las nodrizas de la inclusa o son de constitución poco robusta, o padecen algún achaque que puede transmitirse con la leche, o debiendo al vicio ser madres, y al crimen no tener hijos, envenenan a la vez el cuero y el alma de la mísera criatura que amamantan... La Beneficencia retribuye a las nodrizas con un salario que suele ser la mitad del que ganan en las casas particulares, el resultado no es dificil de prever*[171].

Ezkonduak edo alargunak izan ohi ziren, nekazaritza ingurunean bizi eta lan egiten zutenak eta umeak zituztenak. Inude gisa sehaska etxeko haurrei edoskitzen eman ahal izateko, hainbat ziren bete beharreko baldintzak eta aurkeztu beharreko doku-

169 Rodríguez Martín, Ana María (2009): 74. or.

170 Valverde, Lola (1994): 156. or.

171 Arenal, Concepción (1861): *La beneficencia, la filantropía y la caridad* IN Rodríguez Martín, Ana María: 2009, 69. or.

mentu ofizialak: nahitaez ezkonduta egon behar zuten emakumeek, 20 eta 40 urte bitartean izan, bizitza eta ohitura onekoak izan behar zuten eta, noski, senarraren baimena behar zuten jarduna burutu ahal izateko. Esnearen jarioa gehienez urtebetekoa izan zitekeen eta bere haurra hil edo bizirik zegoen jakitea ezinbestekoa zen. Bizirik egotekotan, gutxienez 7 hilabete eta gehienez 12 eduki zitzakeen haurrak. Hori ziurtatu egin behar zen dokumentu ofizialak aurkeztuz: haurren jaiotza partidaren ziurtagiria eman behar zen eta hilik egonez gero, heriotza data zehaztu. Udal medikuak bestalde, agiri bat sinatu behar zuen inudegaiak edoskitzeko ahalmena zuela, txertoak emanda zituela eta gaixotasunik ez zeukala zioena.

b) Kanpoko inudeen betebeharrak

Baldintza horiek betetzen zituzten emakumeek printzipioz inude bezala jardun zezaketen Gipuzkoako Diputazioarentzat. Lehentasunez haurra jada edoskitzen ez zuten emakumeei edo 7 hilabetetik gorako seme-alaba zutenei emango zitzaien haurra[172]. Izan ere, teorian ezohiko kasuetan baino ez zitzaion haur bat baino gehiago emango inude berari. Dena dela, hori araudiak zioena da. Aipatu dugun moduan eta dokumentuek ziurtatzen dutenez, Diputazioak edo sehaska etxeak inudeen beharra etengabekoa zuen, hortaz, uste dugu baldintza zorrotz horiek samurragoak zirela errealitatean. Jarraian ikusiko dugunez, gainera, aldi berean haur baten baino gehiagoren kargu egitea ez zen hain ezohikoa.

Araudien arabera, inudeek beren haurrak izango balira bezala zaindu behar zituzten etxean hartutako haur espositoak, "zegokien maitasun eta arretaz". Beren zaintzaz arduratzea, arazorik ezkutatu gabe, egoki edoskitzea, haurren garbitasuna mantentzea, elikatzea, beharrezko arropa, aterpea eta babesa ematea, haurrak ondo kontrolatzea, kolpe eta tratu txarrik ez ematea eta eredu txarrik ez ematea derrigorrezkoa zen, eta aitzitik, diru eskean ibili edo haurra horretarako erabiltzea debekatua zegoen. Haurra gaixotuko balitz, udal medikuari lehenbailehen jakinarazteko betebeharra zeukaten inudeek, eta baita haurdun gelditzen baziren ere. Medikuak emandako aholku zein jarraibide higienikoak aplikatu behar zituzten inudeek eta beren etxeetara Batzorde Lokaletako bisitatzaileak joaten zirenean, egoki hartu eta begirunez tratatu beharko zituzten. Zaintzapean zituzten haur espositoen guraso biologikoengana haurra eramatea debekatuta zegoen, eta gurasoak nortzuk ziren jakitekotan, administrazioari jakinarazi behar zioten.

172 Kontraesankorra badirudi ere, araudian bertan aipatzen zen hau: derrigorrezkoa zen inudeak haurrik bazuen gutxienez 7 hilabete edukitzea. Eta horretaz gain *lehentasunez* 7 hilabetetik gorako seme-alabak zituzten inudeei emango zitzaizkien haurrak. Honek aditzera ematen du teorian derrigorrezkoa zena batzuetan hautazkoa izan zitekeela, inude beharraren arabera, alegia.



Administrazioak inudeak kontrolpean eduki ohi zituen. (Iturria: Kati Horna, 1937).

c) Kanpoko inudeen gaineko kontrola

Kanpoko inudeen kasuan, barruko inudeekin gertatzen zen bezalaxe, haurren babesa ziurtatzeko autoritatea ondo markatzea beharrezkotzat jo zuen administrazioak. Herrietan inudeak zorrotz gainbegiratu zituztela esan dezakegu. Autoritate hori bikoitza zen: batetik eta nagusiki medikuak ziren paper garrantzitsuena jokatzen zutenak, inudeak gertutik kontrolatu, eta bide batez, amatasunean hezteko forma berri horiek barnerarazi zizkieten. Bestalde, bisitatzaileen figurak betetzen zuen bigarren autoritate-papera. Bisitatzaileak, administrazioaren ordezkariak ziren. Araudian bisitatzaileak begirunez tratatzeko betebeharra esplizitatu behar izateak adierazten digu, noizean behin etxean hartu beharreko administrazioaren ordezkari horiek inudeen etxe eta espazio propioan sartzean arrotz eta agintari ikusten zituztela bisitatzaile

zaindari horiek: pentsatzekoa da etsaitasuna sor zezakeela inudeengan kanpotik beren lana, bizimodua eta egoera ekonomikoa baloratzera etxera sartzen zirenak.

Izan ere, haur baten edoskitze eta zaintza inude bati esleitzeko azken hitza Batzorde Lokalek zeukaten, haur hori bera kendu edo beste batengatik aldatzea administrazioaren esku zegoen bezalaxe. Hori egiteko, administrazioak ez zuen zertan zergatirik azaldu eta inudeek ez zuten aurka egiteko ahalmenik.

Inudeak kontrolpean edukitzea garrantzitsua zen. Horregatik, 1910etik aurrera, haurrak ezin ziren probintziatik atera Diputazioaren baimenik gabe, ezta gerora haurraren zaintza formalizatu eta familiako kide bihurtzen zirenean ere.

Inudeak kontrolpean edukitzeko mekanismo nagusia haurraren kartila zen. Inude batek haurraren zaintzaren ardura hartzen zuenean, jardun guztia haur horren kartilan erregistratzen joaten zen. Kartila horiek gorriak ziren mutilentzat eta urdinak neskentzat. Bertan haurraren izena, identifikazio zenbakia –tornu-etxera edo sehaska etxera iristean ezarri zitzaiona–, adina, inudearen izena, helbidea eta haurraren zaintza hartu zuen data azaltzen ziren. Bestalde, hantxe erregistratuko zituen medikuak inudeari emandako aginduak edo parteak, parrokoak emandako ziurtagiriak, bisitatzaileek haur eta inudearen inguruan egindako oharrak zein hiru hilabetean behin egindako kobrantzen ziurtagiri-zigiluak.

d) Inudeak: Diputazioaren menpeko langileak. Lan baldintzak:

Inudeek hiru hilero kobratzen zuten Diputazioaren ordainsaria, haurrak zaintzearen truke. Udaletxera joan behar zuten jasotzera, eta ezinbestekoa zen aipatu dugun kartila eramatea, baita haurra bera ere. Horretaz gain, medikuen errebisioen ziurtagiriak eta apaizaren ziurtagiria ere eraman behar zituzten. Apaizaren dokumentuak haurra bizirik zegoela erakusteko balio zuen. Ordainketak haurraren adinaren arabera ezberdinak ziren, haur txikienak zainduz diru sarrera handiagoa poltsikoratzen baitzen.

1900 eta 1910 artean, ordainsariek ez zuten igoerarik izan. 1916ra arte, haurrak 7 urtez egon zitezkeen inudeekin eta euren familiarekin bizitzen, euren zaintzapean.

6. TAULA: KANPOKO INUDEEN HILABETEKAKO SOLDATAK, 1900-1910[173]:

1- 12 HILABETE	12-18 HILABETE	18 HILABETE-4 URTE	4-7 URTE
20 pta/hil	15 pta/hil	0,40 eguneko (12 pta/hil)	0,20 eguneko (6 pta/hil)

173 Iturria: *Reglamento general de expósitos para la Provincia de Guipúzcoa*, 1900, 1910.

1916tik aurrera, ordea, gehienez sei urtez mantendu ahalko ziren haurrak beren etxeetan Diputazioaren soldatapean. Horretaz gain, ordainsariak gorantz egiten hasi ziren, baita adin tarteak eta horiengatik ordaindu beharrekoa zehazten ere. Diputazioak ordainsaria igotzera jo zuen, inude eskasia zela-eta, erakartzeko modua izan zitekeelakoan.

7. TAULA: BARRUKO INUDEEN HILABETEKAKO SOLDATAK, 1916-1940[174]:

	URTEA			
ADINA	1916	1925	1930	1940
1 – 18 hilabete	25 pta/hil	37,5 pta/hil	45 pta/hil	45 pta/hil
18 – 24 hilabete	25 pta/hil	30 pta/hil	30 pta/hil	30 pta/hil
2 – 3 urte	15 pta/hil	22,5 pta/hil	22,5 pta/hil	22,5 pta/hil
3 – 4 urte	15 pta/hil	15 pta/hil	15 pta/hil	15 pta/hil
4 – 5 urte	12 pta/hil	12 pta/hil	12 pta/hil	12 pta/hil
5 – 6 urte	10 pta/hil	10 pta/hil	10 pta/hil	10 pta/hil

Ikus daitekeenez, Diputazioarentzako lan egiten zuten inude guztien soldatek gora egin zuten mendeak aurrera egin ahala. Soldata igoera handienak haur jaioberrien zaintzarengatik lortzen zituzten inudeek. Aitzitik, 3 urte baino gehiago zituzten haurren zaintzaren trukean jasotako diru-sarrera urtez urte igoerarik gabe mantendu zen.

Soldaten igoera garaiko lanpostu guztien joera orokorra izan zen. Soldatek gora egin izanak, ordea, ez zuen ezinbestean lan baldintzen hobekuntza ekarri. Batetik, kontuan hartu behar da 1919an ezarri zela 8 orduko lanaldia, ordura arte 10 eta 11 ordu artekoa baitzen[175]. Beraz, ordu gutxiagogatik soldata handiagoa jasotzea lortu zuten langileek. Baina, bestetik, inflazioa kontuan hartzea ezinbestekoa da soldata igoera horien mugak azaleratzeko, langileen kontsumorako aukerei gogor eragin baitzien horrek guztiak. Lehenengo Mundu Gerraren testuinguruan diruak balio galera handia izan zuen, prezioen garestitzearen ondorioz. 1915 eta 1920 artean prezioak % 100 baino gehiago igo

174 Iturria: *Reglamento general de expósitos para la Provincia de Guipúzcoa*, 1916 eta García Magriña, 2011: 85. or.

175 Iturbe, Ander (1994): 231. or. Honek ez du esan nahi noski, langile guztiak zortzi orduko lanaldiak egiten hasi zirenik. Legeak mugak non zeuden adierazten ditu, ez ordea, errealitate osoa. Aparteko orduak, etxeko lanak eta merkatu informalean egiten zen lan guztia kontuan hartu beharrekoak dira.

ziren, aldiz, 1920 eta 1923 bitartean % 26 jaitsi ziren[176]. Urte horietan, beraz, soldatak igotzen hasi baziren ere, prezioak are gehiago igo ziren eta gainera, diruak balioa galdu zuen. 30eko hamarkadan, krisiak langileen kontsumo aukerak mugatu zituen, eta jarraian 1936ko gerra eta gerraoste gogor eta zaila etorri ziren. Soldaten gorazko joera berresten duten datuek, inudeen soldak alderatzeko balio digute:

8. TAULA: SOLDATEN BATEZ BESTEKO BILAKAERA ESPAINIAKO ESTATUAN, PEZETA/EGUNEKO, 1900-1940[177]:

	1908
Industria / Fabriketako langileak	84,5 (G) 59,8 (E) 42,38 (haurrak)
Ofizioetako langileak	74,88 (G)
Nekazariak	81,38 (G) 61,88 (E) 35,88 (haurrak)

	1913	1925	1930	1935	1940
Errementariak	97,5	208	225,68	253,76	315,64
Igeltseroak	97,5	226,72	243,62	268,06	310,7
Arotzak	110,5	222,56	235,3	253,5	307,58
Papergileak	84,5	218,4 (G) 99,58 (E)	227,24 (G) 106,6 (E)	243,36 (G) 110,24 (E)	317,2 (G) 144,56 (E)
Harginak	100,36	235,3	244,4	268,84	311,22
Metalurgiako langileak	110,5	248,3	255,84	248,44	355,16
Jostunak	32,5	93,6	99,84	114,14	147,68
Nekazariak (jornalariak)	84,5	165,36 (G) 82,16 (E)	176,8 (G) 91 (E)	199,42 (G) 154,96 (E)	269,62 (G) 15496 (E)

G: gizonak; E: emakumeak.

176 Pérez Castroviejo, Pedro M. (2006): 111. or.

177 Iturriak: 1908 eta 1913ko datuetarako: Iturbe, Ander (1994). 1925-1940ko datuetarako: www.ine.es. Datuak eguneko/pezetatik hilabeteko/pezetara itzultzea: autore honena (Irizpidea: 26 lan egun/hilabeteko).

Soldaten taulak kontuan hartuta, haur abandonatuen inude lana, beste lanbide guztiekin alderatuta, soldata txarrena jasotzen zuen lanetako bat zela. Fabriketako langileen eta arotzen soldatak dira altuenak, beste muturrean jornalari bezala lan egiten zuten nekazari eta jostunak zeudelarik. Emakume eta gizonen soldatak bereizita agertzen dira, emakumeek –eta haurrek– soldata baxuenak jasotzen zituzten, eta hori ez da kasualitatea, genero desberdintasun politiken eragina baizik. Emakumeak nagusi ziren lana jostunena zen, eta hori zen gaizkien ordainduta zegoen lana, hain justu. Diru sarreren aldetik, 5, 6, 7 eta 8. taulak alderaturik, jostun gisa lan egitea errentagarriagoa zen inude jardutea baino, bai soldata aldetik eta agian baita denbora aldetik ere, haur jaioberriak zaintzen zituzten inudeen kasuan batez ere.

Horregatik guztiagatik diogu, ez zela posible bizirauteko lan estrategia bakar bezala inudetzan aritzea. Inudeen lana ezinbestean biziraupenerako estrategia zabalago baten baitan kokatzen zen beste diru sarrera bat gehiago zen, halabeharrez.

Inudeen errealitatera itzuliz, 6 eta 7. taulan aipatutako ordainsarietz gain, inudeek 25 pezetako gehigarria jasotzen zuten haurrak urtebete eta lau urte betetzen zituenean. Esan dezakegu haurrak zaintzapean eta bizirik edukitzea zela saritzen zena, baina horri ematen zitzaion balioa, dirutan behintzat, txikia zela. Lehentasuna, haurraren garai ahulenean –jaioberritan, alegia– haiei edoskitzen emateko inudeak lortzea zen, eta beraz, haiek zaintzeagatik ordaintzen zen diru gehien. Haurrak gero eta handiagoak, orduan eta diru sarrera txikiagoa jasoko zuten inudeek. Honi gainera, 1916an 7 urtetik 6 urterako adin jaitsiera gehitu zioten. Diputazioak haur hori bere kargu edukitzetik familien kargu nahi zuen, haurraren kostua ezabatzeko asmoz.

Haurren heriotza saihestea zen administrazioa gehien kezkatzen zuen aferetako bat. Medikuek arreta eskaintzen zieten inudeei, baina garaiotan oraindik handia zen haurra hiltzeko aukera. Haurra hiltzekotan berehala herriko parrokoari gertakariaren berri ematea obligazioa zen inudeentzat eta hori bera haurraren kartilan grabatuta gelditzen zen, data zehatza idazten zelarik.

Haurrak gaixotu edo hiltzen baziren, Diputazioak ez zion inudeari heriotza horrek sorturiko gastuekin laguntzen. Gastu horiek ordaintzeko laguntza jasotzeko izena inudeak eman beharko zuen herriko behartsuen erroldan, haur bat bere kargu hartzen zuenean, medikuaren zerbitzuak zein botikak doan jaso ahal izateko, adibidez. Haurra hiltzen zenean, herriko parrokoak doan ematen zuen meza kasu horretan.

Baina zer gertatzen zen haur horiekin legezko 6 edo 7 urte horiek bete ostean? Edoskitze eta zaintza aldia amaitzen zenean, haurrak familiako kide bihur zitezkeen, “prohijazioa” izeneko prozeduraren bitartez. Inudeek zuten tramite hori burutzeko eskubidea, eta lehentasuna ematen zitzaien haurrak 6 edo 7 urteak betetzerakoan haien zaintzaileak zirenei. Haurrak adin hori bete baino lehenago, hiru urterekin administraziotik inudeei prohijatzea proposatzen zieten. Honek lehenago aipatu dugun kostuen

aferarekin dauka lotura. Haurra hiru urte bete baino lehenago prohijatzen bazuten, ondorengo urteetako soldatak aurreztu ahalko zituen Diputazioak. Ondorioz, Diputazioak nahiago zuen haurrak ahalik eta azkarren familia batean txertatzea: haurraren hobe beharra bilatzen zutela ukatu gabe, argi dago zergati ekonomiko bat ere bazegoela atzean, prohijatzeagatik familiek jasotzen zuten ordainsariak erakusten duenez:


9. TAULA: PROHIJATZEAN FAMILIEK JASOTZEN ZITUZTEN ORDAINSARIAK, 1916 BAINO LEHEN ETA ONDOREN[178]:

1916 arte		1916tik aurrera	
2 urte baino gutxiago	150 pta	2 urte baino gutxiago	150 pta
2 – 4 urte	100 pta	2 – 4 urte	100 pta
7 urte baino gutxiago	70 pta	6 urte baino gutxiago	75 pta: 50 pta metalikoan, 25 Aurrezki Kutxako kontuan
7 urte beste ostean	50 pta		

Prohijazioa formalizatzeko beharrezkoa zen herriko alkateak eta parrokoak sinatutako hainbat ziurtagiri aurkeztea. Ziurtagiri horretan inudeek ondorengo ezaugarriak betetzen zituztela adierazten zuten alkate zein apaizak: adin nagusikoa izatea, ezkondua egotea edo alarguna izatea, inudearen eta etxeko gainerako kideen jarrera akatsik gabekoa izatea, bizirauteko bitartekoak edukitzea, eredu ona ematea eta hezkuntza "moral" eta beharrezko instrukzioa emateko gaitasuna zutela adieraztea. Bestalde, inude bezala zituztenez gain, hainbat betebehar hartzen zituzten beren gain haurraren prohijazioarekin: "halabeharrez eta saihestu gabe" hezkuntza egokia ematea eta kristau ikasbidea ematea izango zen egin beharrekoa.

Prohijazioa erdizkako legalizatze bat zen. Inudeek eta beren familiek beren etxean ofizialki hartzen zuten haurra. Ez zen adopzio bat, guraso legitimoek beren haurra berriro hartu nahi izanez gero lehentasuna edukiko zuten. Prohijazioa haurrak harreran hartzea bezalakoa zen. Administrazioaren asistentzia eskubidea galtzen zuten haurrek, baina, haurraren tutoretzak Diputazioarena izaten jarraitzen zuen eta familiaren gaineko kontrolak bere horretan jarraitzen zuen, Batzorde Lokaleko kideak prohijazioaren betebehar guztiak betetzen zituztela ziurtatzeaz arduratzen baitziren. Familiak haur prohijatuarekin probintziatik atera nahi izatekotan, kasu, Diputazioak horren berri jakin eta administrazioak baimena eman beharko zuen.

178 Iturria: *Reglamento general de expósitos para la Provincia de Guipúzcoa*, 1900, 1910, 1916.



JUNTA DE EXPÓSITOS
DEL
PARTIDO DE SAN SEBASTIÁN, 9 de Noviembre de 1909.
SECRETARÍA Sr. Cura Párroco de
Hernani

Muy respetable señor mio: Para que esta Junta pueda adoptar la resolución más conveniente respecto á la prohijación de[l] expósito ..... núm. ..... por la nodriza ..... vecina de esa villa, ruego á V. encarecidamente se digne manifestarme bajo toda reserva y con la brevedad que le sea posible:

1.º Nombre, apellido y profesión del marido de la nodriza.

2.º Concepto que le merece á V. la conducta de ambos esposos.

3.º Número de hijos legítimos con que cuenta actualmente este matrimonio.

4.º Si caso de que se les conceda la prohijación definitiva de[l] expósito estará este debidamente alimentado.

5.º Si podrán también darle el buen ejemplo y la educación moral é instrucción convenientes.

Esperando de los sentimientos caritativos de V. se servirá prestar este servicio á la Junta en bien de los desgraciados expósitos, y dándole por ello las gracias anticipadas, me ofrezco á mi vez á las órdenes de V. como su más affmo. S. S.

Q. B. S. M.

Ignacio Chrana

Prohijazio papera eta betebeharrak. (Iturria: HUA A-13-I-7. Lib.).

Inudeek eta haurrek elkarrekin egiten zuten ibilbide ohikoena haur espositoa prohijatzea zen. Horrela, familian kide bat gehiago txertatuz amaitzen zen bizirauteko estrategia monetario bezala hasitako prozesua. Valverdek ondo azpimarratzen duen bezala: haur horiek etxeko ekonomian laguntzeko beste pieza bat bihurtzen ziren, baserrian edo etxeko lanetan laguntzeko lan esku merkea, alegia[179].

Garrantzitsua da kontuan hartzea utilitarismo hori ezin dela gaur egungo begiekin ikusi, eta garaiotan hasi zela –medikuntzatik besteak beste– haurren bizitzaren garrantzia mahai gainean jartzen. Haurren babesa eraikuntza historiko bat gehiago da eta ezin dugu gaurko begiekin aztertu iragana. Hortaz, esaten dugunean inudeek haur abandonatuak hezi eta zaintzea estrategia ekonomiko bat gehiago zela, eta haurrak harreran hartzea biziraupenerako beste estrategia bat zela, kontuan izan behar dugu testuinguru sozial eta historiko horretan gertatu zela. Baztertu gabe, jakina, haur horiek inudeekin eta familia osoarekin biziz eta denbora elkarrekin emanez, haien arteko harremanak eraikitzen joango zirela; etxe bakoitzean batera edo bestera joko zuen harreman horrek. Esku artean dugun dugun dokumentazioarekin, ordea, ñabardura guztiak jasotzea ezinezkoa da, oraingoz.

Prohijazioa ibilbide errepikatuena izan arren, baziren prohijatzen ez zituzten haurrak ere. Horien kasuan, Diputazioa arduratzen zen haientzako lanbidea bilatzeaz, zerbitzu domestikoan, nekazaritzan, ofizioetan edo beste arloren batean. Era berean, Diputazioa arduratzen zen horiek egoitza batera bidaltzeaz. Batzuetan, inudeek itzultzen zituzten haurrak sehaska etxeetara. Hilabete batzuez bularra eman eta diru apur bat lortu ondoren, itzuli ohi zituzten. Beste batzuetan, Diputazioak berak kentzen zizkien inudeei haurrak. Haurra ondo zaindua ez zegoela irizten zenetan gertatu ohi zen hori.

Haur horrek eduki zezakeen beste ibilbide bat, haurraren guraso biologikoek haurraren egoera legalizatu eta adopzioa tramitatzeko eskubidea zeukaten. Bete beharreko formaltasun guztiak egin arte, ezingo zuten jakin zein zen haurraren esposito zenbakia, ezaugarri fisikoak, bizilekua, zaintzen zuen inudearen izen abizenak eta helbidea. Hilda edo bizirik zeuden jakiteko eskubidea zuten soilik, haurraren babesa ziurtatzeko asmoz. Egoera legalizatzea erabakiz gero, esposito bezala egon zen denbora guztian haurrak eragin zituen gastuak ordaindu beharko zituzten, ahal zuten kantitatean, behintzat.

179 Valverde, Lola (1990): 240. or.

5.2. HERNANIKO INUDEAK: HAINBAT IBILBIDE[180]

Hernaniko inudeen errealitatea hobe ezagutu ahal izateko, Udal Artxiboan eta Gipuzkoako Artxibo Orokorreko dokumentaziora jo dugu. Jarraian, haur abandonatuak zaindu zituzten emakumeen inguruko datuak xehetuko ditugu. 1900tik 1944ra bitarteko egoera honelakoa zen, hitz bitan: lau hamarkada pasatxotan zehar, guztira, 119 emakume hernaniarrek egin zituzten inude lanak. 119 inude horiek 133 haur abandonatu eduki zituzten zaintzapean eta 133 haur horietatik bi, Hernaniko bi inuderen familiekin bizi izan ziren.

119 inude	133 haur

Hamar urtean behin egindako batez besteko zenbaketek, joera gorabeheratsua adierazten dute. Mendea beherantz hasi bazen ere –geroz eta haur gutxiago hartzen zituzten inudeek–, 30eko hamarkadan gorakada nabarmena gertatu zen, tartean 1936ko gerra izan zela hartu behar dugu kontuan. Gerrako zailtasunen ondorioz haurrak berriro instituzio publikoetan uzteko joera egon zitekeela pentsa dezakegu. Aitzitik, garai horretan inude hernaniarrek haurrak hartzen jarraitu zutela argi dago. Dena dela, gerraostean, Francoren erregimenak benefizentzia eta karitate kristauaz mintzatzen zela, gurasorik gabe gelditu ziren haurren prohijazioa bultzatu zuen[181]. 40ko hamarkadan joera hori nola garatu zen jakitea ezinezkoa da, dokumentazioan aipatzen den azken data 1944koa baita.

10. TAULA: HERNANIKO INUDEEK ZAINDUTAKO HAUR KOPURUA, 1900-1944[182]:

1900	1910	1920	1930	1940-44
32 haur	27 haur	24 haur	40 haur	12 haur

Aurreko atalean aipatu dugunez, inude eta haurren arteko hartu-emanak luzera ezberdina eduki zezakeen: hilabete edota egun eskasetakoa izan zitekeen, baina as-

180 Hemendik aurrera aipatutako ditugun izen-abizen guztiak ordezkoak dira.

181 HUA E-5-II-Lib. 30-Exp. 2. 1941ean 59 umezurtz zenbatu ziren Hernanin (HUA E-5-II-Lib. 30-Exp. 4).

182 Esan dugu garai honetan 133 haur zaindu zituztela guztira Hernaniko inudeek, baina 135 zenbatu ditugu, kontuan hartuta 133 haur horietako bik bi etxe ezagutu zituztela, eta kasu bakoitzean denbora-tarte ezberdina iraun zuela etxe bakoitzean emandako egonaldiak. Adibidez, haur horietako bat, lehenengo inudearen etxean urtebetez egon zen, baina, bigarren inudearen etxean bost urte eman ondoren, prohijatu egin zuten. Bi kasuak zenbatzea erabaki dugu.

kotan urte luzez iraun zezakeen haur eta emakumearen arteko hartu-emanak, inudearen familian txertatzeraino. Ibilbideak anitzak izanda ere, esan dezakegu inudearen familiaren parte izatera iristea izan zela ohikoena. Garaiotan Hernanin zaindutako haurrek honako ibilbideak izan zituzten:

11. TAULA: HERNANIKO INUDEEK ZAINDU ZITUZTEN HAURREN IBILBIDEAK, 1900-1944:

	KOPURU ZIURTATUAK	IZAN DAITEZKEENAK	HAURRAK GUZTIRA	EHUNEKOTAN
Prohijazioa	47	11	58	% 42,96
Haurraren heriotza	9			% 6,66
Haurra instituzio benefikora bueltatzea	9	16	25	% 18,51
Haurra behartuta instituziora buelteatzea, tratu txar edo zaintza desekogiagatik	6			% 4,44
Guraso biologikoek haurra beren kargu harzea	9			% 6,66
Inude ezkongabeak	2			% 1,48
Daturik gabe	26			% 19,25
			135[183]	% 99

Kopuru osoak ematea zaila da, joera batzuk argiak baldin badira ere, zenbait kasu ziurtatu ahal izateko dokumentuak desagertu egin baitira. Horregatik, sortu ditugu bi kategoria nagusi: ziurtatuta dauden kasuak eta kasu (oso) posibleak.

Lehenengo kategorian bildu ditugunak kasu konfirmatuak dira. Hau da, arakatu dugun artxiboetan haur baten inguruko prozesu guztia zehazten duen dokumentazioa aurkitu dugun kasuak dira horiek. Adibidez, inude batek haur konkretu bat zaintzeagatik jaso zituen diru kopuruen bitartez jakin dezakegu inude hori noiz hasi zen haurra zaintzen eta noiz utzi zion zaintzeari. Haur horrek zein ibilibide eduki zuen

183 Esan bezala, bi haur bi etxe ezberdinetan egon ziren eta bi ibilbideak izan dira kontuan izan ditugunak zenbaketa honetarako: bi haurren kasuan, lehenengoz zaindu zituen inudeak behartuta itzuli zituen haurrak, haurren babeserako instituzio benefikoak behartuta. Gerora, familia banatan ezarri zuten haur bakoitza eta biak prohijatu zituzten bigarren familia horretan

jakiteko balio digute dokumentu horiek, eta baita bidaia hori nola bukatu zen jakiteko: heriotza ziurtagiri batek adierazten digu, haur hori inude horren zaintzapean zegoen bitartean hil zela, edota, prohijazioa burutu zela adierazten duen ziurtagiria aurkituz gero, badakigu haur hori hainbat denboraz zaintzen egon ondoren, inudearen familian etxeko beste kide bat bihurtu zela.

Bigarren kategorian, kasu posibleen kategorian, azken ziurtagiria aurkitzerik izan ez dugun kasuak bildu ditugu. Ibilbide bata edo bestea eduki izana adierazten duen azken dokumentua aurkitu ez arren, joera zehatz baten barruan daudela ikusita, horren arabera, kategoria batean edo bestean sailkatuak izan dira. Adibidez, haur bat 6 urtez zaindu ondoren, haurra prohijatzea jarrera ohikoena zela esango genuke, prohijazioaren ziurtagiria aurkitu ez dugun kasuetan ere. Izan ere, aipatu dugunez, haur jaioberriak zaintzeagatik lortzen zuten diru gehien inudeek, eta beraz, prohijatzeko asmorik ez zegoenetan, ez zen ohikoa 6 urtez haurra etxean eduki ondoren berriro Fraisorora bidaltzea. Eta aitzitik, adibidez, inude batek haurra hiru hilabetez soilik zaindu zuela ziurtatzen duten diru-sarreren egiaztagiriak baditugu, pentsa genezake, inude horrek diru-sarrera horiek lortu ondoren haur hori Fraisorora itzuli zuela.

a) Lehenengo ibilbidea: haurra prohijatzea

Hutsuneak hutsune, joera nagusi bat nabarmentzen da: 1900 eta 1944 bitartean Gipuzkoan jaiotako 58 haur Hernaniko familia banatan izan ziren txertatuak prohijazio bitartez, garai horretan zaindu ziren haurren % 42,96a, alegia. Administrazioak hori bera bultzatzen zuen, horrela baitzioen Haur Espositoen Batzorde Probintzialaren zirkular batek:

> *La creación de la Casa Cuna no fue retener en ella de una manera permanente a niños abandonados, sino prestar a estos los cuidados necesarios en los primeros meses de su existencia para luego irlos diseminando por la provincia, en especial a los caseríos, a fin de que con el tiempo puedan formar parte integral de las familias en cuyo seno hayan sido acogidos y criados y de este modo lleguen a ser algún día, por el producto del trabajo honrado, hombres útiles a la gran familia guipuzcoana*[184].

Izan ere, hainbat interes zaindu behar zituen Diputazioak aldi berean. Haur abandonatuei babesa eskaini eta Gipuzkoako familietan txertatzeko aukera helburu garrantzitsu izateaz gain, arazo kronikoa zuen administrazioak: behar ugari asetu nahia eta diru beharra. Haurra ahalik eta azkarren Diputazioaren haur espositoen gastuen zerrendatik ezabatzea bihurtu zen helburu.

184 HUA A-13-I-Lib. 7, Circular del 6 de febrero de 1911 de la Junta Provincial de Expósitos.

Diputazioak gastuak murriztea zuen xede, baina, aldi berean, inude beharrean zegoen etengabe. XX. mendearen lehenengo erdialdean, oraindik, haur abandonatuen kopurua handia zen. Horren erakusgarri da Gipuzkoa osoan 1911n batez beste 520 haur esposito egotea kanpoko inudeen zaintzapean[185]. Goranzko joera nabarmendu dezakegu, 1916an 624 haur baitzeuden inudeen zaintzapean, batez beste[186].

Diputazioak bi helburu kontrajarri horiek konpondu nahi izan zituen soldatak igoz, batetik, eta haurrak prohijatzeko data aurreratuz zein haurraren lehenengo hilabete eta urteetan soldata handiagoak eskainiz, bestetik[187]. Alegia, Diputazioak inudeak lortu nahi izan zituen haien soldatak hobetuz. Aldi berean, ordea, haur horiek ahalik eta azkarren prohijatzea zen bultzatzen zuena, horrela inudeek soldata denbora tarte laburrenean jasoko baitzuten. Horren adibide dira aurreko puntuan aipatutako soldata igoerak. Esplizituak ziren Haur Espositoen Batzorde Probintzialeko zirkularrak, beste behin ere:

> *Tan excelente* [es] *el estado de salubridad y robustez de los niños, que parece debiera ser un aliciente para que toda mujer que se halle en disponibilidad de poder lactar criaturas expósitas se apresurara a solicitar una de las allí acogidas, el hecho cierto es que el número de estas mujeras o nodrizas externas ha disminuido de un tiempo a esta parte, a pesar de la puntualidad y relativa largueza con que son remunerados sus servicos por la Excma. Diputación; produciendo esta ausencia de nodrizas externas aglomeración de niños de pecho en la Casa Cuna (...)*[188].
>
> *Para facilitar la salidad de niños (...) ha dispuesto una retribución más equitativa y adelanta un año la edad de prohijación*[189].

Hernanin XX. mendearen lehenengo erdian ere prohijazioa zen gehien errepikatu zen ibilbidea. Gaizkien ordaindutako lanen artean zegoen haur espositoen inude izatea[190], eta noski, ez zuen balio inondik inora familia bat mantentzeko. Baliabide apaleko familia batek talde bezala bizirauteko eduki ohi zuen estrategiaren baitan, beste diru sarrera bat zen inude lana egitetik lortzen zena. Diru iturri eskasa zen haur

185 GAO JD 806,2. Lau hiruhilekoetako datuak hartu dira kontuan batez bestekoa kalkulatzeko.

186 GAO JD 908. Bi hiruhilabetetako datuak hartu dira kontuan batez bestekoa kalkulatzeko.

187 Ikus 7. eta 9. taulak.

188 HUA A13-I-Lib. 7, Circular del 14 de enero de 1915 de la Junta Provincial de Expósitos.

189 HUA A-13-I-Lib. 7, Circular del 14 de julio de 1915 de la Junta Provinicial de Expósitos.

190 Bartzelonako ofizio ezberdinetako soldatak konparatu ditu Rodríguez Martínek. Autorearen arabera, haur espositoen inudeek garbitzaileek, sonbrerugileek eta lisatzaileek baino soldata eskasagoak zituzten XX. mendearen hasieran (Bartzelonako Udala, 1921: *Estadísticas sociales. Monografía estadística de la clase obrera:* 100-101. or. IN Rodríguez Martín, Ana María: 2009, 73. or.) Guk 5.1.2 atalean ere hori berretsi dugu.

espositoen inude izatearena, askotan gehitu behar baitzitzaion gainera, haur espositoak zituen beharrak soldata horiekin bete behar zirela, eta hori argi eta garbi motz gelditzen zen, haurra gaixotu eta medikuarenera eraman eta botikak behar bazituen. Beste diru sarrera bat beharrezkoa zen biziraun ahal izateko[191].

Interes monetarioetatik haratago, diru iturri izateaz gain, bazegoen haur espositoa etxera sartzeko beste arrazoi nagusi bat. Nekazal ingurunean kokatzen zen sehaska etxetik at lan egiten zuten inudeen profila. Beste haur bat etxean sartuz, etorkizunerako lan eskua ziurtatzen zen. Horregatik, prohijazioa zen nagusitzen zen joera: epe luzera begirako ahalegin ekonomikoa eskatzen zuen zaintza zen. Garrantziarik kendu nahi izan gabe, noski, haurraren eta familiaren artean sortzen zen lotura afektiboari, hori neurtzeko zailtasunak handiagoak dira, ordea.

Esate baterako, Javiera Aguirre inude hernaniarrak 1916an hartu zuen Laura Astigarraga haur abandonatuaren edoskitzearen eta zaintzaren ardura[192]. Bost seme-alabako familia batean txertatu zen haurra, eta bost urte osoz egon zen haien etxean haur esposito bezala. Azkenean, 1921eko urrian haurra prohijatzeko tramiteak hasi zituzten. Hernaniko alkateak ziurtatu zuen Javiera Aguirreren etxean haurra jasoz gero elikadura, hezkuntza eta moral jarraibide egokienak ziurtatu ahal izango zizkiela. Hala, 1921eko azaroaren 13an Gipuzkoako Batzordean ofizializatu zuten Laura Astigarragaren prohijazioa. Halakoak dira, beraz, dokumentazioan ageri zaizkigun adibide ohikoenak.

b) Bigarren ibilbidea: haurra sehaska etxera itzultzea

Beste batzuetan haurra instituzio benefikora itzuli eta administrazioak bere kargu hartzen zuen berriro. Hernaniko inudeen kasuan, hori da nagusitzen den bigarren joera[193]: 1900 eta 1944 artean 25 haur hainbat hilabetez zaindu ostean Fraisorora itzuli zituzten inudeek, haiek hala erabakita, kopuru totalaren % 18,51. Juana Ichaso inudeak, adibidez, Tomás haur espositoa urte erdiz zaindu zuen. Ondoren, Fraisorora itzuli zuen, 1919ko maiatzean. Úrsula Lujambio Hernaniko baserritarrak ere, José Mª Pérez haurra bost hilabetez zaindu ostean Sehaska Etxera bueltatu zuen, 1934ko uztailean.

Normalean, haur biologikoa hil berri edo haurra jaio berritan bularretako esneari probetxua ateratzeko baliatzen zuten aukera inude hauek. Tamainako zabalpena zuen joera honek Diputazioaren sakoneko helburuekin egiten zuen talka: inudeak hau-

191 Valverde, Lola (1994): 167. or.

192 Datuak babesteko helburuarekin, jarraian aipatuko ditugun adibideetan inude eta haurren izenak ez dira benetakoak izango.

193 Daturik gabeko kategoria kontutan hartu gabe, noski.

rrarekin hasten zuen hartu-emana bere familian txertatzean amaitzea zen helburua. Haurrarentzat onuragarria zen, ezbairik gabe, hasi zuen bidea leku berean amaitzea, oinarri sendoak finkatzeko komunitate edo talde parte sentitzea bezalakorik ez baitago. Ziur aski, bigarren ibilbide hau hobesten zuten inudeek eta haien familiek epe laburrerako beste helburu batzuk zituzten buruan: finean, diru gehien haur jaioberriak hazten lortzen zuten eta inudeek diru-sarrera hori lortzeko beharra bazuten, behar horiek asetzeko haur txikiak hartzea zen inudeak egingo zuena. Horrela, haur txiki bat bestearen atzetik hartuta, diru gehiago irabaziko zuen, presazko diru behar horri erantzuteko. Ondoko taulak laburbiltzen ditu joera horiek, Hernaniko inudeek haur bakoitza zenbat denboraz eduki zuten antzeman dezakegu:

12. TAULA: HERNANIKO INUDEEK HAURREKIN IGAROTAKO DENBORA, 1900-1944[194]:

Hilabeteak	30 haur
Urtebete	22 haur
Bi urte	18 haur
Hiru urte	13 haur
Lau urte	9 haur
Bost urte	20 haur
Sei urte	7 haur
Zazpi urte	3 haur
Daturik gabe	13 haur

Ikus dezakegunez, 0-3 urte bitartean haurrari bularra eman eta zaintzea zen joera nabarmenena. Joera horren barruan leudeke haurra Fraisorora itzuli zutenak –nahita edo behartuta– eta baita, segituan prohijazioa egitea erabaki zutenak. Aipatu bezala, haurra orduan eta nagusiagoa izan, orduan eta soldata txikiagoa jasotzen zuten inudeek. Eta kontrara, ahalik eta azkarren prohijatu, orduan eta diru kantitate handiagoa jasotzen zuten gurasoek. Ziur aski, horregatik da hain handia 0-3 urte bitartean zaindutako haurren kopurua. Hiru urtez baina gehiagoz zaindu zituzten haurren kopuruak beherazko joera nabarmena adierazten du. Azkenik, bost urtez edo denbora gehiagoz zaindu zituzten haurren kasuak leudeke. Hauek, dudarik gabe, prohijazioa egiteko asmoekin zaintzen zituzten, baina, ahalik eta denbora gehien luzatu nahi izaten zuten zaintzagatik lortutako diru-sarrera gehigarria.

194 Guztira, 135 haur. Lehenago aipatutako arrazoiagatik, bi etxe ezberdinetan egon ziren haurren bi kasuak hartu ditugu kontuan.

Ohikoena haur bat zaintzea baldin bazen ere, badaude bi edo hiru haur momentu berean zaindu zituzten inudeak ere. Hori hainbatetan gertatu zen, nahiz eta Diputazioak printzipioz inude bakoitzak haur bakar bat zaintzea hobetsi, inude faltak halakoak gertatzea ahalbidetu zuen. Haur bat baina gehiago zainduta, diru sarrerak handitu egiten ziren inude horrentzat, azken finean:

13. TAULA: HERNANIKO INUDE BAKOITZAK ZAINDUTAKO HAUR KOPURUA, 1900-1944:

HAUR BATEN ZAINTZA	BI HAURREN ZAINTZA	HIRU HAURREN ZAINTZA
105 inude	12 inude	2 inude

Esan bezala, administrazioaren epe luzerako helburua sehaska etxera iristen ziren haur abandonatuei bizitzeko familia bat bilatzea zen arren, helburuak horrek errealitatearekin egiten zuten topo: haurren abandonu eta esposizio kopuru handiak eta inude faltak sistema kolapsatzen zuen. Hortaz, epe luzerako helburu hori garrantzitsuena baldin bazen ere, administrazioak epe motzerako helburu hau hobestera jo zuen, haur txikienak etxean hartzeagatik soldata altuenak ordainduz. Guztiz beharrezkoak ziren, beraz, aldi motzetarako haurrak etxean hartzen zituzten inudeak ere.

Inudeek haur bat etxean hartzearen xede nagusia ekonomiko eta monetarioa zen. Baina giza harremanek badute bere konplexutasuna, eta hori da inudeen fenomenoaren ezaugarrietako bat. Ezer ez dela dirudiena bezain sinplea. Haurra instituzio benefikora itzultzea ez zen beti erabaki samurra. Eloisa Eguren inudeak eta Felipe Lopetegui senarrak 1899ko urtarrilaren 25ean María Echeverria haurra prohijatu zutenetik lau urte eta erdi pasa zirenean, haurra sehaska etxera itzultzea erabaki zuten. Honakoa zen arrazoia:

> *La Junta Local de Expósitos de Hernani manifiesta que la expósita María Echeverría prohijada por los vecinos de dicha villa Felipe Lopetegui y su esposa Eloisa Eguren el 25 de enero de 1899 ha estado atendida y cuidada con esmero por sus padres adoptivos; pero que habiendo desarollado ella sentimientos díscolos de desobediencia y a la vez de holgazanería, sin que ese le pueda sujetar en el caserío y agotados ya por los prohijantes todos los medios persuasivos sin poder conseguir que la referida se corrija, convendría que fuera recluída en uno de los establecimientos benéficos de esta ciudad*[195].

195 HUA A-13-I-Lib. 7.

Espositoen Batzorde Probintzialak eskaera onartu besterik ez zuen. Prohijatzerako garaian jaso zituzten 60 pezetak itzuli ostean, haurra administrazioaren ardurapera itzuli zen.

c) Hirugarren ibilbidea: haurra sehaska etxera itzultzea, behartuta

Badaude, nagusitu ez ziren arren, kontuan hartu behar ditugun beste hainbat joera. 6 haur –kopuru totalaren % 4,44– administrazioak behartuta itzuli ziren Fraisorora. Zabar eta arduragabetzat jotako inudeei gertatutako kasuak ziren honakoak. Diputazioaren oinarrizko baldintza haurraren ongizatea bermatzea zen, eta batez ere heriotza saihestea. 9 haur hil ziren guztira Hernaniko inudeen besoetan, zaindutako haurren % 6,66. Horiek gertatu baina lehen, Diputazioak esku hartzen zuen, eta haurraren ardura kentzen zien inudeei.

Administrazioak berak haurra kendu ziezakiokeen inude bati. Esan dugu inudeen gainbegiratzea Batzorde Lokalen egiteko garrantzitsuenetako bat zela. Inudeei buruzko garaiko irudia ondo hezi beharreko zaintzaile arduragabeena zen. Inudeen irudi hori, areagotu egiten zen inudeak familia txiroetakoak edo baserritarrak zirenean. Higiene txarra eta haurrekiko dedikazio eskasa egozten zitzaizkien. Inude horiek, ordea, behar eta zailtasuna ekonomiko handiz bizi ziren, eta noski, lanaren eta beste hainbat haurren zaintzaren artean oreka egin behar izaten zuten. Bistakoa denez emakume horiek ez zuten "ama onaren" ideiarekin zerikusirik, mota askotako lanak lotzen zituzten bata bestearen atzetik eta ez ziren inondik inora etxeko erreinua eder edukitzeko bizi. Haurrek, gainera, etxeko ekonomian ere laguntzen zuten, garaiko mediku, pentsalari eta politikarientzat arbuiagarria bazen ere.

Inude horien testuingurua kontuan edukitzea ezinbestekoa da; garaiko pentsamendu higienistaren bahetik iritsi baitzaizkigu inudeen inguruko datu guztiak. "Deabrutzat" hartzea akatsa litzateke. Dena dela, egia da zenbaitetan zaintza falta edota gehiegikeriak egon zirela. Hori ukatzea ere fenomenoaren irakurketa partzial bat egitea litzateke.

Manuela Echarte hernaniarra 1880an jaio zen eta 19 urte zituen Lucas haurra bere zaintzapean hartu zuenean, 1899an. Alarguna zen eta bi seme-alaba zituen: 1894an jaiotako Niceto eta 1899an jaiotako Ana[196]. Manuelak, beraz, Ana jaiotzearekin batera, esneari probetxua atera eta Lucas haur espositoari edoskitzen ematea erabaki zuen. Lucas González ere 1899an jaio zen. Txikia zela jaso zuen Manuela inudeak eta lau urtez zaindu zuen. 1904ko urtarrilaren 30ean haurra beste norabaitera eramatea erabaki zuen Donostiako Batzordeak bere zainketa egokia ez zela irizteagatik. Erabakia hiru egun lehenago hartu zuen Donostiako Batzordeak, eta ziztu bizian exekutatu zuen.

196 HUA B-4-II-Lib. 5 Exp. I.

Kasu batean baina gehiagotan errepikatu zen haurrari zaintza "desegokiak" emateagatik inudeari haurra kendu eta beste etxe batera lekualdatzearena. Aitzitik, inudeak soilik jarrera txarrekin lotzea ez da errealitate osoa kontuan hartzea. Dokumentatu ditugun kasuen % 4,44 izan ziren soilik, kontuan hartu beharreko datua, fenomenoari tamaina hartzeko.

d) Laugarren ibilbidea: haurraren heriotza

Haur batzuek ibilbide motza edukitzen zuten inudeekin, hil egiten baitziren, are gehiago kronologian atzera egiten badugu. Higienista eta medikuek XX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan haurren heriotza tasa altuetan atentzioa jarri zutenez geroztik, eta aldaketa teknologiko eta higieniko nabarmenak zirela medio, joera lazgarri horri buelta ematen hasi zitzaion.

Hainbat kasu dokumentatu ahal izan ditugu. Esaterako, María Joaquina Larrea inudeak, pare bat hilabetez eduki zuen bere zaintzapean Ramón gaztea: 1915eko urtarrilaren 31ean hil zen. Sehaska etxeetan uzten zituzten haur abandonatuen beharrak handiak ziren. Bertara iritsi berria zen haurrarentzat hil ala bizikoa izan zitekeen bere beharrak aseko zituen inudea berehala lortzea. Heriotza horiek bere testuinguru historikoan kokatzea beharrezkoa da, haurren heriotza tasa altua baitzen artean. Zehaztasunak ezagutzera iritsi ez bagara ere, adibide bat jar dezakegu: Manuela Loyarte inude hernaniarrari Isabel Inchaurrondo haurra kendu zioten 1902ko uztailaren 24an oinarrizko elikadura eta zaintzak ez emateagatik.

Ezin da heriotza horien karga inudeen gain ezarri soilik. Josefa Echave 1899an jaiotako inude hernaniarrak, esate baterako, 1932ko urriaren 23an jaso zuen bere baserrian Roberto Sanz haur espositoa, bularra eman eta zaintza bermatzeko intentzioarekin. Zazpi hilabeteren buruan, 1933ko maiatzaren 11ean hil egin zen ordea. Bularrean esnea edukitzen jarraitzen zuenez, Josefa Echavek beste haur bat hartu nahi izan zuen sehaska etxetik. Horretarako Hernaniko alkatearen informe bat aurkeztu behar izan zuen, hil berri zen haurra ondo zaindu zuela ziurtatzeko. Alkateak berehala idatzi zion Donostiako Haur Espositoen Batzordeari baietz, Josefa Echavek ondo zaindu eta arduratu zela Roberto Sanz zendutako haurraz.

Kasu bakoitza ezberdina bazen ere, heriotza horien karga inudeen gain ezartzea fenomenoa bere osotasunean ez ulertzea dela deritzogu. Jarraian datorren atalean konplexutasun honetaz hausnartuko dugu.

e) Bosgarren ibilbidea: guraso biologikoek haurra legitimatzea

Azkenik, gurasoek berriro haurra bereganatzeko eskatuz hainbat kasu jaso ditugu Hernanin: bederatzi hain zuzen –kopuru osoaren % 6,66–. Kasu hauetan guztietan, haurra abandonatu ostean, eta sehaska etxean inude baten zaintza eta edoskitzea

bideratu ondoren, bere guraso legitimoek haurraren arduraren jabe egiteko pausuak ematea erabakitzen zutenean gertatu zen hori, eta hala, haurra bere guraso biologikoenera itzultzen zen.

Fraisoro bezalako instituzio benefikoen helburua haur ilegitimoak edo jatorri ezezaguna zuten haurrak jaso eta babestea zen. Guraso biologikoen betebehar zibila zen haurraren beharrak asetzea. Hori bermatzeko zailtasun ekonomikoak zituzten gurasoek, udal mailan kudeatzen ziren instituzio benefikoetara jo behar zuten. Beti ez ziren ordea, behar bezala erabiltzen. Gipuzkoako Diputazioak iruzur horri jarraipena egin nahi izan zion:

> *La Excma. Diputación de Guipúzcoa que tiene a su cargo el ramo de expósitos en la Provincia como una de sus funciones propias, estableció en cada partido judicial de la misma y en la Casa-cuna central de Fraisoro, un torno destinado para la exposición de niños expósitos. Es de advertir que solo se consideran tales (...) aquellos niños de padres desconocidos y fuesen depositados en los expresados tornos, dipuestos a recibirlos (...). Se ha observado que algunos de los niños reclamados eran de legítimo matrimonio, y como el dejar en los tornos a esta clase de niños, es falsear la finalidad de los mismos, la Comisión provincial se ha creído en el deber de llamar la atención a los Sres. Alcaldes (...)*[197].

Fraisoro bezalako sehaska etxeetan bazegoen iruzurrerako tarterik eta horren adibide dira dokumentatu ahal izan ditugun kasuak. Adibidez, 1923ko ekainaren 28an María Olaeche inudeak, Dolores Bidebarrieta haurra jaso zuen etxean. Hainbat hilabetez eduki zuen bere zaintzapean, harik eta 1924ko martxoaren 28an, haurrak 3 urte eta 9 hilabete zituela, bere gurasoek haurra legitimizatu eta itzultzeko eskatu zuten arte.

Francisca Ibarburu inude hernaniarrak 1929ko martxoaren 22an Dorotea Aguado haurraren ardura hartu zuen. 1930eko urriaren 8an "bere ama naturalak errekamatu ondoren", inudeak haurraren zaintza eten zuen. Azpimarragarria den datua zera da: aztertutako kasu guztietan, inudeari guraso biologikoek haurra legitimizatu zutela jakinarazten ziotenetik, bi edo hiru eguneko tarte laburra edukitzen zuela haurra itzultzeko.

5.3. INUDE HERNANIARREN PROFILAK

Ikus dezakegunez, dirudiena baino konplexuagoa da inudeen esperientzia historikoa hitz bitan laburtzea, gizartean egin zuten ekarpena bere osotasunean baloratzea eta dagokien lekuan ipintzea. Haur eta inudeek bat eginik ibilbide ezberdinak izan zitzaketen. Merezi du kasu bakoitzean sakontzea, esperientzia indibidualek inudeen

197 HUA A-13-I-Lib. 7, Circular número 8 del 26 de agosto de 1907 de la Comisión provincial de Guipúzcoa.

inguruko argi gehiago emango digutelakoan –inudeen fenomenoa kolektibo oso batena baldin bada ere–; norbanakoen bizipenetan ezkutatzen diren kontraesan eta argi ilunak ezagutzeko parada izan dezakegu. Finean, garrantzitsua da historia kolektibo horretan ñabardurak zein ziren ezagutzea.

Alabaina, inudeak nor izan ziren jakitea lan nekeza da. Artxiboetan datu ugari aurki baditzakegu ere, asko motz gelditzen dira erradiografia zehatza egin ahal izateko. Beste datu asko aldatuta ageri zaizkigu dokumentuetan. Hala ere, artxiboko lanarekin hainbat inuderen profilen berri jakin ahal izan dugu.

Erroldak arakatzeari ekin diogu, inudeen ordainagirietan agertzen ziren datuetatik abiaturik. Askotan izen-abizenak baino ez ditugu, beste batzuetan beren helbideak ageri dira, nahiz eta inude askoren kasuan helbide aldaketak etengabeak diren eskuartean eduki dugun dokumentazioan. Gehienetan, ez dugu haien inguruko daturik lortu; hasiera batean aipatu ditugun 119 inude horietako 48ren datuak ditugu soilik eskuetan: izenaz harago, haien bizitzaren berri zehaztasun handiagoz dakigu, hain zuzen.

a) Hernaniko inudeen familia ereduak:

Inude hauen testuingurua ulertu ahal izateko, jakin nahi izan dugu beren familien osaera zein zen, eta hasteko, ama bezala zein ardura gehiago zituzten. Alegia, guztira zenbat haur zituzten beren kargu:

14. TAULA: HERNANIKO INUDEEN HAUR BIOLOGIKOEN KOPURUA, 1900-1944:

Inudeak	9	8	1	2	4	4	0	1	10	9
Haur biologikoak	1	2	3	4	5	6	7	8	0	Daturik Ez

Inude izateko baldintza nagusia esnea edukitzea zen, eta beraz, espero izatekoa zen inudeek ama bezala haurrak edukitzea. 1900 eta 1944 bitarteko garaia nahiko zabala dela kontuan hartuta ere, eta garai horretan aldakaeta nabarmenak egon baziren ere jaiotza-joeren eta kopuruei zegokienez, esan dezakegu bost haurretik beherako familiak zirela nagusi garaiotan; sei, zazpi edo zortzi haur izatea salbuespena zen.

Bestalde, aipagarria da bederatzi emakumek haur biologikorik ez izatea. Inude izateko baldintzetako bat zen bularretan esnea edukitzea. Esne jarioa haurra izandakoek soilik izan dezaketenez, ondoriozta dezakegu bederatzi emakume horiei jaiotakoan edo ondorengo egun edo asteetan hil zitzaiela semea edo alaba, eta baliabide natural hori ekonomikoki probesteko inude sartzeko erabakia hartu zutela. Gainera, dokumentazioan egon daitezkeen hutsuneak kontuan hartzea garrantzitsua da. Baliteke dokumentazioan haurren aipamenik egon ez arren, familia horrek haur biologikoren

bat edukitzea. Dena dela, 1940ko hamarkadan esne artifiziala hobetzeko emandako aurrerapausuek ere baldintzatu zuten inudeen lana: batetik, inudeen funtzio nagusia gainbeheran jarri zuen, eta bestetik, haurrak etxean hartu eta prohijatzeko familia batzuentzat lehenago arazoa izan zitekeena –haur biologikoak lehenagotik edukitzea– desagertzen hasi zen, esne artifizial horiek bularreko esnea ordezkatzen hastearekin batera. Hortik aurrera, haur biologikorik ez zuten senar-emazteei abandonatutako jaioberriak hartzeko aukera zabaldu zitzaien.

Familia ereduari dagokionez, ideia modernoek hobesten zuten familia nuklearraren osaeratik nahiko urrun zegoen familia eredua nagusitzen da. Haur biologikoez gain, haur espositoa, inudearen senarra eta beste hainbat kidek osatzen zuten egitura: ohikoa zen familiako kide edo etxe-kide izatea norberaren ama edo amaginarreba, lehenagoko ezkontzetako haurrak –senar zein emaztearen partetik–, anai-arrebaren bat, haien seme-alabaren bat edota etxean hartutako apopiloak. Azterturiko inudeetako bi alargunak ziren, eta hauek, senarrarekin ez baina aipatutako zerrendako batekin baina gehiagorekin bizi ziren, haur biologiko eta espositoaz gain.

Adibidez, Eulalia Lizaso Hernaniko inude alargunak familia zabala zuen: bere senarra zenaren lehenengo ezkontzatik jaiotako sei seme-alaba, bere senarrarekin edukitako beste bi seme-alabarekin eta bere anaia Isidrorekin bizi zen. Horretaz gain, haur esposito bat ere bazuten etxean. Beraz, guztira hamaika kide ziren baserrian, 1940an[198].

Horretaz gain, bi inude ezkongabe izan ziren Hernanin 1941 eta 1944 bitartean. Ramona Arregui inudea bere anaia Angel Maríarekin bizi zen. Ramona Arregui ezkongabea zen eta bere anaia Angel María alarguna. Etxe horretan, Ramonak Fraisorotik hartutako Fermín Huarte haur espositoaz gain, beste bi haur ere bazeuden: Ana, anaiaren alaba, eta Felipa, Ramonarena. Ezkongabeak ziren bi inude hernaniarrek "*bonificación del socorro a madres solteras guipuzcoanas*" deituriko diru-laguntza gehigarria jasotzen zuten, inudeen soldataz gain. Bi ezkongabeek haurra Fraisoron eduki zuten. Normalean gertatzen zenaren kontrara, haurra ez zuten bertan abandonatu eta Hernanira ekarri zituzten. Haurraren ardura hartu zuten, gizartean ohikoena ez bazen ere. Inudetzat hartzeak zalantza eragiten du, izan ere, haur biologikoei eman zieten bularra haiek. Dena dela, inudeen diru-laguntza –eta ezkongabeen diru-laguntza berria ere– jaso zutela ikusita, haien kasua oso kontuan hartzekoa da.

Fraisorotik kanpo inude izateko baldintzetako bat ezkondua egotea zen. Diru-laguntza horrek paradigma aldaketa suposatu zuen ordea. 1931 amaieran onartu eta 1932an jarri zen indarrean diru-laguntza eta Fraisoron erditu ziren emakumeek jaso zezaketen, haurrak bi urte betetzen zituen arte. Horrela, Fraisorora erditzera joan ziren emakumeek, Fraisorotik kanpo beren haurraren zaintzaz arduratzeko modua sustatu

198 HUA B-4-II-17.

zuten. Esan bezala, ordura arte barruko inudeek bi hilabetez egon behar izaten zuten derrigor haurrari bularra ematen. Administrazioak haurraren ardura hartzeko jartzen zuen baldintza hori, haren esanetan amatasun sentimendua garatu eta haurrarekiko atxikimendua sortzeko. Baina diru-laguntzaren ondorioz Fraisorora erditzera joaten ziren emakume ezkongabeek haurrak abandonatzeko zuten ohitura aldatzen hasi zen. Badirudi berehalako erantzuna eduki zuela, izan ere, onartu eta urtebetera, hamazazpi emakumek alde egin zuten Fraisorotik beren seme-alaben kargu eginda[199]. Ohorea baino, haurrak babestea lehenesten hasi zen gizarte babeserako politiketan. Gizarteak denbora gehiago beharko zuen hori normaltasunez onartzeko, noski. Emakume ezkongabeei aukera bat ireki zitzaien haurraren kargu izan eta diru-laguntza gehigarria jasotzeko. Haur biologikoa zainduko zuten, ezkongabe izanda ere, Fraisorotik kanpo.

Baina diru-laguntza jasotzeak baldintza batzuk zituen. Inudea ezkonduz gero, diru -laguntza galdu egiten zuen. Horietako kasu bat da Hernaniko inude ezkongabeetako batena. Juana Garmendia hernaniarrak 24 urte zituela eta ezkongabea zela, Antonio izeneko haurra eduki zuen. Bi urtez jaso zuen inude soldata eta ama ezkongabeen soldata. 1943ko uztailaren 23an ezkondu egin zenean, bi ordainketak eten zizkioten. Ama izateak ez zuen ordainsaririk. Frankismoan ere, ama eta emazte izatea zen hobesten zena.

Ezkongabeen dirulaguntza jasotzeko bi baldintza hauek betetzea derrigorrezkoa zen: jarrera ona eta behartsu akreditazioa edukitzea. Izan ere, esan dugunez, inudeen bizimoduaren gaineko kontrola zorrotza zen Fraisoron eta hortik kanpo. Bestalde, ezkongabeek behin bakarrik jaso zezaketen diru-laguntza. Ez zen onartzen beste ume batengatik hura jasotzea. Ezkongabeak jadanik ez zeuden lehen bezain jazarriak: haurra abandonatzen zuten emakume ezkongabeak baino, haurra bere gain hartzen zuten ama ezkongabeak hobesten hasi ziren. Gaitzerdi. Hori bai, erakutsi behar zuten ezkontzatik kanpo ez zutela berriro haurrik izango. Garaipena zen administrazioarentzat ama ezkongabeak bere haurraren kargu izatea eta ez abandonatzea. Garrantzitsuena zen ama papera betetzea, haurraren "amaren bularreko esnea jasotzeko eskubidea" defendatzen baitzen horrela. Hala zioen Jesús Alústiza Fraisoroko mediku-zuzendariak, 1943an:

> *El acuerdo de la Diputación de auxiliar a la madre soltera que desee y esté en condiciones de criar a su hija, concediéndole un socorro de dos pesetas diarias durante el plazo de dos años.(...) Esta decisión constituye un importante servicio de asistencia social. Se defiende con ella el derecho del niño a la leche maternal y a la madre en su aspiración de no abandonarlo. La lactancia materna es incomparablemente mejor que la mercenaria y la solicitud y el cariño de la madre, son insutituibles. Esta determinación puede asimilarse a un seguro de vida para la criatura criada por su madre*[200].

199 Martínez Martín, María Ascensión (1996): 91. or.

200 García Magriña, Eva; Pego Otero, Laura (2013): 61. or.

Frankismo garaian ere jarraitu zuten diru-laguntza hori ematen. Ideario frankistak bultzatzen zuen emakume ereduarekin talka egiten zuen emakume ezkongabe batek haurra edukitzea. Baina hori zigortu beharrean, emakume gisara haurraren ardura hartzea bultzatzen jarraitu zutela dirudi. 1944an laguntza jasotzeko baldintza leunagoak onartu zituzten: Fraisorotik irteten ziren momentuan hasitan bi urtez luzatuko zitzaien –lehenago bi urte betetzen zutenean mozten baitzen–, ezkontzen zirenean diru-laguntza galtzea ere ezeztatu zuten, amak diru-laguntza nahi zuenean eteteko aukera zuen, eta azkenik, gipuzkoarrak ez zirenek ere lortu zuten eskubide hori[201].

Aipatu beharreko azken familia osaera bat egon zen Hernanin: haur esposito bat jaso zuen inude hernaniar bat hil egin zen. Pilar Mugica hernaniarrak 1932ko martxoaren 29an jaso zuen Maria Ochotorena haurra Fraisorotik, urte eskas bat zuela. 1934 hasieran Pilar hil egin zen eta Anacleto Metauten Hernaniko jornalari alargundu berriak Maria haur espositoaren zaintzarekin jarraitu zuen, inudeen ordainsariak kobratuz lau hilabetero, gainontzeko inudeek bezalaxe. Familia handia zen hura: guztira lau seme-alaba eduki zituzten Pilar eta Anacletok eta hura hil ostean ere, beste bi seme-alaba eduki zituen Anacletok beste emazte batekin. Azkenerako, Anacleto Metautenek haurra prohijatu egin zuen. Prohijazioaren tramitazioa berezi xamarra izan zen. 1936ko gerra eta ondorengo erbestealdi behartua tarteko, agiriak bideratzen hasi zirenetik prohijazioa bera gauzatu zen arte bi urte inguru igaro baitziren. Azkenean, 1939ko abuztuaren 4an prohijatu zuen Anacleto Metautenek Maria[202].

Espero den eredu zurrunetik urruti, eta garaiko logikatik kanpo, norbanako bakoitzak hartutako erabakiak ezagutzea ezinezkoa da dokumentazioarekin. Kasu honetan, aniztasun interesgarria topatu dugu, sortzen ziren haur esposito eta familiaren arteko harreman estuen adierazgarri.

b) Inude hernaniarren alfabetatze maila

1900 eta 1944 bitartean Hernanin egon ziren 119 inudeetatik 48ren inguruko bizitzan murgiltzen jarraituko dugu. Zein zen haien alfabetatze eta instrukzio maila? XX. mendearen lehenengo erdian populazioa alfabetatzen hasi zen.

201 García Magriña, Eva (2011): 121. or.

202 HUA B-4-II-21.

15. TAULA: HERNANIKO INUDEEN ALFABETATZE MAILA, 1900-1944:

Irakurtzen jakin / Idazten jakin	22
Irakurtzen ez jakin / Idazten ez jakin	12
Irakurtzen jakin / Idazten ez jakin	3
Daturik gabe	11

48 inude horien kasuan, alfabetatze maila handia ageri zaigu batez beste, baina aipatu datuak batez bestekoak dira, eta aztertzen ari garen garai guztian zehar jasotakoak. Nolanahi ere, alfabetatzea Gipuzkoan ere gorantza joan zen.

c) Inudeen lana(k): erroldetan ezkutatutako errealitatea eta bizirauteko egin beharreko gainontzeko lanak

Erroldako estatistiketan inude-lanak ez zeuden lanbide gisara aitorturik. Oro har, behin eta berriz errepikatzen da "*labores del sexo*" moduan definitzen diren zaintza lanetan jarduten zutela. Salbuespen gisara, bestalde, enpleatuak, garbitzaileak edota langileak direla ere jasotzen da kasu batzuetan.

Lehenago ere esan dugu garaiotarako guztiz definitua zegoela lan erreproduktibo eta produktiboaren arteko bereizketa, hurrenez hurren eremu pribatu eta publikoan kokatzen zirenak. Emakumeek ama eta emazte izan behar zuten, senarraren ongizateaz eta nahiak betetzeaz eta haurren heziketaren ardura betetzeaz arduratu behar ziren, ondo zaindua eta txukun zegoen beren etxeko erreinuan. Gizonek, aldiz, etxetik at zeukaten lanarekin ekonomikoki familia guztia mantentzeko gai izan behar zuten, etxeko buruzagi ziren.

Ideal horrek talka egiten du guk aztertu dugun testuinguru sozialarekin. Inudeak, askotan baserrietan, beste batzuetan hirigunean, pobrezian eta behar ekonomikoan bizi ziren. Arropak garbitzea, haurrei edoskitzen ematea, janaria erosi eta egitea –herrigunean bizi zirenen kasuan–, baratza eta oiloak zaintzea, merkatuan barazkiak edo esnea saltzea –baserritarren kasuan–... amaigabeko lanak ziren. Ingurune sozial horietan pertsona asko bizi ohi ziren, eta emakumeek etxeko lanez gain, diru trukean beste lan batzuk parteka zitzaketen (azokan, arropa garbitzaile, jostun...), dokumentu ofizialetan hori jasota geratzen ez bazen ere.

Horietako ofizio bat zen inude izatea. Inude izateak garaiko kategoria horiek zalantzan jartzen ditu eta paradoxa eder batekin egiten dugu topo. Batetik, ofizialki lantzat hartzen ez zen arren, lan horren existentziaren lekukoak ditugu. Bestetik, lana ez omen zen jarduera hori, ofizialki instituzio batek –Gipuzkoako Diputazioak gure kasuan– ordaintzen zuen. Gainera, erreproduktibotzat jotzen bazen ere, monetari-

zatua zegoen lana zen inudeena. Monetarizatua bai, baina enplegu gisa aitortua ez. Zer eta edoskitzen ematea, gainera. Emakumeen beren funtzio biologikoa eta soziala, beren esentzian eta izaeran zeramatena, beste emakume batek ematen zien haurrei. Gorputzetik abiatzen zen baliabide bat zelako bularra ematea, emakumeek soilik bete zezaketen funtzioa, bide batez esanda. Baina inudeen lana ez zen bularra ematera mugatzen, funtzio erreproduktiboak biologikoa den abiapuntu horretatik dimentsio sozial eta kultural oso bat hartzen baitu, denboran zehar luzatzen diren harreman horietan, zaintza eta behar fisikoak asetzetik haratago doalako.

Inudeen lana ez zen inola ere familia bat aurrera atera ahal izateko moduko diru -sarrera. Jakin nahi izan dugu, etxeko iturri aitortua, hau da, senarrarena zein zen.

16. TAULA: HERNANIKO INUDEEN SENARREN LANBIDEA, 1900-1944:

Fabrikako langileak	7
Jornalariak / langileak, zehaztu gabe	16
Nekazariak	9
Ofizioak[203]	3
Zerbitzuak[204]	3
Zehaztu gabe	10

Ehun sozial antzekoan egonda ere, ziurrenik bazeuden inudeen artean diferentzia batzuk, etxeko baliabideei dagokienez. Estutasun maila ezberdinak egongo ziren etxe bakoitzean, baina, inola ere ez lasaitasun ekonomiko bat, langile klasekoak ziren heinean. Inudeen diru-sarrera txiki hori funtsezkoa zen berez familiak biziraun zezan; soldatzen batuketa zen azken finean eltzea beteta edukitzeko estrategia familiarra.

5.4. PROFILEZ HARAGO: INUDEEN ERREALITATE SOZIAL KONPLEXUA

Profilak osatuz inudeek Hernanin zein eragin eduki zezaketen irudika genezake. Artxiboek gaiaren alderdi ofizialera gerturatzen lagundu digute. Bertatik lortutako informazio askok hutsune handiak dituzten arren. Zaila zaigu benetan jakitea, garaiko testingururik ezean, zeintzuk ziren inudeen eguneroko gorabeherak, beharrak, lanak, tentsio uneak, arrazoiak eta sentipenak. Zaila zaigu xehetasunak zeintzuk diren jakitea eta uste dugu horiek errelatoa aberastu eta osatzen lagundu dezaketela.

203 Arotzak, pintoreak, eta abar.

204 Trenbideko langilea, zaindaria eta postaria.

Inudeak politika higienisten eta medikuen objektu bihurtu ziren, gizartearen ohitura eta bizimodu higienikoa eta arautua ezartzeko bidean zein edoskitzen emateko pauta zehatzak ezartzeko bidean. Horretarako, mediku eta bisitatzaileek jarraipen zorrotza egiten zioten inude bakoitzari, baina, eskuartean izan ditugun paperek pentsarazten digute inudeek aldizkako jarraipen eta kontrol hori eduki zuten arren, gerora, haien aurkako neurri zorrotzenek –haurra kentzea, alegia– kasurik larrienetan soilik egiten zutela aurrera. Ohikoak baitira, Haur Espositoen Batzorde Probintzialak igorritako gutunetan, herrietako batzordeei inplikazio gehiago eskatzeko egindako kargu hartzeak.

Inudeek beren egunerokotasunean bisitatzaileen bitartez jasaten zuten zaintza eta behaketa. Heziera arautu eta zientifikoa bultzatu nahi izan zuten medikuek XX. mendearen hastapenetan eta, horren harira, inudeen gaineko kontrola areagotu zuten. Urko Apaolaza historialariak gerra aurreko testuinguruan kokatzen du mediku eta gaixotasunekin bertako hainbat herritarrek edukitako afera hau:

> *Hoiek ez, belarrekin medikuak ez ziren ibiltzen baiño gure aitak iltzia sartu zuenian [hankan] tetanoarekin ibili zan. Ama ordurako hilda genuen eta Altzako izeba etorri zan, harek ekarri zigun enplastera bat eta harek enplastoak jarri eta pasmobelarran ura eman ziyon. (...) Gau guztiya pasa genuen aitari txandaka pasmobelarra ematen; medikua ere etortzen zan baina medikuari ezin esan etortzen zanian! Eta gogoratzen naiz Egañaneko Anttonin amak esan zigula: "Esan egin biharko zaio medikuari, bestela..." "Bueno-bueno esango diyogu", berak esan ziyon, nola ekarri zuen gure izebak enplastera eta medikuak esan zuen "Bueno bueno, hau ona baldin bada..." (...) baiño segun ze medikuk? Denuntziya*[205]*!*

Pasarte honek inudeekin zerikusirik ez duen arren, herrian mediku eta jakitunen inguruan bizi zen errealitatearen berri ematen digu, eta pentsa dezakegu inudeek halako zerbait bizi izan zutela bisitatzaile eta medikuen inguruan, egin beharrekoaren eta haien usteen arteko talka horretan.

Zaila da baloratzen inudeen kontrolaren gaia. Izan ere, hainbat historialaren hitzetan[206], haur esposito askok indarkeria, zaintza falta eta gehiegikeriak jasan baldin bazituzten ere, eta errealitate hori ezinbestean aintzat hartu behar badugu ere, ziurrenik dokumentazioan eredu txarren isla baino ez da iritsi gaur egunera arte. Inudeek haur horien guztien biziraupena, zaintza eta hezkuntza bermatu zutela ez da dokumentazioan agertzen. Ahozko iturriek hori ezagutzen lagunduko ligukete, esperientzia

205 Apaolaza, Urko (2003): 62. or.

206 Valverde, Lola (1994): 175. or.

guzti horien konplexutasuna jasotzen: haur esposito bezala heztearen tabua eta pisu soziala, haurra zergatik uzten zuen amak benefizentziaren eskuetan, zeren arabera erabakitzen zuten inudeek haurra edoskitzea, eta zergatik erabakitzen zuten familia handitu eta urteetan diru trukean zaindu zuten hori familiaren parte bilakatzea, inude eta haurren arteko harremana, haur horiek familian txertatzeko zer-nolako trabak eduki zituzten, eta abar.

Ahotsak Proiektuak, Hernanikoak izan gabe, haur esposito izandakoek eskainitako testigantzak ezagutzeko aukera eman digu. Familietan txertatu eta bertako kide sentitzeari zegokionez, hainbat iritzi jaso ditugu. Adibidez, Bernabé Bergara tolosarrak dio bera beste haurrak –familiak zituen berezko haur biologikoak– baino hobeto tratatu zutela[207], baina haur abandonatua izatearen estigma eta deserrotzea ez zen haur guztientzat erraza izan, hartu zituen familiak horretan eragina izan baitzuen. Hala kontatzen du Katalina Tabar Lakuntzan jaso zuten haur espositoak:

> *Gazte denbora izan da... sufrimentua. Adoptatu, adoptatu... hezteko hartu zidaten. Nere amari umea hil zitzaion eta berak hazi zigun. Bi urte neuzkala, ama hil zen. Eta gero, bere ahizpak hartu zidan eta Lizarragara eraman zidaten. Seme bat zuten (...) eta neri, a palo limpio. Sei urterekin soroan, ez eskola ez ezer... (...) Paper bila arzobispadora joan nintzen, eta harek galdetu ea zertako nahi nuen jakin nere ama zein zan. Eta nik nahi nuela... nire sufrimendua bezala... zergatik nere bizitza oso tristea izan da, eta nahi nuela jakin... (...) Una ricachona de mucho cuidau (...) Se ve que no me quería y nada (...) Sei urterekin lanean soroan, behien aurretik soroan...*[208]

Ertz ugari dituen fenomenoa da haur esposito eta inudeena. Ondorio azkarrak ateratzea sinplekeria litzateke. Haur espositoek beren bizi ibilbidea ez zuten egoera errezenean hasten: ahuldurik iristen ziren tornu-etxeetara eta sehaska etxera, eta egiturazko inude eskasiaren ondorioz segurua da bizitzako lehenengo momentu erabakigarrietan oinarrizko elikagairik gabe egon zirela. Haur eta inudeen artean gainera, gaixotasunen fluxu handia egon ohi zen, haurrak jaiotzetik sifilia izan zezakeen –haur abandonatuetako batzuk prostituten seme-alabak izan zitezkeen eta baldintza prekarioen ondorioz lanbide horretan oso hedatuta zegoen gaixotasuna– edota inudeek hainbeste haurri edoskitzen eman ondoren zehaztu gabeko jatorria izan zezakeen gaixotasunak. Dena dela, Haur Espositoen Batzorde Probintzialak sehaska etxean jasotako haurren osasun ona eta sendotasuna azpimarratzen zituen behin eta berriro.

---

207 Bernabé Bergara Aginagak 2010-02-10ean www.ahotsak.eus proiektuan eskainitako elkarrizketa: https://ahotsak.eus/tolosa/pasarteak/tol-012-004/

208 Katalina Tabar Juanchek 2011-12-02an www.ahotsak.eus-i eskainitako elkarrizketa: https://ahotsak.eus/etxarri-aranatz/pasarteak/etx-030-004/

Kontuak kontu, haur horien babesa ziurgabea zela esatera ausartzen gara, gehiegizko lan orduak, higiene falta, dedikazio falta edo dena delakoagatik, haur guztiek merezitako denbora edo zaintzak jaso ez zituztelakoan gaude. Administrazioarentzat garrantzitsua izan zen heriotza horien kontrola eramatea, eta horregatik, hildako haurren zerrendak eskatzen zituzten maiz Batzorde Lokaletara bidalitako zirkularretan. Gehiegikeria horien berri dugu, zirkularrei esker:

> *Con harta frecuencia viene recibiendo esta Junta provincial de expósitos denuncias gravísimas no sólo sobre al mal estado de niños expósitos que se hallan en período de lactancia o de crianza a cargo de nodrizas, sino, lo que es aún más grave, sobre abusos que se cometen con niños ya prohijados, dedicándoles a trabajos excesivamente rudos e impropios para su tierna edad, y haciendo de las niñas, en algunos casos, objeto de tráfico inmoral por parte de sus prohijantes*[209].

Batzorde Probintzialak, ohar berean adierazi zuen salatutako kasuak ez zeudela oso zabalduta, nolabait, egoeraren kontrolak ez ziela eskuetatik ihes egin adierazi nahian bezala. Zentzu horretan, Batzorde Lokalen ardura eskatu zuen, halako egoerak saihestu eta salatzeko:

> *El conocimiento de algunos casos de abandono de la instrucción escolar y deficiente educación moral y religiosa, unidos a otros de explotación y maltrato de que pudieran ser objeto algunos expósitos por parte de sus prohijantes y guardadores, mueve a esta Junta a llamar la atencion a los señores Alcaldes, Párrocos y Médicos titulares de los pueblos, como miembros de las Juntas locales protectoras de expósitos*[210].

Bi zirkular horietan ikusten dugunez, bataren eta bestearen artean 13 urteko epealdia izan bazen ere, haur espositoek jasotzen zuten zaintzak, hainbat kasutan, zalantzagarria izaten jarraitzen zuen –kasu epelenetan–, eta haurren gaineko indarkeria kasuak egon zirela ikus dezakegu. Aipatutako adibideei beste bat gehitu ahalko genioke.

Gauzak horrela, inude guztiek, salbuespenik gabe, herrietako Batzorde Lokaletako bisitatzaileen gainbegiratzea jasan zuten, beti susmopean. Aipatzekoa da Batzorde Lokal hori osatzen zuen Emakume Taldeak eduki zuen garrantzia. Batzorde Probintzialak bidalitako zirkular guztietan, Emakume Taldeko kideei bereziki dei egiten zitzaien kontrol horretan esku hartu eta edozein salaketa egin zezaten. Ez ziren edonolako arreta deitzeak gainera:

---

209 HUA A-13-I-Lib. 7, Circular del 26 de agosto de 1916 de la Junta Provincial de Expósitos de Guipúzcoa.

210 HUA A-13-I-Lib. 7, Circular del 15 de junio de 1929 de la Junta Provinicial de Expósitos de Guipúzcoa.

Conocidos como le son a esta Junta provincial los sentimientos altamente caritativos que atesoran todos los individuos que forman la Junta local protectora de expósitos de esta villa y muy especialmente a la Sección de Señoras, a todos ellos se les dirige en demanda de su valiosa cooperacion a fin de conseguir el mayor bienestar posible de una clase tan digna de protección y de amparo como es la de los desgraciados niños que al nacer se encuentran abandonados por sus progenitores y confiados al cuidado de la administración; abrigando la seguridad de que este llamamiento a los sentimientos de caridad cristiana no habrá de resultar infructuoso sino que, por el contrario, cada Junta local y cada individuo en particular pondrán de su parte cuanto le sea posible para el logro de los fines humanitarios por todos apetecidos[211].

Batzordearen kontrolak bazituen alde onak. Heriotza nolanahi saihestea xede garrantzitsuena zein heinean. Esaterako, Cipriana Ezquioga 1874an jaio zen inude hernaniarraren kasua dugu. Inude honek Tomasa Ugarte haur abandonatuaren edoskitze eta zaintzaren ardura eduki zuen, 1900eko laugarren hiruhilekotik 1902ko abuztura bitarte[212]. Tomasak hilabete gutxi batzuk zituela hartu zuen bere ardura Ciprianak. 1902ko uztailaren 24an Hernaniko Batzorde Lokalak Donostiakoari ohartarazi zion haur hura inudearen etxetik ateratzea beharrezkoa zela, hobe zaindu zezaten. Batzorde Lokalaren iritziz, etxe horretan kide gehiegi bizi ziren, eta haurrarentzako elikadura eta zaintza egokiak bermatu ahal izateko beste etxe batera lehen bait lehen lekualdatzea zen egokiena. Udalaren zentsoaren arabera, Cipriana Ezquiogaren familiak honako osaera zuen: Juan Moreno, bere senarra, nekazaria zen. Ciprianak ofizialki etxeko lanetan egiten zuen lan. Senar emazteen ezkontzatik bost haur jaio ziren guztira: Ángel, Miguel, Juana, Manuel eta Gabriel, hurrenez hurren, 13, 11, 9, 6 eta 4 urte zituztenak[213]. Beraz, Tomasa Ugarte 3 urteko haur espositoarekin batera, 6 haur eta bi heldu bizi ziren etxe hartan, bizibidea nagusiki nekazaritza zuterlarik.

Hernanik Espositoen Batzordearen arabera, Moreno-Ezquiogatarrenean zegoen haur espositoa "egoera tamalgarrian" zegoen eta azkar eman behar zitzaion konponbidea arazoari. Donostiako Batzordeak ziztu bizian egin zion jaramon Hernaniko Batzordearen iradokizunari: aste eta erdiren buruan, 1902ko abuztuaren 4an, Tomasa Ugarte haurra kendu zioten Cipriana Ezquiogari.

211 HUA A-13-I-Lib. 7, Circular del 6 de febrero de 1911 de la Junta Provincial de Expósitos de Guipúzcoa.

212 Ezin dugu zehaztu zehazki noiz hasi zen haur honen zaintza, lehenengo datuak garai honetan hasten baitira.

213 HUA B-4-J-Lib. 2 Exp. 4.

Baina mediku, bisitatzaile, alkate, parroko eta emakume taldeko kideen kontrolak moraltasun kutsu nabarmena zuen. Eta hor dago koxka: inudeak higienismoaren paradigmetan enkoadratu nahi zituztela. Aitzitik, ama, emakume eta inude idealek ez zuten zerikusirik haur abandonatuak jasotzen zituzten inudeen errealitaterekin. Egoera horiek administrazioak sortzen zituen dokumentazioarekin ezagutzen ditugun heinean, gure irakurketak beti joko du alde batera.

Horren adibide dugu Eulalia Lizaso inude hernaniarraren kasua. 1939tik 1944ra bitarte zaindu zuen Silvestre Lecuona haurra, gerraoste betean. Kide ugariko nekazari familia bat zen honakoa. Sei seme-alaba, senarra zenaren anaia eta Eulalia bera bizi ziren -alarguna zen bera-.


Bi urtez Diputazioaren inude soldata jaso ondoren, Eulaliak Silvestre gaztea prohijatzeko tramite burokratikoak egiten hasi zen, 1941ean. Hernaniko Espositoen Batzordeak inude honen informeak biltzeari ekin zion. 1941eko martxoaren 11ean alkateak –erregimen frankistak jarritakoa– eman zuen erantzuna ezezko borobila izan zen. Alkatearen arabera, inudeak haurra maite zuela begi bistakoa zen. Baina ohitura txarrekoa zela iritzita -zehazki, "mozkortzeko joera" omen zuela- eta haurrari eredu eta hezkuntza onik eman ezin ziola argudiatuta, esan zuen haurra ez prohijatzea zela egokiena.

Alkateak Silvestre Lecuonaren prohijazio prozesua gelditu zuen. Baina hau da deigarriena: haurrak Eulaliaren zaintzapean jarraitu zuen. Horrela, hiru urteren ondoren, 1944ko martxoaren 21ean Hernaniko Espositoen Batzordeak idatzi batean argi utzi zuen Eulaliari Silvestreren ardura berehala kendu behar zitzaiola.

Eulalia Lizasok bere esku zegoena egin zuen Silvestre haien familian gelditu zedin. Eskutitz bat idatzi zion Gipuzkoako Batzorde Probintzialari. Bertan, bere errugabetasuna frogatzen saiatu zen. Silvestreri bost urtetan zehar zaintzen egon zela eta denbora tarte horretan zehar tratu txarren salaketa bakar bat ere ez zuela jaso azpimarratu zuen. Eulaliak inguruko bizilagunen sinadurak bildu ondoren bidali zuen eskutitza.

Zein arrazoigatik eten zuten 1941an Silvestreren prohijazioa? Zein zen Eulaliaren bizimodua txartzat hartzeko benetako kausa? Zergatik jarraitu zuen Eulaliak Silvestre zaintzen, prohijazioa eteteko arrazoia Eulaliaren eredu txarra zenean? Zergatik sinatu zuten Eulaliaren bizilagunek eskutitza? Tamalez, bertan eteten da kasu honi buruzko dokumentazioa eta ezin dugu historia honen amaiera jakin.

Aipatu ditugun kasuek laburbiltzen dute esperientzia historiko horren konplexutasuna. Inudeek beren jarduna biziraupenerako bitarteko gisara erabili zuten, dudarik gabe. Baina praktika hori ez zen horretara bakarrik mugatzen. Praktika horrek elkar lotzen zituen bi subjektuen arteko harremana abiarazten zuen, testuinguru txirotu baten gordintasunean. Garaiotan haurren bizitzari garrantzia ematen hasi zitzaion baina, aukera eta baliabide materialak ez ziren oraindik egokienak, batez ere inudeentzat.



Sr. Presidente de la Junta provincial de Expósitos de Guipuzcoa.

La que suscribe [redacted] mayor de edad, viuda, vecina de Hernani, con domicilio en la casería [redacted] a V.S. atentamente dice:

Que en virtud de orden de la Alcaldía de esta villa ha tenido que entregar en el Hospital de Tolosa el expósito [redacted] que venía criandolo desde hace cinco años sin que por nadie se le llamara la atención por malos tratos ni por dejar de atender cuanto necesitara, tanto en vestido como en manutención, y como según se le ha informado no ha sido reclamado por su legítima madre, previos los trámites Reinformes que estime V.S. pertinentes

SUPLICA se sirva ordenar le sea devuelta la criatura, pues todos los vecinos de lasinmediaciones pueden dar satisfacción plena de su comportamiento respecto al huérfano.

Es gracia que espera merecer de V.S. cuya vida guarde Dios muchos años.

Hernani, 4 de mayo de 1.944.

Eulalia Lizasoren eskutitza. (Iturria: HUA A-13-I-7. Lib.).

Haurren lana erregulatzea da horren adierazleetako bat. Ziurrenik haurrak beren etxe eta baserrietan lan egiteko prohijatu zituzten hainbat eta hainbat familiatan, baina, nahi horiek egonda ere, horrek ez du esan nahi familia horietan haurrak integratu eta familiako kide bihurtu ez zirenik. Nahiz eta zenbaitetan ez zen erraza izango haurrarentzat, egiazko amaren "lotsaren" zama gainean izanik, familia horietan ondo errotzea.

Gure asmoa ez da fenomeno horiek guztiak baloratzea, horiek mahaigaineratu eta gaur egunera ekartzea baizik. Inudeek gizarteari ekarpen berebizikoa egin zioten, baztertuenak eta babesgabeenak ziren haur horiei beren etxeko eta gorputzetako atea irekiz eta bizitzen irauteko beharrezko esnea emanez. Diru iturri izateaz gain, emakume horiek euren bularren esnea eman zioten falta zutenari. Eta oinarrizko esnea eta zaintzak ematearekin batera, etxe batean jaso zituzten. Finean, aukera bat izan ziren baztertuta zeuden haur horientzat. Batzuek lan esku izaten bukatuko zuten, familia horietan. Hasiera berri bat izan zitekeen, ordea, indarkeria gabe bizitzeko zortea eduki zuen haurrarentzat.

Eta inudeentzat, aldiz, baliabide propio batetik, etekin posible bat lortzea zen jardun horretan aritzea. Gorputzeko baliabide batetik, esnea zuten emakumeek soilik bete zezaketen lan eta ekarpena egin zuten, lan hori estatistika ofizialetan onartuta egon ez bazen ere. Gipuzkoako Diputazioak, inudeak lortzeko zailtasunak ikusirik, soldatak igo bazituen ere, osagarri izatera kondenaturik zeuden ordainsariak jasotzen zituzten inudeek. Soldata duinagoak eskaintzea, agian, hori bermatzeko modu bat izan zitekeen, inudeei karitate eta altruismoa eskatu beharrean.

6.

HAINBAT HERNANIARREN TESTIGANTZAK

6.1. ANTTONI: BI ALDIZ INUDE[214]

Gerra aurre eta gerraostera egin behar dugu atzera Anttoniren eta Joakinen historia ezagutzeko[215]. Ihintza hernaniarraren testigantzaren bitartez izan dugu bere izeba eta lehengusuordea zirenaren bizipen eta historiaren hainbat pasarte.

Anttonik bere-bereak ez zituen haur bati baina gehiagori eman zien bularra, esne eta bular oparokoa baitzen bera. Zehaztuko ez dugun herri txiki batean, Tolosatik gertu, baserrian zuen bizibidea Anttonik. Familia handia osatu zuen bere senarrarekin batera: 5 haur eduki zituzten guztira, hazteko eta bularra emateko etxean hartutako haurrak kontutan hartu gabe, hori bai. Bularra emateko hartutako haurrak bi haur izan ziren guztira.

Oro har, baserriaren lanaren zama Anttonik zeraman, bere senarrak elektrizista bezala egiten baitzuen lan, argiaren kableak trenaren bideari jarriz, zehatz esanda. Goizean goizetik irteten zen senarra etxetik eta iluntzera arte egoten zen kanpoan lanean, eta beraz, Anttonik baserria eta haur guztien ardura zuen bere gain.

214 Ihintzari 2018-03-06an eta 2018-03-22an egindako elkarrizketak.

215 Kontakizun honetan aipatutako izen guztiak ordezkoak izango dira. Testigantza eskaini zigun Ihintzarekin hala adostuta.

Hori gertatu al zain? Ekatzu, nik haziko det...
Anttonik elkartasunez haur bat hazi zuenekoa

Gerra aurrean gertatu zen etxera lehenengo haurra jaso beharra. Ondoko herrian pilota partida ari zen jokatzen. Jokalarietako bat inguruetako gizon ezaguna zen, medikua baitzen bera. Pilota partiduak bizitza lapurtu zion gizon hari, izan ere, buruan –lokian, zehazki– pilotakada jaso ondoren lurrera ziplo erori eta seko gelditu zen frontoian: bertan hil zen.

Medikuaren emaztea alargun gelditu zen, bi seme eta bi alabarekin. Horietako bat jaioberria zen, sei hilabete edukiko zituen gehienez. Emaztearentzat senarra hil zitzaionean pena eta atsekabea izugarriak izan ziren. Horren eraginez, bularra erretiratu egin zitzaion; esnea moztu.

Ondoko herrian, Anttonik, bere bular oparoetatik ematen zion esnea bere haur jaioberriari. Berria iritsi zen alboko herritik, eta eskaera baita ere. Alargundu berri zen andreak ezin zion behar zuen esnea eman bere haurrari eta Anttoniri hainbat hilabetez hartzea proposatu zioten. Bere umearekin batera hazi eta bularra eman zion ondoko herriko haur umezurtzari. Bi haurrak parekoak ziren denboraz, eta batari zein besteari eman zien behar zuten esnea. Hilabete luzez eduki zuen etxean ondoko herriko medikuaren eta emazte alargundu berriaren haurra bere kargupean eta zaintzapean; urte eta erdiz edo bi urte inguruan. Anttonik, elkartasunez egin zituen inude lanak, beharrak hala eskatuta eta bere bularren baliabideari probetxua ateratzeko.

Haurra Anttoniren etxean koxkortu zen eta 2-3 urte beteta, bere amarengana bueltatu zuten atzera. Denbora tarte horretan guztian, hainbatero haurraren amak Anttoni eta bere seme txikiena bisitatzen zituen. Harremana mantendu zuten, Anttoniren etxean haur txikia hazten edukitzeagatik ere, haurra nola zegoen jakin nahi baitzuen hark.

Egokia iruditu zitzaienean, haurra aurrera aterako zela ziurtatzean eta koxkortu zela ikustean, alegia, ama alargunak bere seme txikia beren familiara itzuli zuen.

Joakin *alprojaren* ezinegona
Anttonik Fraisorotik haurra familiara ekarri zuenekoa

Zaila zaio, testigantza eman digunari, zehazki Joakin *alproja* haien familiara noiz ekarri zuten esatea. Gerra amaituta, Joakin Fraisoroko sehaska etxean utzi zuten.

Gerra denboran, “ahal zuenak alde egin zuenez”, Joakinen amak gauza bera egin zuen. Hiru anai-arreba ziren Joakinen jatorrizko familian: alaba bat eta bi seme. Zergatik ez badakigu ere, familia osoak Argentinara egin zuen ihes, bi semeek izan ezik. Joakinen arreba, ama eta aita joan ziren Ameriketara, eta bi semeak Fraisoron utzi zituzten, Diputazioaren ardurapean.

Bi anaiak Fraisoron utzita, Gipuzkoako txoko ezberdinetako familia banatan kokatu zituzten haur esposito bezala, inude banak zain zitzan. Joakin eta bere anaia oso txikiak ziren, eta nagusitu ziren arte ez zuten batak bestearen berri eduki, ezta beren jatorria zein zen jakin ere.

Anttonik beste haur bat eduki zuen eta bular oparoa edukitzen jarraitzen zuen. Denboraz pareko zen beste haur bat ekartzea erabaki zuten, eta bigarren aldi horretan Fraisorora jo zuten. Anttoni, beraz, Joakinen inude izan zen eta Joakin haien familiako beste kide bat bilakatu zen.

Aipatu dugunez, Anttoniren familiak bere bizibidea baserritik lortzen zuen. Merkatuan saltzen zutena eta senarraren soldata ziren diru iturri nagusiak eta Fraisorotik umea hartzeak beste dirutxo bat ziurtatu zuen hainbat urtez, txikia baldin bazen ere.

Joakin txikia zela hartu zuten, eta hasierako urteetan bularra eman zion Anttonik, denboraz pareko zuen haur txikiari ematen zion batera. Ondoren, familian gelditu zen Joakin, ziurrenik prohijatu egin zuten.

Joakinen ezinegona

Joakin ez zen ume lasaia izan, arazo ugari eragiten zuen ume bihurria izan zen antza, horregatik deitzen zioten *alproja*. Eskolara noizean behin joaten bazen ere, gehienetan piper egiten zuen. Ez zitzaion eskola gustatzen eta baserrian ere nekez ibiltzen zen. Kostata eskaintzen zuen laguntza. Eskatuta, agian eman zezakeen. Familian askotan ez zekiten zehazki non zegoen eta beti komeriren bat zuen, “ez soroan, ez ganaduarekin, ez lanean... orduan ezin izaten zuten harekin ezer egin, ez morroi ez ezer”; beti bere atzetik ibiltzen ziren familiako kideak.

Joakin mugitua zen berez, baina, koxkortu ondoren, konturatu zen haiek ez zirela bere gurasoak, eta beti ibiltzen zen ez han eta ez hemen, batetik bestera, “ez baitzen leku batean egoteko gai”.

Baina Joakin haien amonarekin ez zen batere ondo konpontzen, eta berekin edukitzen zituen arazo handienak. “Txakur eta katu” ibiltzen ziren Joakin eta haien amona. “Oain e, ez al haiz eskola jun? Etorri hai honea, nik esango zioat maisuai... berriz ere hobe huke mixerikordin sartu!”. Amonak beti “madarikatua hua!” haien etxekoa ez zelako. Eta hantxe ibiltzen zen amona, Joakin *alprojaren* atzetik, sutarako burdinarekin segika, garrasika.

Eguberri batzuetan, Joakinek goroldioa basoan bilduta Bretxako merkatuan saldu eta diru apur bat lortzera joan zen. Lortu zuenarekin pandereta bat erosi zuen, eta hortxe ibiltzen zen, ohera joan eta lo hartu bitarte jo eta jo. Amona, haserre, lo egiten ez uzteagatik.

14-15 urtekin zigarroa erretzen hasi zen mutikoa, eta amonak ikusten zuen bakoitzean, berriro ere sutarako burdinarekin atzetik jarraitzen zion: "Harrapatuko haut! Harrapatuko haut!" eta Joakin *alproja*k ihes egiten zion amonari, baserri atarian zuten magnolia handian igota "Amona, kuku, kuku! Ez nauzu harrapatuko! Ez nauzu harrapatuko!" egiten zion burla. Eta hala esaten zion, gainera: "Ni handia naizenean, sartuko det amona barku batean, soka moztuko diot eta han joango da itsasora!".

Bere lehengusinek, noski, barre egiten zuten Joakin *alproja*ren ateraldiekin. Baina Joakinek bere ezinegonarekin jarraitzen zuen, ezeri lotu ezinik.

Baina zer egin Joakinekin?

Joakinek inguruko guztiak nekatuta zituen bere joan etorriekin. Baina Anttonik eta bere ahizpetako batek, Mariak[216], oso harreman estua zuten. Bi ahizpak senideen artean txikienak ziren, eta zerbait behar baldin bazuten, haien artean moldatzen ziren. Anttonik edozein larrialdi edukiz gero, Maria ahizparengana jotzen zuen, eta hark laguntzen zion behar zuena lortzen.

Hortaz, bien etxeetan egiten zuen bizimodua Joakinek. Denbora batez Anttonirekin ibiltzen zen, eta gero "aspertzen zenean" edota "menderatu ezinik" ibiltzen zirenean, Anttoniren ahizparen baserrira, Mariarenera, lekualdatzen zen, Hernanira. Joakin Anttoniren eta Mariaren baserrien artean bizi zenez, amonak kontrako bidea hartzen zuen beti.

"Agian, gurean hilabete pasa zezakeen, eta gero desagertu... eta hara, telefonoa!" Anttoni zen "gure etxean dago, Joakin *alproja*!, ez da galdu, ailegatu da, eta hemen edukiko degu beste denbora batez". "Berak nahi zuena egiten zuen", dio Ihintzak, gure lekukoak.

Diputazioaren aurrean izandako jarrera: *Nola kenduko genion askatasuna?*

Familiako kideen artean moldatu ziren beraz, Joakinen gorabeherak ondoen eramateko. Bai Anttonik eta bai Mariak Joakin bere kasara uzten zuten. Izan ere, bere portaeraz nekatuta egonda ere "nola botako zuten etxetik?". Joakinek inguruko baserrietan ere ematen zuen zeresana. Berak dirua nahi zuenez, lapurretan ibiltzen zen askotan, inguruko baserrietan. Gauetan lapurretan ibiltzen zen, "adibidez, sagarrak hartzen zituen eta gero beste nonbaiten saltzen zituen". Baina inork ez zion kasurik egiten, ez zen inoiz lapurreten parte eman edo salaketa jarri, baserrikoetakoek ere bazekiten zer zen gertatzen zena: "Hau Joakin *alproja*ren lana da!" esaten zuten. "Aitzurra non utzi zenuen... soroan? Ba han utzi bazenuen, honek hartuko zizun, eta honez gero saldu!". Oso bizia zen, eta horregatik deitzen zioten Joakin *alproja*.

216 Ihintzaren ama zen Maria.

Eta ez, inguruko baserrietakoek ere ez zuten inoiz Joakinen portaera bihurri eta zailaren parterik eman. Familian ere hala ibiltzen ziren, beti Joakinen bizkartzain. Hortaz, noizean behin Diputaziotik eskutitz bat jasotzen zutenean, aldizkako bisita laister egitekoak zirela gogorarazten zuen oharra jasotzen zutenean, Joakin Mariaren baserrira bidaltzen zuen Anttonik. Bihurria izanda ere, nahiago baitzuten nola edo hala konponbideak bilatu Joakin Fraisorora berriro bidaltzea baino. "Beti gordeta ibiltzen zuten, hain bihurria zenez, askatasuna ez kentzeagatik... Diputaziokoak etortzen zirenean, beti ihesi...".

Familiaren bilaketa

Joakinek ez zuen Fraisorotik hartu zuen familiaren abizenik hartu. Ez zioten eman, koxkortu bitarte itxaron nahi izan zutelako. Baina, gero hark jakin zuen ez zela familia horretan jaioa eta beraz, bere abizena mantendu zuen.

Hori jakin zuenean ulertu zuen bere ezinegona zein zen. Finean, "bere tristura, salto eta brinkoekin konpontzen zuen". Baina 21-22 urte zituela, Anttonik beregatik egindako guztia estimatzen ikasi zuen. Eta orduan hasi zen: "Bilatu behar det ba, Villabonara joan, artxiboan, bilatu behar det...".

Behin eta berriro joaten hasi zen Fraisorora eta bertako artxibo eta liburuetan arakatuz eta bertakoei galderak eginez jakin zuen anaia bat bazuela, berekin batera han utzi zutela; eta horretaz gain, bere amaren izen-abizenak zeintzuk ziren ere jakin ahal izan zuen.

Bere anaia aurkitu zuen lehenengo. Garai horretarako ezkondua zegoen Joakin, eta hainbat haur zituen jadanik –guztira sei izan zituen–. Beti jakiteko behar horrekin ibili zen eta azkenik anaia aurkitu eta non bizi zen jakin ahal izan zuen, eta baita bertaratu ere. "Hi nere anaia haiz". "Hi, nor haiz ba?". Eta hala, bere anaiak ere jakin ahal izan zuen beren jatorria zein izan zen.

Gero jakin zuen bere ama eta haien arrebetako bat Ameriketatik iritsi zirela eta Madrilen hartu zutela berriro bizitokia. Joakin bertaratu egin zen ama ezagutzeko beharrez. Elkar ezagutzera iritsi ziren azkenean, eta amari kontatu ahal izan zion non bizi zen, zein familia zuen, zertan lan egiten zuen, nor zen. Dena azaldu ondoren, amak "*llévame para allá"* eskatu zion, baina, Joakinen erantzuna ezezko borobila izan zen. *"Antes me dejaste, y ahora, fastídiate... yo no te voy a coger. ¿Por qué no me llevaste a mi también a Argentina?*[217]".

217 Joakinen ama ez zen euskalduna. Testigantza eman zigun hizkuntzan utzi dugu.

Ez zion ama noizbehinka bisitatzeari utzi Joakinek. Ezinegona baretu ahal izan zuen denborarekin, baina, bere bizitza baldintzatu zuen Fraisoron abandonatu izanak. Jatorria zein zen ez jakiteak bihurtu zuen *alproja,* bihurri, mugitu, urduri.

Denborarekin ulertu zuen hori dena, eta hil bezperatan esan zion Ihintza, gure elkarrizketatuari: "Ai... Oraintxe jakindu det, zergatik eramaten ninduten zuen baserrira, Hernanira,... Diputaziokoak etortzekoak ziralako!". "Beti gordeta" ibiltzen baitzuten, askatasuna ez galtzeagatik...

6.2. ANGEL MARI, FRAISOROKO HAURRA: BIZITZAREKIN KONFORME[218]

Angel Mari 1950ean jaio zen Zizurkilen. Ziurtatzerik ez badu ere, ziur aski Fraisoro Sehaska Etxean jaio zen. Baliteke bere ama biologikoa zena bertan erditu izana. Izan ere, oroitzapen lauso bat besterik ez du garai horietaz. Gauza bat badaki: 6 urte zituela atera zela bertatik. Ez du gogoan beste etxeren batean egon ote zen bitartean, beste familiaren batekin, edo Fraisoron eman ote zituen bere bizitzako lehenengo urteak. Izan ere, Fraisoroz eta bertakoez ez du ezer gogoan.

6 urte zituela iritsi zen Hernanira, bere gurasoak izango zirenek "Donostiako abokatu baten bitartez" paperak egin ondoren. Horrela, jatorrizko bi abizenak galdu zituen eta guraso berrienak hartu. Angel Marik ez du aipatzen zein prozedura legal erabili zuten haien harreman berri hori legeztatzeko, ziur aski ez baitaki. Baina, prohijazioa edo adopzioa izan zitezkeen. Urte luzez Diputazioko ordezkari bat, Andrés, etxean agertu ohi zen dena ondo ote zihoan ziurtatzera. Bi urtean behin pasatzen zen etxetik, eta mutikoa nola zegoen bere begiz ikusten zuen; ondoren elkarrizketa luzea izaten zuen gurasoekin.

Guraso berriek lehenago Fraisoroko beste mutiko bat izan zuten haien familian. Fraisorotik hartutako mutikoa haien etxean noiztik eta zenbat denboraz egon zen ez bazekien ere, bera baino zaharragoa zela itzuli behar izan zuten. Kasu honetan ez Fraisoroko Sehaska Etxera. Mutikoa bere guraso biologikoek berreskuratu zuten, legitimatu eta jada bere kargu egiteko prest zeudela adierazi ondoren.

Gauzak honela, denbora tarte baten ondoren, Angel Mari hartu zuten Fraisorotik haien etxera. Baserrian bizi ziren, Hernanin. Aitak, baserriko lanetaz gain, fabrikan egiten zuen lan eta ama etxeko andrea zen. 6 eta 10 urte bitartean haiekin bizi izan zen, eta noski, baserrian soroan, txerriekin eta abar gogoratzen ditu urte haiek.

218 2018-05-25 Angel Mari hernaniarrari egindako elkarrizketa. Ordezko izena da, elkarrizketatuarekin hala adostuta.

Hernaniko eskolan ikasi zuen aurrena, gerora 10 urterekin Andoainera mugitu zen. Han, lehengusu bat bizi zen emaztearekin eta bi seme-alaba txikirekin. Haien etxean lau urtez egon zen Angel Mari, Hernanitik gurasoak noizean behin bixitan etortzen zitzaizkiola. Baina ikasketak gogoko ez, eta lanean hasi zen, 14 urterekin. Hernanira itzuli zen, gurasoengana. Garai horretan hil zen ordea, Angel Mariren ama. Aitarekin batera jarraitu zuen, baserrian, 25 urte inguru bete zituen arte. Gerora, baserria atzean utzi zuten eta pisu batean jarri ziren.

10 urte inguru zituenean jakin zuen Fraisorotik hartu zutenak ez zirela bere gurasо biologikoak, Hernaniko gurasoek esanda. Baina hori beretzat ez zen izan oztopoa eta ez zion buruhauste handiegirik eragin. Jakin bazekien ere, gustora eta eskertua zegoen Fraisorotik hartu zuten gurasoek beregatik egindakoagatik. Horregatik, Diputaziotik noizean behin etxera bisita egin eta kontrolatzera etorri izana gogoratzen badu ere, dena ondo joan zenez, ez du kexarik. Bestalde, ez du inoiz egin inongo esfortzurik bere gurasoak nor ote ziren jakiteko, "alperrik izango litzateke" haren ustez. Lagunen artean, batzuk jakin bazekiten bere jatorria zein zen, baina, ez zion inongo arazorik suposatu eta ez zuen inongo bazterketarik sufritu lagunartean. Dena dela, aitortzen du, jende askok ez zekiela.

Hernaniko baserrira iritsi zenean, ondoko baserriko bat ere Fraisorotik hartua ote zen susmoa du. Baina ez dago ziur. Ez du bere ezaugarriak betetzen dituen beste inor ezagutzen. Eta hori bera da, gai honen inguruan egon zitekeen tabuaren isla.

6. 3. JOAKINA: BASERRIA TXIKI GELDITU ZITZAION INUDEA

Ixiar hernaniarraren bitartez jaso dugu honako testigantza[219]. Hernaniar honek, inude mota bat baina gehiago ezagutu du bere bizitzan zehar. Haren bidez, solte zeuden hainbat hari mutur lotzea lortu dugu.

Osaba baten amak inude bezala jardun zuen. Inude hau ez zen izan haur abandonatuei bularra eman eta familiara ekartzen zituen inude horietakoa, ordea. Osaba jaio ondoren, hirira egin zuen alde, aberatsen baten haurrak



Joakina, Aranoko inudea.

219 2018-03-07an egindako elkarrizketa. Ordezko izena da, elkarrizketatuarekin hala adostuta.

zaindu eta etxean zerbitzatzera. Baina Ixiarrek badu susmo bat, haur abandonatuak zaintzen zituzten inudeak bazirela esaten diona:

> *Emakume aberatsak ez ziranak... beren haurrak izan edo komeriren bat eduki, ezin hazi edo, bularrik ez edo... auskalo! Bazeudela andre arruntak lan hori itten zutena. Nik ez dakit dirua kobratzen zuten edo ez, borondatez itten zuten... geyo ez dakit (...) emakume arruntak, beren mantalakin ta etxeko jantziyakin... haurrak hazitzeko. Hoi ere bazeon.*

Hariari tiraka beraz, konturatu gara baietz, Ixiarrek uste baina gehiago zekiela gaiaren inguruan. Izan ere, Hernanin bertan ezagutu zuen bi anaien arteko kasuren bat. Biak berdintsuak zirenez, komunean zuten pertsona batek aipatuta, batak bestea aurkitzea lortu zuten. Ezkutatzen ziren kontuak omen, bi anaia horiek kasualitatea izan zuten lagun eta euren antza handia zela-eta, batak bestea aurkitzea lortu zuten. Gerora, gainera, ama nor zen ere jakin ahal izan zuten.

Joakina: baserritar bat XIX. mendearen amaieran

Eta bai, hasieran uste zuena baina gehiago zekien inudeen inguruan gure elkarrizketatuak. Bere amaren parteko familian Fraisorotik haur bat hartu zuen birramona baitzuen: bere amaren amona, hain zuzen.

Joakina Nafarroako Arano herrikoa zen. Bere historia ezagutzeko, denboran atzera egin behar dugu. Ixiar 1930an jaio zen eta, beraz, bere birramonaren historia aurreko mendearen azken herenean kokatzen da.

Familia zabala zuten eta baserritarrak ziren denak. Sei haur inguru eduki zituzten Joakinak eta haren senarrak eta denak bizi ziren baserrian. Baserrian jaioa zen bera ere, eta bertan egin zuen bizimodua. Lanik ez zitzaion falta bertan, senitartekoek gogoratzen dutenez. Baina, emakume gogorra zen Joakina, langilea, eta baserriko lanaz gain herrian denda irekitzea bururatu zitzaion. Dirudienez, baserria txiki gelditzen zitzaion hari, eta beste zerbait nahi izan zuen. Saltokia ireki zuen beraz, eta ahal zuen bakoitzean ordu batzuez lan egiten zuen han, gero baserrira itzuli eta lanean jarraitzeko. Horri, bata bestearen atzetik zetorren haurren zainketa eta edoskitzea gehitu behar zitzaizkion, noski.

Joakinak haurra galdu zuenekoa

Herrian zabaldutako denda ez zegoen baserritik batere gertu. Hargatik, batetik bestera oinez bide koxkor bat egin behar izaten zuen egunero eta normalean, bakarrik. Erditzear zela denda irekitzen jarraitu zuen, nonbait, emakumeak. Besteak bezalakoa zirudien egun batean, denda itxi eta baserrira bueltan zela, erditzen hasi zen, bat batean. Mendian zegoen Joakina, baserritik urruti, bakarrik. Mendian erditu zen Joaki-

na, eta bertan jaio zen haurra. Erditzetik nolabait errekuperatuta, altxa eta baserrira bidea berrartu zuen Joakinak. Haurra amantalean bildu zuen, nolabait, eta lortu zuen baserrira iristea. Haur jaioberriak, ordea, ez zuen gehiegi iraun. Baserrira bizirik iritsi bazen ere, denbora tarte labur batean zendu zen.

Badirudi familian naturaltasunez bizi izan zutela heriotza hori: "Momentu hartan haur asko hiltzen ziran eta... hori mendin eduki zuen, basarritik urruti, eta klaro, ez zegon oraingo erremediyorik...". Baina esnea zuen bularrak estima handia zuen momentu hartan. Batzuek esnerik ez zutelako eta bularreko esnea ordezkatuko zuen produkturik saltzen ez zelako, esne oparoko bularrak beti ziren garrantzitsu. Beraz, oraindik bularretan esnea zuela aprobetxatuta, Joakinak haur bat hartu zuen Fraisorotik: Cristina.

Cristina: kide bat gehiago familian

Umea txiki xamarra zela hartu zuen Joakinak, hil zen haurraren pareko nonbait. Diputazioaren diru sarrera jaso zuten horregatik, inude guztiek bezala. Ez dirudi Diputaziokoekin arazo handiegirik eduki zuenik; Cristina ondo moldatu zen familiara.

Haur ugari hiltzen zen garai batean, baserrian haurren garrantziaz ohartarazten digu Ixiarrek, baserriari jarraipena emateko eta baserriari eusteko haurrek betetzen zuten paperaz. Baserrietan hainbeste labore egiteke, esku guztiak ziren ongi etorriak. Diputazioaren diru sarrera horretaz haratago, txikitatik ardi edo behiekin larrera joatea edota edozein lanetan trebatzen hastea garrantzitsua zen. Lan eskua edukitzea, alegia.

Cristinaz gain, ez zuen beste haurrik jaso inude bezala Joakinak. Cristinari hasiera hasieratik etxeko abizenak eman zizkioten, eta familiako senide bat gehiago izan zen. Ziurrenik prohijatu egin zuten, 7 urte bete zituenean.

Herria txiki: Amerika, mundu berria

Badirudi, ordea, etorkizunean pentsatzeko momentua iritsi zela halako batean. Baserria ezin zatitu eta Joakinaren seme-alabetako batzuk Ameriketara joan ziren, Argentinara, aukera berrien bila. Hasiera batean, Joakina bertan gelditu zen, herrian, baserrian, zaintzan.

Baina baserria txiki zuen berriro hark, eta azkenean, Ameriketara bidea egin zuen, bere seme-alabekin elkartzera. Bidaia hura Cristinarekin egin zuen, itsasontziz. Bertara iritsi zenean, bere semeetako bati gogorarazi zion andrea eta haurrak herrian utzi zituela eta hori ez zela egokia. Baserrira itzularazi zuen seme hori, hasi zuen bidaia deseginarazi zion. Joakina, ordea, gelditzeko iritsi zen Argentinara. Biek, behinola inude eta haur esposito izandakoek, Argentinan egin zuten bizitza, lurralde zabalago batean.

7.

ONDORIOAK ETA AZKEN HAUSNARKETAK

XX. mendearen lehenengo erdian inude izateak berekin zer zekarren ezagutzen saiatu gara orrialdeotan. Zein markotan lan egiten zuten jakin nahi izan dugu, kontuan hartuz marko zehaztu eta teoriko batek ez duela zertan beti errealitatearekin bat egin. Subjektuak testuinguru sozialak, ekonomikoak, historikoak zein generoak baldintzatuta daude, baina horrek ez du esan nahi norbanakoak ere horri egokitzen ez zaizkionik eta erreproduzitzen ez dutenik.

Haur espositoak zaindu zituzten inudeen kolektiboaren esperientzia historikoa konplexua izan zen oso. Kolektibo hori era isolatuan ulertzea akatsa litzateke eta horregatik uste dugu haurren eta inudeen artean zegoen tentsioa azpimarratzea ezinbestekoa dela. Konplexutasunak erpin asko ditu eta askotan elkar elikatzen dira. Inudeen behar ekonomikoetatik hasi eta haur eta inudeen arteko afektuan bukatzeraino, ikusi dugu kasuak eta egoerak era askotarikoak izan zitezkeela: haurren esplotazioa, haur abandonatua izatearen zama, behar eta pobreziaren mugan harilkatzen ziren harremanak, inudeek gizartean zuten posizioa eskasa, inudeen lanak berak enpleguaren estatusa ez izatea...

Inudeen lanaz hitz egitea **biziraupenaz eta bizitzaren zaintzaz hitz egitea da**. Haur espositoen inude izatea emakume txiroen edo familiarentzako beste diru-sarrera bat gehitu nahi zuten emakumeen kontua zen. Baldintza horiek pobrezia eta eskasiazko bizimodua zekartzaten berekin, eta zerbitzu hori eskainiz ez zen egoera hobetzen; diru-sarrerak, esan bezala, merkatuko kaskarrenetakoak ziren. Errealitate horrek inudeen inguruko estereotipo negatiboa elikatzen zuen. Ekonomikoki baldintza kaskarretan bizitzeak sozialki errezeloz ikusiak izatea zekarren berekin: nekazariak, maila

sozial baxukoak, analfabetoak, edukazio falta nabarmenekoak, ezjakinak, krudelak... sozialki eta moralki bizimodua "zalantzagarria" zuten emakumeak ziren. Ohiturak, elikadura, hezteko modua... azken finean, haurrak zaintzeko modua eta bizitzeko modua jartzen ziren zalantzan. Are gehiago, zalantzan jartzeaz gain, beren ohiturak gutxietsi eta aurpegiratzen zitzaizkien. Iritzi horiek, hein handi batean, mediku eta adituen aho eta idatzietatik irteten ziren gainera.

Inudeen figurak berak eta beren zaintza "ez zientifikoek" talka egiten zuten bultzatu nahi zen emakume eta amatasun ereduarekin, horregatik sortu zen mespretxuzko jarrera hori, haien inguruan **"ama onaren" antitesia** zer zen laburbiltzen saiatu baitziren garaiko higienistak.

Amatasun senaren diskurtsoa sorkuntza historiko-kulturala da. Amatasun eredu moderno eta burgesean ama biologikoen funtzio gorena bere haurrak zaintzea zen, hori zen haien betebehar nagusia. Beraz, beste norbaitenak ziren haur batzuk zaintzeagatik dirua irabaztea arbuiagarria zen liberalen ustez. Ama baten betebeharra, betebehar izateaz gain, funtzio primario bat zen. Ama batek guztiz modu desinteresatuan egin behar zuen lana, maitasunagatik. Eta beraz, **diruagatik haur bat zaintzen zuenak ezin zuen lan hori ondo egin, interesagatik egiten baitzuen, eta interesean ez zen maitasunik**. Zaintza monetaritzatzea deitoragarria iruditzen zitzaien. Gainera, inudeek beren haurrak ez omen zituzten ondo zaintzen, ez zieten denborarik eskaintzen, ez ziren haientzat bizi. Diru truke besteenak zaintzen zituzten bitartean, haienak are gehiago "ahazten" zituzten eta hori zen gertaerarik salagarriena higienisten ustetan.

Amatasuna emakumeek beren izatean naturalki eta instintiboki duten zerbait izatetik ikas daitekeen zerbait izatera igaro zen eta hori izan zen XX. mende hasieran egon zen aldaketa nabarmena. Ordura arte, inudeak erreformatu ezin ziren emakumeak ziren. Baina higienistek, esan dugunez, amatasunaren inguruan zientzia bat sortu zuten eta klase dirudunetako emakumeak egunkari, liburu eta publikazioekin hezi zituzten beren egitekoa ondo egin zezaten. Klase apaletako emakumeak ere hezi behar zituzten aldaketa erabatekoa izan zedin. Haien errealitatea eta ama izatearen ardurari aurre egiteko modua gogor kritikatu zituzten: elikadura eskasa, higiene falta eta dedikazio eza leporatzen zizkieten. XX. mende hasieran emakume horien jarduna eta ohiturak arbuiatzen zituzten baina jada ez ziren lehenagoko diskurtsoetan agertzen ziren "inude ankerrak", **beren egitekoa nola egin behar zuten irakatsi behar zitzaien inude inkontzienteak** baizik[220]. Testuinguru honetan kokatu dugu Eusko Ikaskuntzaren argitalpena, edoskitze ona nolakoa zen zehazten zuena.

220 Bravo Frias; Alonso Muñayorro (1923): "La transformación de las Inclusas. Memoria presentada al Congreso Nacional de Pediatría de San Sebastián": 36. or IN Revuelta, 2011: 339. or.

Haur espositoen inudeei dagokionez, aldaketa horren ondorioz kontrol mekanismoak estutu zituzten administrazioaren bitartez. Inude gisara zerbitzuak eskaini ahal izateko medikuaren ziurtagiria beharrezkoa bihurtu zen, baina, horretaz gain, zaintzen zuten haur bakoitzaren kartilan gertakari guztien berri ematen zen, eta noizean behin etxean herriko Batzorde Lokalaren ordezkaria edo bisitatzailea jasotzen zuten. Bestalde, **emakumeek batzorde horietan betetzen zuten papera** deigarria egiten zaigu: emakume haiek esaten zuten inudeak nolako ama izan behar zuen, **administrazioaren ordezkari gisa, lan hori ondo nork egiten zuen eta nork ez seinalatzeko boterea zuten.**

Haurren heriotza tasak jaisteak garrantzia hartu zuenetik, haurren duintasuna eta bizitza zaintzea ezinbesteko bihurtu zen hori ziurtatzeko. Argi dago, beraz, haur abandonatuen inudeek beren jarduna garatzeko pauta zehatz batzuk jarraitu behar izan zituztela, nahiz eta muga horiek lausoak izan ziren egunerokotasunean. Adibidez, inudeak ziur aski ez ziren eguneko 24 orduz egongo haur jaioberria zaintzen, baserria, gainerako haurrak edo beste egiteko batzuk zeuzkaten. Administrazioak muga horiek argi gainditzen zituztenean aktibatzen zituen bere mekanismoak inudeari haurra kentzeko. Ezin dugu ziurtatu beti inudearen jarduna beti egokiena izan ote zen, administrazioaren erabakiak ere egokienak izan ote ziren ziurtatu ezin dugun bezalaxe. Hori adierazten digu, hain zuzen ere, Eulalia Lizasoren kasuak.

Inudeak sistematikoki zeuden susmopean administrazioarentzat, eta hori azpimarratzea garrantzitsua da. Baina bestalde, haur abandonatuak egon artean, inudeen beharra zegoen. Horrek, beraz, zalantza eragiten digu teorian administrazioak haurren babeserako neurriak noraino bete eta noraino lasaitu zituen. Argi dago administrazioak inudeen beharra zuela eta hainbat urtetan soldatak igo zizkiela, baina, beste soldatekin alderatuta eta testuinguru ekonomiko zailean, esan dezakegu soldata horiekin ez zela inudeen erosteko ahalmena hobetu. Diskurtsoa, beraz, hipokrita samarra zen, baldintza material egokirik ezean eredu hori betetzerik ez baitzegoen.

Ziurrenik, administrazioak bere eskuetan zegoen guztia egin zuen haurren bizimodua hobetzeko. Halere, uste dugu gizarteak inudeei eskatzen ziena errealitate eta proportzionaltasunetik urrun zegoela. Hasteko, gizartean ezartzen ari zen higienismoak zerikusi gutxi baitzuen langile klaseko errealitate sozialarekin eta eguneroko egoerarekin. Esan dugunez, amatasun eredu berria hirietan aberasten ari zen klase burgesari zuzentzen zitzaion, eta noski, hori ez zen preseski haur espositoen inudeen egunerokotasun materiala.

Azpimarragarria eta ironikoa iruditzen zaigu haurren bizitzak garrantzia hartzen zuen bitartean, eta inudeei exigentziak egiten zizkieten bitartean, inudeen lana gaizkien ordainduta zegoen ofizioa izatea. Gainera, karitate kristau eta moralitateari dei egiten zitzaion haur abandonatuen inudeen jarduna betetzeko, aldi berean, aldizkari, egunkari eta hitzaldietan jarduna bera kritikatzen zuten bitartean. Nabarmentzekoa

da, halaber, hirietan zerbitzu horiek kontratatzen zituen klase sozialak berak jartzea zalantzan inudeen lana. Emakumeek arbuioa eta erruduntasuna jasan zuten, emakumeen funtzio naturala kontsideratzen zenagatik dirua irabazteagatik eta bidean beren seme-alaba biologikoak ahaztu eta beren funtzioa ez betetzeagatik, hau da, ama onak ez izateagatik.

Administrazioak, inudeen gaineko kontrola eramateaz gain, bazuen beste funtzio garantzitsu bat. XX. mendearen lehenengo erdian haur abandonatuak etengabe jasotzen zirenez, sehaska etxeak gainezka zeuden. Barruko inudeak oso garrantzitsuak ziren haur jaioberriak esne beharrez iristen baitziren normalean instituzio benefikoetara. Haur abandonatu horien epe luzeko biziraupena, ordea, kanpoko inudeek bermatzen zuten, haiek baitziren sehaska etxeetako funtzionamenduaren sostengatzaileak. Haiei esker kudeatu ahal izan zuen administrazioak hainbeste haur abandonaturen biziraupena. **Administrazioak behar-beharrezko zituen kanpoko inudeak, barrukoekin haur horien beharrak ezin izango lirateke ase inondik inora.** Horregatik, Diputazioak soldatak igotzera jo zuen, nahiz eta miseriazkoak izaten jarraitu zuten. Administrazioak haur jaioberriak etxean hartzea hobetsi zuen, soldatarik onenak lehenengo hilabeteetan eskainiz. Haurra gero eta nagusiagoa, orduan eta soldata txikiagoa. Haurraren biziraupena ziurtatu ondoren, ordea, beste helburu bat zuen administrazioak: haur hori bera inudearen familian txertatzea. Haurraren hobe beharrez egiten zen hori, baina baita haur horren gastu ekonomikoak familia horrek bere gain har zitzan ere. Bi modu erabili zituen hori bultzatzeko, jakinik inudeak haur abandonatuen zaintzatik dirua ateratzea zuela helburu: batetik, prohijazioa bultzatu zuen, haurra prohijatzen zutenean gero eta gazteagoa izan, orduan eta ordainsari handiagoa eskainiz. Bestetik, soldata kaskarragoak eman zizkieten haur nagusiak –4, 5 edo 6 urtekoak, adibidez– zaintzen zituzten inudeei. Hori bultzatuta ere, bi jarrera izan ziren ohikoenak: lehenengoa, epe motzerako diru-sarrera gisara haur jaioberri bat hartzea, eta hilabete batzuen ondoren, sehaska etxera itzultzea, gerora beste haur jaioberri bat hartzeko. Eta bigarrena, epe luzera begirako estrategia baten baitan, haurra jaioberritan hartu eta sei urtez bere edoskitze eta zaintzagatik hiru hilabetetan ordainsaria jasotzea. Adin horretara iristean prohijatzen zituzten haurrak, etxerako eta baserrirako beste lan esku bat izango baitzuten horrela. Badirudi, kasu hauetan prohijazioagatik jasotako diru-sarrera txikiagoak baino, balio handiagoa zuela haur hori nagusitzean lanerako beste esku bat izateak.

Ekonomia neoklasiko kapitalistak proposatzen dituen bi esferak (publikoa eta pribatua) zalantzan jartzen dituen jarduna da inudeen lanarena. Zergatik? Esferen banaketa dikotomiko honen arabera, espazio publikoan (gizonei dagokiena), kokatzen da alor politikoa, soziala, jabetza, eta batez ere ekonomikoa eta merkataritzakoa den oro. Aldiz, esfera pribatuan (emakumeei dagokiena) eta estatistiketarako kontuan hartzen ez den horretan kokatzen dira etxeko lanak eta bere baitan zaintza lanak, ekonomikoa eta produktiboa alde batera utzi eta afektibotasun eta sentimenduzko loturetan

oinarritzen direnak. Zer dira eskema honetan inudeak? Non sartzen dira? Zaintza lana egiten zuten eta gorputza produktibitate bide zuten: gorputza, afektua, zaintza etekin ekonomikoa lortzeko bitarteko zuten inudeek. Muga horiek berak zalantzan jartzen dituen jarduna da inudeena eta horregatik uste dugu hein handi batean, behintzat, gutxiesten zela.

Ezartzen ari zen moralitate berria zalantzan jartzen zuen lana zen, eta, nola ez, emakume behartsuek sortzen zuten arazo gehien. Izan ere, bestelakoa da iritsi zaigun inudeen figura. Gaur egun errepresentazioetan ageri zaizkigun inudeak aberatsen familietako haur legitimoen inudeak dira. Haur espositoen inudeek, ordea, estereotipo negatiboaren zamari eutsi behar zioten, klaseak eta klaseak baitaude. Hala ere, bada paradoxikoa den zerbait: hastapenean biologikoa den lan hori instituzio publiko batek ordaintzen zuela eta beraz, morala gorabehera, kategoria sozialak batzuk zein besteak izan, emakumeek bizirauteko baliabidea zela. Alor erreproduktibo eta produktiboaren tartean, beste kategoria bat.

Kontuak kontu, **XX. mendeak aurrera egin hala, inudeen jarduna desagertzen hasi zen gutxinaka. Industrializazioa eta modernizazioak eraldaketa sakonak eragin zituen gizartean, besteak beste, etxeko andrea zen ama onaren eredua guztiz finkatzea, adibidez.** Modernizazioaren erronka handietako bat haurren heriotza tasa jaistea izan zen, eta hori lortzeko mediku higienistek uste zuten bizitzako lehen hilabeteetan zaintza berezia eskaini behar zitzaiela haurrei. Haurra kategoria sozial berri bezala onartzea, eta babestu beharreko giza-talde bezala onartzea, dudarik gabe, aurrerapauso itzela izan zen. Esne Tantak eta asistentziarako antzeko instituzioak jarri ziren martxan bularretan esnerik ez zuten amek, pobretutako familietatik zetozenak, haurrari esnea emateko aukera izan zezaten. Mendeak aurrera egin ahala, formulako esneak zabaltzen joan ziren. Printzipioz ama biologikoaren bularra hartzea hobesten zen arren, halako esneak alternatiba egokitzat hartu zituzten urteek aurrera egin ahala. Inudeen lana poliki-poliki alboratzen joan zen. Klase altuetako familietan oraindik botere eta estatusaren erakusgarri izaten jarraitzen zuen arren, inudeen bitartez gauzatutako edoskitzearen aurkako diskurtsoa gizartean txertatzen joan zen. Haur abandonatuen kasuan, bestalde, kontuan hartu behar da haurren babesaren garrantzi gero eta handiagoa emateak, nolabait, ezkongabeak ziren amei gutxika-gutxika bekatuaren zama arintzea eragin zuela. Ama ezkongabeen babesa aurreikustea aurrerapausua zen jada, nahiz eta sozialki onartutako haurrak ezkondutako bikoteenak izan. Bide bat ireki zela esan dezakegu.

Azkenean, edoskitzea merkatutik atera zen behin betiko, etxeko eginbehar femeninoen zerrendan sartzeko. Haurren abandonu tasa gero eta txikiagoa izaten hasi zen. Inudeek gizartean betetzen zuten funtzioa galbidean jarri zen, eta ezohiko kasuetan baino ez zituzten kontratatuko aurrerantzean.

8.

GLOSARIOA

Haur ilegitimoa: Ezkongabeen harremanetik sortutako haurra.

Haur espositoa: tornu-etxe batean esposizioan jarritako haurra.

Tornu-etxea: haur ilegitimoak uzteko etxea, benefizentziaren esku haurra esposizioan uzteko lehenengo instituzioa. Tornu-etxeak deitzen zitzaien, tornu batetan uzten baitziren esposizioan haurrak. Tornuak zilindro formakoak ziren, kalea eta tornu etxea elkar komunikatzen zituenak. Bertan haurrak uzten ziren eta haurraren pisuak zein palankek zilindroa biratzea eragiten zuten. Kanpai bat eragiten zen mugimenduarekin eta honela, tornu-etxeko langileek, normalean mojak, haur bat esposizioan jarri berri zutela jakiten zuten. Osasunez nola zeuden jakin eta arropa aldatzen zieten, gerora sehaska etxera eramateko. Horrela, jada benefitzentziaren ardurapean gelditzen ziren haurrak.

Sehaska-etxea edo inklusa: haur espositoak jaso eta bizitzeko etxea. Gipuzkoako kasuan, probintzian banatuta zeuden tornu-etxeetatik jasotako haurrak bertara eramaten zituzten. Sehaska-etxeek ere tornua edukitzen zuten, zuzenean sehaska etxera eramandako haurrei lehenengo harrera egiteko.

Inudeak: haur baten edoskitze eta zaintzaz arduratzen ziren emakumeak. Haur jaioberriei bularra emateaz arduratzen ziren, nahiz eta esnea hartzeko garaia pasa ostean ere beren zaintzapean gelditu zitezkeen.

Barruko inudeak: sehaska etxeetan bizi ziren inudeak. Instituzio horietan sartzen ziren haurren lehenengo babes eta zaintzarako inudeak ziren. Beraiek ematen zieten bularra bertara iritsi berritan.

Kanpoko inudeak: sehaska etxeetako ardatza ziren inude hauek. Sehaska-etxeek ezin zuten jasotzen zuten bezain beste haur mantendu egoitzan. Kanpoko inudeak beren etxeetan zaintzen zituzten haur espositoak ziren. Oro har, epe luzerako gelditzen ziren inude horiekin, hau beti geratzen ez zen arren.

Prohijazioa: kanpoko inudeek haur esposito bat zaintzen zuenean, haurra familian txertatu eta prohijatzeko aukera zegoen. Haurrak familietan txertatzeko formula legal bat zen, nahiz eta ez zen adopzioa bezalakoa, prohijazioen kasuan haurrak oraindik administrazioaren ardurapean jarraitzen baitzuten eta haur horien osasuna, ohitura eta zaintzak egokiak zirela behatzen baitzuten.

Puerikultura: edoskitzea edo bularra ematea zein modutan egin behar zen zehazten zuen zientzia medikoa. Amen ohiturak aldatu eta modu zientifikoan eta neurtuan jardun behar zirela zioten.

9. TAULEN INDIZEA

1. TAULA:
Gipuzkoako biztanleria aktiboaren banaketa sektoreka (ehunekoetan), 1887-1930..... 41

2. TAULA:
Gipuzkoa, Hernani eta Donostiako biztanleriaren eboluzioa, 1900-1940..... 43

3. TAULA:
1940an Hernanira iritsitako migranteen jatorria, ehunekotan 43

4. TAULA:
Gipuzkoako alfabetatze tasak ehunekotan, 1900-1930. 44

5. TAULA:
Gipuzkoako barruko inudeen hilabetekako soldatak, 1900-1941..... 89

6. TAULA:
Kanpoko inudeen hilabetekako soldatak, 1900-1910..... 95

7. TAULA:
Barruko inudeen hilabetekako soldatak, 1916-1940..... 96

8. TAULA:
Soldaten batez besteko eboluzioa Espainian, pezeta/eguneko, 1900-1940 97

9. TAULA:
Prohijatzean familiek jasotzen zituzten ordainsariak, 1916 baino lehen eta ondoren..... 99

10. TAULA:
Hernaniko inudeek zaindutako haur kopurua, 1900-1944..... 102

11. TAULA:
Hernaniko inude zaindu zituzten haurren ibilbideak, 1900-1944 103

12. TAULA:
Hernaniko inudeek haurrekin igarotako denbora, 1900-1944..... 107

13. TAULA:
Hernaniko inude bakoitzak zaindutako haur kopurua, 1900-1944..... 108

14. TAULA:
Hernaniko inudeen haur biologiko kopuruak, 1900-1944 112

15. TAULA:
Hernaniko inudeen alfabetatze maila, 1900-1944 116

16. TAULA:
Hernaniko inudeen senarren lanbidea, 1900-1944 117

10. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

10.1. ITURRIAK

Artxiboak

- Hernaniko Udal Artxiboa.
- Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

Ahozko iturriak

- Ahotsak.eus.
- Egileak jasotako testigantzak: Ihintza, Ixiar eta Angel Mari.

Lege eta araudiak

- *Ley de Instrucción Pública,* 1857-09-09koa.
- *Ley de condiciones de trabajo en las fábricas, talleres y minas*, 1873-07-24koa.
- *Ley regulando el trabajo de las mujeres y los niños*, 1900-03-13koa.
- *Ley sobre protección a la infancia*, 1904-08-12koa.
- *Reglamento de la Ley sobre protección a la infancia*, 1908koa.
- *Reglamento sobre puericultura y primera infancia*, 1910ekoa.
- *Reglamento general de expósitos para la Provincia de Guipuzcoa* (1900, 1910, 1916).

Aldizkako publikazioak

- *Euskal Erria*, 1902-1916.
- *Gaceta de Madrid*.
- *Guipúzcoa Médica*, 1916, 1917, 1918, 1920.
- *La madre y el niño. Revista de higiene y educación*.
- *La Voz de Guipúzcoa*.

Publikazio garaikideak

- BALBÁS, Tomás (1904): *Mutualidad maternal. Consideraciones hechas por el vicepresidente de la comisión provincial en la reunión preparatoria para su institución en Guipuzcoa*, Donostia.
- Eusko Ikaskuntza (datarik gabe): *Cartilla de puericultura.*
- FISCHER, Luis (1930): *Manual y guía de alimentación y cuidados del niño para uso de médicos, madres y nodrizas,* Espasa-Calpe, Madrid.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques (1762): *Emilio o la educación*. V. Tomoa: *Sofia o la mujer.* https://es.wikisource.org/wiki/Emilio:_Libro_V 2017-08-08an kontsultatua.

Hemeroteka

- Donostiako Udal Liburutegia.
- Bizkaiako Foru Aldundia.
- Sancho el Sabio Fundazioa.
- Koldo Mitxelena Liburutegia.
- www.boe.es
- www.ine.es

10.2. BIBLIOGRAFIA

- AINZ IBARRONDO, M. Jose (1995): "Baserria eta industrializazioa", *Industrializaziotik desindustrializaziora? Euskal Herria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan,* Udako Euskal Unibetsitatea, Bilbo.
- AIZPURU MURUA, Mikel (2000): *El nacionalismo vasco en Guipúzcoa. Orígenes, organización y actuación política (1893-1923),* Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- ALTONAGA BEGOÑA, Bakarne (2016): "Mujeres viriles en el siglo XVIII: la construcción de la feminidad foralista de Manuel de Larramendi", *Historia Contemporánea,* 52. Zk., 9-42.
- APAOLAZA ÁVILA, Urko (2003): *Aldaba joka. Hernani: ahozko historia txikia (1931-1981),* Dobera Euskara Elkartea, Hernani.
- ARBAIZA VILLALONGA, Mercedes (2000): "La 'cuestión social' como cuestión de género. Feminidad y trabajo en España (1860-1930)", *Historia Contemporánea,* 21. Zk., 395-458.

- ARESTI ESTEBAN, Nerea (2000): "El ángel del hogar y sus demonios. Ciencia, religión y género en la España del siglo XIX", *Historia Contemporánea,* 21. Zk., 363-394.
- ARESTI ESTEBAN, Nerea (2001): *Médicos, donjuanes y mujeres modernas. Los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX,* Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- ARESTI ESTEBAN, Nerea (2012): "Los argumentos de la exclusión. Mujeres y liberalismo en la España conteporánea", *Historia Constitucional: Revista Electrónica de Historia Constitucional,* 13. Zk., 407-431.
- BALLESTER, Rosa; BALAGUER, Emilio (1996): "La infancia como valor y como problema en las luchas sanitarias de principios de siglo en España", *Dynamis: Acta hispánica ad medicinae scientiarumque historiam illustradam,* 15. Zk., 177-192.
- BERDOTE ALONSO, Esther (2016): "Mujer y educación. El caso de las Vedrunas en el País Vasco, siglos XIX y XX", *Historia y Memoria de la Educación,* 4. Zk., 107-139.
- BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro (2015): "La baserritarra en el caserío vasco. Siglos XIX y XX", *Jornaleras, campesinas, agricultoras. La historia agraria desde una perspectiva de género,* Monografías de historia rural, 11. Zk., Prensas de la Universidad de Zaragoza, Zaragoza.
- BOLUFER PERUGA, Mónica (1992): "Actitudes y discursos sobre la maternidad en la España del Siglo XVIII: la cuestión de la lactancia", *Historia Social*, 14. Zk., 3-24 or.
- CABRERA ESPINOSA, Manuel (2012): "La lactancia como profesión: una mirada al oficio de nodriza", *IV Congreso Virtual sobre historia de las mujeres,* 1-12.
- CARRASCO BENGOA, Cristina (2001): "Sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?", *Mientras Tanto*, 82. Zk., 43-70.
- COLMENAR ORZAES, Carmen (2007): "Nodrizas y lactancia mercenaria en España durante el primer tercio del siglo XX", *Arenal, revista de historia de las mujeres,* 14. Zk., 2, 335-359.
- DÁVILA BALSERA, Paulí [et. al] (1994): "Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria, 1860-1990", *Cuadernos de Sección. Educación,* 7. Zk., 63-99.
- DÍAZ FREIRE, José Javier (1999): "La reforma de la vida cotidiana y el cuerpo femenino durante la Dictadura de Primo de Rivera", *El rumor de lo cotidiano: estudios sobre el Pais Vasco Contemporáneo,* 225-258.
- DÍAZ-NOCI, Javier (1995): "Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1934-1939)", *Mediatika: cuadernos de medios de comunicación,* 5. Zk., 17-298.
- ESTEBAN GALARZA, Mari Luz (2000): "La maternidad como cultura. Algunas cuestiones sobre lactancia materna y cuidado infantil", IN Perdiguero, Enrique eta Come-

lles, Josep. M. (Ed.): *Medicina y cultura. Estudios entre la antopología y la medicina,* 207-226, Edicions Bellaterra, Bartzelona.

- EXPÓSITO GONZALEZ, Raul [et. al] (2012): "Nodrizas", *Enfermeria Avanza, http://enfeps.blogspot.com.es/2012/06/nodrizas.html* 2017-05-09an kontsultatua.
- FERNÁNDEZ, Silvia; RODA, Paco (Koord.) (1998): *Ellas. Las mujeres en la historia de Pamplona*, Iruñeako Udala, Emakumearen Zinegotzigoa, Iruñea.
- FRAILE GIL, Jose María (2000): *Amas de cría. Colección José María Fraile Gil: invierno 2000-invierno 2001, sala de exposiciones de la Fundación Joaquín Díaz, Urueña, Valladolid,* Fundación Joaquín Díaz, Fundación Centro de Documentación Etnográfica sobre Cantabria, Valladolid, Santander.
- GARCÍA GALÁN, Sonia (2011): "De las prácticas tradicionales a la supervisión médica en el ejercicio de la maternidad. Asturias 1900-1931", *Dynamis: Acta hispánica ad medicinae scientiarumque historiam illustradam,* 31. Zk., 1, 131-157.
- GARCÍA GALÁN, Sonia (2015): *Mujeres entre la casa y la calle. Educación, feminismos y participación política en Asturias, 1900-1931,* Colección Demeter, Oviedo.
- GARCÍA MAGRIÑA, Eva (2011): *Fraisoroko amak Fraisoroko haurrak,* Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Zizurkil.

  GARCÍA MAGRIÑA, Eva; PEGO OTERO, Laura (2013): *Procedimientos de adopción de niños y niñas llevados a cabo en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa (1940-1990). Actuaciones y medidas de protección infantil relacionados con la adopción. Estado y contenido de los archivos, registros y documentación obrantes en la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación a dichas materias,* Aranzadi Zientzia Elkartea, Argitaratu gabea.
- GONZÁLEZ FERNANDINO, Garoa (2004): "Industrializazioa Hernanin", *Kondaira,* 1. Zk., 1-12.
- GORROTXATEGI GORROTXATEGI, Pedro (2003): "Eusko Ikaskuntza y la salud infantil. La dibulgación de medidas higiénicas y sanitarias de la <<Cartilla de Puericultura-Aurrazkuntza Irakastia>>", *Osasunaz,* 5. Zk., 263-276
- GORROTXATEGI GORROTXATEGI, Pedro (2014): "La Gota de Leche de San Sebastián", *Cuadernos de Historia de la Pediatría Española,* 8. Zk., 18-22.
- ITURBE MACH, Ander (1994): "El coste de la vida en Erandio: 1892-1924", *Cuadernos de Sección. Historia-Geografia,* 22, 225-238.
- LARRAÑAGA SARRIEGI, Mertxe (2013): "Algunas claves de la economía feminista", *Alternativas feministas frente a la crisis,* 97-112.

- LLONA GONZÁLEZ, Miren (2006): "La construcción de la identidad de clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables", *Vasconia,* 35. Zk., 287-300.
- LOBO CABRERA, Miguel (1993): *La "otra" población: expósitos, ilegítimos, esclavos: Las Palmas de Gran Canaria, Siglo XVIII,* Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, Las Palmas de Gran Canaria.
- MARTÍNEZ MARTÍN, María Ascensión (1996): *Gipuzkoa en la vanguardia del reformismo social. Beneficencia, ahorro y previsión (1876-1936)*, Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, Donostia.
- MARTÍNEZ SABATER, Antonio (2014): *Las nodrizas y su papel en el desarrollo de la sociedad española. Una visión transdisciplinar. Las nodrizas en la prensa española del Siglo XIX y principios del Siglo XX,* Univestitat d'Alacant-Universidad de Alicante, Alicante.
- MORATA MARCO, Eva María (2003): "La imagen de la maternidad en España de finales del siglo XIX y principios del siglo XX", *Arenal, revista de historia de las mujeres,* 10. Zk., 2, 163-190.
- NASH, Mary (2010): "Maternidad y construcción identitaria: debates del siglo XX", IN Debates sobre la maternidad desde una perspectiva histórica (siglos XVI-XX), Gloria A. Franco Rubio (Ed.), Icaria editorial, Bartzelona.
- NASH, Mary (2012): *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos,* Alianza Editorial, Madril.
- NIEVA ZARDOYA, José Luis (2013): "Liberalismo, fuerismo y nacionalismo vasco", *Los liberales. Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808-1876),* Fundación Sancho el Sabio, Gasteiz.
- PÉREZ CASTROVIEJO, Pedro M. (2006): "Poder adquisitivo y calidad de vida de los trabajadores vizcaínos, 1876-1936", *Revista de historia industrial,* 30. Zk., 103-142.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2002): "¿Hacia una economía feminista de la sospecha?", *Revista En Otras Palabras,* 13. Zk., 1-29.
- RAMOS PALOMO, Maria Dolores (1995): "¿Todos a una?: El familismo en las economías campesinas", *Baetica. Estudios de Arte, Geografía e Historia,* 17. Zk., 497-510.
- REVUELTA EUGERCIOS, Barbara Ana (2011): *Los usos de la Inclusa de Madrid, mortalidad y retorno a principios del Siglo XX (1890-1935),* Universidad Complutense de Madrid, Madrid.

- RODRÍGUEZ MARTÍN, Ana María (2007): "Una estrategia de supervivencia femenina: las nodrizas sin retribución de la inclusa de Pontevedra, 1872-1903", *Minius: Revista do Departamento de Historia, Arte e Xeografía,* 15. Zk., 239-253.
- RODRÍGUEZ MARTÍN, Ana María (2009): "Las nodrizas de las inclusas: las amas de leche de la casa de maternidad y expósitos de Barcelona, 1853-1903", *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia,* 4. Zk., 65-94.
- RODRÍGUEZ PÉREZ, Juan Félix (2014): "Manuel Tolosa Latour (1857-1919) y Elisa Mendoza Tenorio (1856-1929): precursores de la protección de la infancia en España", *El futuro del pasado,* 5. Zk., 355-378.
- SÁNCHEZ FERNÁNDEZ, Luis Vicente [et. al] (2013): "Marginación y pobreza desde la cuna. El niño expósito en el Concejo de Siero, Asturias (1800-1936)", *Revista de Demografía Histórica,* 31, 2. Zk., 131-166.
- SANTOS SACRISTÁN, Marta (2008): "Los inicios de la protección a la infancia en España (1973-1918)", IX Congreso Internacional de Asociación Española de Historia Económica, Murcia. http://www.um.es/ixcongresoaehe/pdfB3/Los%20inicios%20de%20la%20proteccion%20infancia.pdf
- SCANLON, Geraldine M. (1987): "La mujer y la instrucción pública: de la ley Moyano a la II República", *Historia de la educación: revista interuniversitaria,* 6. Zk., 193-208.
- SOLER, Elena (2011): *Lactancia y parentesco. Una mirada antropológica,* Anthropos editorial, Bartzelona.
- TALTAVULL ESTRADA, Bartolomé (1963): "Vida rural y urbana en la villa y término de Hernani", *Estudios geográficos, revista publicada por el Instituto Juan Sebatián Elcano,* 24. Bol, 90. Zk., 57-108.
- TATJER MIR, Mercedes (2002): "El trabajo de la mujer en Barcelona en la primera mitad del siglo XX: lavanderas y planchadoras", *Scipta Nova: Revista electrónica de geografía y ciencias sociales,* 6, 119. Zk.
- URIBE-ETXEBERRIA FLORES, Arantzazu (1997): "Antecedentes y propuestas relativas a las políticas de género centradas en la maternidad. País Vasco, 1890-1930", *Emakumeak Euskal Herriko historian. Formazio Koadernoak,* IPES, Iruñea.
- VALVERDE LAMSFUS, Lola (1990): "Los niños expósitos y sus nodrizas en el Pais Vasco (Siglos XVIII y XIX), *Vasconia: Cuadernos de historia – geografía,* 17. Zk., 233-262.
- VALVERDE LAMSFUS, Lola (1994): *Entre el deshonor y la miseria: infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglo XVIII y XIX,* Universidad del Pais Vasco-Euskal Herriko Unibetsitatea, Leioa.

- VALVERDE LAMSFUS, Lola (2012): "Estrategias de supervivencia de las mujeres pobres en Guipúzcoa. Los casos de San Sebastián y Tolosa (1885-1915)", *Historia Contemporánea,* 44. Zk., 183-204.
- VIDAL GALACHE, Florentina (1987): "El impacto de la Ley General de Beneficencia de 1822 en Madrid", *Revista de la Facultad de Geografía e Historia,* 1. Zk., 41-56.

ESKERRAK, BIDE HONETAN ONDOAN IZAN ZAITUZTEDANEI

Hernaniko Udalari eta batez ere Berdintasun Kontseiluari, halako proiektuek lekua izan dezaten egindako lanagatik eta emakumeen historia berreskuratzeko egiten duzuen lan guztiagatik. Bereziki Maialen Apezetxea Berdintasun Teknikariari, burokraziarekin laguntza eman eta ulertzeagatik, beti animatu eta aurrera jarraitzen laguntzeagatik. Jesus Mari Gómez, Txuso, Udal Artxiboko arduradunari, paper artean eta lanez gainezka, nire eskaera guztiak bete eta beti behar nuena emateagatik. Urko Apaolaza historialari eta kazetariari, ikerketaren zuzenketetan egindako lan guztiagatik. Manoli Barrenetxeari, herria hankaz gora jartzeko prest egoteagatik.

Hernaniko hiru elkarrizketatuei, mila esker. Zuen etxea eta bizitzak ireki eta hasieratik eskuzabal hartzeagatik.

Baina batez ere, eskerrak lagun guztiei. Bide eta denbora honetan adorea ematen, entzuten eta babesten egoteagatik:

Mikeli: testua zuzentzen emandako denboragatik, zure pazientziagatik eta zegokionean lasaitzeko hitz edo keinuekin beti asmatzeagatik.

Irati lagun eta soziologoari, lupa hartuta hausnarketa pausatua oparitzeagatik eta batez ere, proiektua egin nuenetik nigan sinesteagatik.

Jongarri: artxiboan ez aurrera ez atzera nenbilenean eskainitako kafe, paseo eta hizketaldi guztiengatik. Eta nola ez, zure gurasoak inplikatzeagatik.

Maialeni: beti, beti, entzun eta animatzeagatik.

Itziarri: Landetako erretiroagatik eta nigan sinesteagatik.

Josetxori: nigatik inor ez bezala poztegatik eta aurrera jarraitzeko animo guztiengatik.

Mireni: Leokara eramategatik.

Leire eta amari: baldintzarik gabeko babesagatik.

Teatrapako lagunei: interesagatik.

Zuek gabe ezin.
Eskerrik asko,
benetan.



BIZIRAUPENERAKO ZAINTZA

HERNANIKO INUDEAK 1900-1944

Hernaniko Udala

berdintasun kontseilua

9 788493 419387